ASTELEHENEKO
Goienkaria

2009ko urriaren 13a > Martitzena > VII. urtea > 249. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Euskal sorkuntzaren berri jaso beharko genuke zuzenean, haren bila joan barik"

Edorta Jimenez
Galeusca > 08

ARRASATE
Emigrazioaren eta diasporaren gaineko mintegia egingo dute > 14

LEINTZ GATZAGA
Ohi bezala, Aretxabaletan hasi dira ehiza postuen zozketak > 20

FUTBOLA
UDAk 84. minutuan berdindu zuen Santurtziren kontra > 22

XAKEA
IX. Arrasate Hiria irabazteko faboritoak gaur jokatuko du > 26

DANTZA > EUSKAL HERRIKO 33. TXAPELKETA

Bergarako bikotea, Euskal Herriko txapeldun

MEREZITA Aitzol Ena eta Maite Lazkanok saio bikaina egin ostean irabazi zuten Euskal Herriko dantza txapelketa

BEREZIA Bergarako Udalarendako da Basterretxearen eskultura; bertan egongo da datorren urtera arte > 30

KIROLA > MOTOKROSA

Abasolo nagusitu zen Bergarako openean

Lokatza izan zen protagonista ipar zonako hirugarren motokros proban. Hala, openak ikusgarritasuna galdu zuen. Gainera, izena eman zuten 56 pilotuetatik erdiak baino gehiagok ezin izan zuten proba amaitu, erori egin zirelako edo motorrarekin arazoak izan zituztelako. Aipatzekoa Xabier Abasolo arrasatearraren lana: MX2 mailan nagusitu zen, faborito handiena zen Ander Valentin menderatu baitzuen. > 21

ESKORIATZA > INGURUMENA

AHTko lan batzuk eten dituzte, isuriengatik

Eskoriatzako Udalak "pozik" hartu du Espainiako Gobernuak jakinarazi dion erabakia, AHTko Mazmelako tuneleko lanak etetekoa, harik eta lanok sortzen zuten isurien arazoa konpondu arte. Eskoriatzako alkateak maiatzetik ziharduen hainbat erakunderen aurrean salatzen Eskoriatzan erreka guztiz kutsatuta, belztuta jaisten zela, lan horien isurien eraginez. Horretarako propio ipinitako araztegia ez zebilen ondo. > 04

SKATE PARKEA Debagoieneko gazte asko gerturatu ziren zapatuan Eskoriatzako parkera. JOSETXO ARANTZABAL

Skate zaleek ilusioz hartu dute parkea

G2a

Skate zaletasuna handia da Debagoienean. Orain, skaterrek Eskoriatzan parke berrian dute skateaz disfrutatzeko. Pozik eta ilusioz inauguratu zuten zapatuan parkea. Maila guztietako erabiltzaileendako dago eginda, inoiz praktikatu ez dutenendako ikasteko leku aproposa. > 29

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Ekonomia > 06
Auzoak > 07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-28
Kultura > 29-33
Sailkatuak > 34-35
Denbora-pasak > 36
Telebista-Irratia > 37
Berri-zakua > 38-39

Arduradunak eta herritarrak, haurreskola inauguratzen, zapatuan. J. ARANTZABAL

ELGETA > ZERBITZUAK

Haurreskola berriak 20 plaza ditu

"Ederra" eta "beharrezkoa", horiek izan ziren Elgetako haurreskola eta ludoteka-gazteleku berriaren inaugurazioan entzun ziren batzuk. Orain arteko haurreskolaren bi halako kapazitatea dauka egoitza berriak. > 11

MP3 bat. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

JENDARTEA > OSASUNA

Tabakoaren lege berr

LEGEA GOGORTU Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak 2006. urtean indarrean jarritako legea gogortzeko lanean dihardute

TOKI PUBLIKO GUZTIAK Asmoa da toki publiko guztietan erretzea debekatzea; Jaurlaritzak elkarte gastronomikoetara nahi du debeku hori zabaldu

OSTALARIEN ELKARTEA Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak uste du araudi berri horrek kaltek egingo duela arloan; salmenten beherakada espero dute

MIRIAN BITERI > BERGARA

Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak 2006. urtean ezarritako Tabakoaren Legea gogortzeko asmoa agertu dute azkenaldian. Dagoeneko hiru urte pasa dira 28/2005 legea indarrean jarri zenetik eta oraindik ere leku askotan ez da araua betetzen. Hori delaeta, horren harira araudi berria gertatzen ari dira biak, datorren urtean abian jarri nahi dena.

Proposamena aurrera ateratzen bada, ezin izango da inolako eremu publikotan erre. Eusko Jaurlaritzak haratago joan nahi du, elkarte gastronomikoei ere esandako debekua ezarriz .

EGUNGO ARAUDIA, EGOKIA

Horren aurrean, Gipuzkoako Ostalarien Elkarteko idazkari nagusi Kino Martinezek lege horren gogortzeak jatetxeetan eta tabernetan izango duen eraginaz egin du berba: "Ez gaude tabakoaren alde, gure bezeroen alde gaude; eta bezeroen artean, erretzaileak eta ez erretzaileak daude. Hala, gaur egun indarrean dagoen araudia egokia dela iruditzen zaigu".

Aipatu du Europako Batasunean ostalaritza toki guztietan erretzea debekatu duen herrialderik ez dagoela. Horren harira, gogorarazi du lege gogorrena Irlandak duela. Lehendabizikoa izan zen herrialde hori, 2004an, toki publikoetan tabakoa erretzeko debekua ezartzen. Hoteletako geletan eta Bed & Breakfast delakoetan erre daitekeela dio Martinezek.

SALMENTEN BEHERAKADA

Epe laburrera edo ertainera begira, ostalaritza establezimenduetan %100ean erretzea debekatzen duen araudiak salmenten beherakada ekarriko duela dio: "Ez hainbeste bezero faltagatik; bezero horiek hartzen dituen trago kopuruagatik baizik".

Gipuzkoako Ostalari Elkartearen zuzendaritzan dagoen Antton Elortza ere bat dator. Oñatiarraren esanetan, "dudarik ez eduki, tabernariei kalteak ekarriko dizkiola horrek. Araudiak, dena den, aurrera egingo du eta horri men egin beharko diogu derrigorrez. Hori bai, denontzat izan behar da; jendea dagoen toki publiko guztiendako. Ezin bada erre, ezin da erre". Horren harira, gogorarazi du indarrean dagoen legearekin "hutsuneak" egon direla.

Ostalaritza elkartean arduratuta daude Euskal Autonomi Erkidegoan abian jarriko den araudia Espainiakoa baino zorro-

iaren harira, erreta

tzagoa izango delako. Martinezen arabera, "gainontzeko erkidegokoekin muga egiten duten herrietan arazoak sortuko dira horren harira. Ez dugu ulertzen zergatik arautu behar den gehiago".

30.000 EURO LEGERA EGOKITZEKO

Bestalde, 2006an, legea indarrean jarri zenean, hainbat jatetxek eta tabernak legera egokitzeko egindako lanak zeinek ordainduko dituen galdetu du; lege berriarekin egindako inbertsioa ezerezean gera daiteke-eta. Martinezen esanetan, "batez besteko, 25.000 eta 30.000 euro artean inbertitu dituzte euren lokala legera egokitzeko eta erretzaile eta ez errentzaileendako guneak sortzen. Egindako inbertsioa ez dute amortizatu, hiru urtetan legea aldatu delako". Ostalari horiek konpentsatzeko neurriak hartu behar direla aipatu du.

Horren harira, Antton Elortza iritzi berekoa da. Gogorarazi du lokaletan obrak egitera derrigortuta egon direnek "diru asko" gastatu dutela eta hortaz, orain administrazioek laguntzak eman beharko dituztela.

Gipuzkoako Ostalarien Elkartekoak gaueko aisialdiarekin ere arduratuta badaude. Gaur egun, 100 metro karratutik beherako tabernetan eta jatetxeetan, jabeek erabakitzen dute erre daitekeen edo ez eta gehienek baimendu egiten dute. Dantzalekuetan ere erre daiteke egun. Araudi berriarekin debekatuta egongo litzateke eta jendea kanpora irten beharko litzateke erretzeko.

GAUEAN, ARDURA ARGITU

Martinezek adibide baten bidez azaldu du egoera berria: "Arrasateko Ganbrinusen, 03:00etan, 40 lagun kalean erretzen, taberna barruan ezin dutelako erre. Noren ardura da hori? Ostalariena edo administrazio publikoarena, jendeari kanpoan erretzean uzten diolako? Nola zehaztuko da hori?". Ardura zeinena den "argi" geratu behar dela adierazi du.

ELKARTE GASTRONOMIKOAK

Bestalde, esan bezala, Eusko Jaurlaritza elkarte gastronomikoetan erretzea debekatzea aztertzen ari da. Jaurlaritzako Droga Mendekotasunaren Aurkako Zuzendaritzak egindako lege zirriborroan debeku hori jasotzen du. Leku horiek jateko eta edateko lekuak direla arrazoitzen dute, eta, hortaz, ezin dela erre. Eudelek dagoeneko horren gainean duen iritzia ezagutarazi du. Bakarrik umeak daudenean erretzea debekatzearen alde azaldu da eta gainontzeko kasuetan, elkarte gastronomiko bakoitzaren esku utzi behar dela erabakia.

Elortza Oñatiko Makalena eta Gure Txoko elkarte gastronomikoetako kidea da. Legea taberna edo elkarte gastronomiko batendako "berdina" izan behar dela uste du. Araudiak Eudelen proposamena jasotzen badu, "hankamotz" geratuko dela gaineratu du: "debekatu behar baldin bada, behingoz debeka dezatela".

Bestalde, Bergarako Sagarpe elkarteko presidente Alatz Larrañagak azaldu digu eguen arratsaldean batzarra egin zutela elkarteko estatutuak aldatzen dihardutelako. Sukaldean eta elkarteko beste hainbat toki zehatzetan debekatzea erabaki zuten eta jantokian, erretzea laga. Gaineratu du debekua ezartzen bada, toki guztietan erretzeari utzi beharko diotela. Larrañagaren esanetan, "gai polemikoa bada ere, poliki-poliki debekua zabaltzen joango dira". Elortzak ere bat dator Larrañagarekin: "Gaiak luze joko du eta polemikoa izango da, zalantza barik".

Irudian, Cafe Bergaran erretzen dagoen bezeroa, erretzea baimentzen duen kartela parean duela; irudi hori laster desager daiteke. JOSETXO ARANTZABAL

2006 URTEKO LEGEA

> DEBEKATUTA DAGOEN TOKIAK
Orain honako tokietan ezin da erre: osasun etxeak, ikastetxeak, lantokiak, kiroldegi estaliak, kultura guneak, garraio publikoak, lantokiak eta 18 urtetik beherako aisialdi tokietan.

> 100 M²-TIK BEHERAKOAK
Jabeen eskuetan geratzen da 100 metro koadrotik beherako tabernetan eta jatetxeetan erretzea uztea edo ez.

> BAIMENDUTAKO TOKIAK
Erretzaileendako gune bereziak egon daitezke hoteletan, zinemetan, espetxeetan, adingabekorik gabeko dantzalekuetan edo 100 metro koadrotik gora dituzten tabernetan eta jatetxeetan.

> ADINGABETUAK
18 urtetik beherakoei tabakoa saltzea erabat debekatuta dute saltzaileek.

> 16 URTETIK BEHERAKOAK
Erretzeko guneak dituzten establezimenduetan, ezin dira hamasei urtetik beherakoak sartu.

> TOKI BAIMENDUETAN
Estankoetan eta baimendutako makinetan bakarrik sal daitezke paketeak; makinek, kontrolerako tresnak izan behar dituzte.

> PUBLIZITATERIK EZ
Ezin da publizitaterik egin.

UDALAK

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak ikuskatzeak egin eta isunak jar ditzatela nahi du Eudelek

Eudelek batzarra egin zuen joan den astean, Jaurlaritzako Droga Mendekotasunaren Aurkako Zuzendaritzak egindako lege zirriborroaz jardutelako. Ados azaldu ziren, esaterako, establezimendu publiko guztietan erretzeko debekua jartzearekin; baita pilotalekuetan ere. Baina, hainbat aldarrikapen ere azaldu ziren han. Esaterako, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak ikuskatzeak egin eta isunak jartzeko ahalmena izatea nahi dute. Orain Osasun-ikuskatzaileek bakarrik dute ahalmen hori. Horren harira, 20.000 biztanletik gora dituzten herrietako udalek isunak zuzenean bideratzeko aukera izan dezatela eskatzen dute.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Mazmelako tuneleko lanak eten dituzte, isurketengatik

Eskoriatzan erreka beltz jaisten zen lanon eraginez eta, Udalak eskatuta, jarduera hori eten egin dute, alternatibak topatzeko

Erreka guztiz kutsatuta jaisten zen. GOIENKARIA

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Luzaroan zebilen Eskoriatzako Udala Abiadura Handiko Trenaren obren arduradunei eskatzen Mazmelako (Induspe) tuneleko lanak gerarazi zitzatela, erreka beltz jaisten zelako horien ondorioz. Bada, egunotan jakinarazi diote Udalari lanak eten egin dituztela, egoera aztertzeko eta lan horiek ingurumen aldetik hobeto egiteko sistema topatzeko. Batez ere, aztertuko dute lan horietarako ipinitako araztegiak zergatik jarraitzen duen akatsak ematen.

AHTko Mazmelako tuneleko obren eraginez, erreka beltz jaisten zen. Horren arrazoia zen ura tuneleraino eroaten zutela, makinak hozteko, eta gero, ur zikina errekara bueltatzen zela. Araztegia ez da behar bezala ibili, eta hainbat alditan hondatu da.

Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek ondo hartu du erabakia: "Gutxienez, gure eskaerak entzun egin dituzte", esaten du. Egoera "oso larria" zen, bere esanetan: "Inoiz ez genuen erreka horrela ikusi", dio. Eusko Jaurlaritzara, Foru Aldundira eta Espainiako Gobernuko ordezkariengana jotzen ziharduten maiatzetik egoera hori salatzeko.

URUBURU I TUNELA HASI DUTE

Bestalde, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Mikel Cabiecesek egubakoitzean jakinarazi zuen Uruburu I delako tuneleko zulaketa lanak hasi berri zituela Adif-ek, Trenbide Azpiegitura Administrazioak. Eskoriatza-Aramaio zatiaren barruan dago tunel hori, eta 475 metro luze izango da. Eskoriatzako Marin eta Zarimutz auzoetatik pasatzen da ibilbidea.

Uruburu I bide bikoitzeko tunela da, 85 metro koadroko sekzio batekin, eta tunela eta ezponda elkar ebakitzen duten bi guneetan, 40 metroko tunel artifizial ban egingo dute. Hondeaketa gailu mekaniko bidez egingo da.

EKONOMIA > NEURRIAK

Eroskik 3.800 lanpostu kendu ditu krisiarengatik

Krisiak jarraitzen badu, egokitzapen gehiago egin beharko dituela jakinarazi du Mondragon Taldeko banaketa-kateak

L.K. > ARRASATE

Eroski Taldeak aldi baterako 3.800 lanpostu kendu ditu (lantalde osoaren %7 baino zertxobait gehiago), galerak murrizteko eta kontsumoa jaitsi izanari aurre egiteko. Enplegua murrizten duen Estatuko lehen banaketa-kate handia da Eroski.

Espainian krisi ekonomikoak jarraitzen badu, Eroskik ohartarazi du doikuntza edo egokitzapen gehiago egin beharko dituela. Gogoratu behar da urteko lehen erdian 46,15 milioi euroko galerak izan dituela.

Beste neurri bat onartu du azkenaldian: bazkideek ordu gehiago lan egitea, aurtengo soldata berberarekin. Hainzuzen ere, datorren urtean, taldeko 9.000 kooperatibistek %10 gehiago egingo dute lan, 178 ordu gehiago. Horrekin, Eroskik ez du aldi bateko kontrataziorik egin beharko, bazkideek beteko dituztelako lan-premia horiek.

Estatuan, banaketa-kate handi guztiek dituzte zailtasunak, krisiaren ondorioz. Hartu dituzten neurrien artean daude kontratazioa izoztea, aldi bateko kontratu gehiago ez egitea eta langileen egutegi edo ordutegiak berrantolatzea.

SABECOREKIN HITZARMENA

Bestalde, Espainiako Lehiaren Batzordeak baimena eman dio Eroskiri sei denda Sabecori saltzeko. Gaztela-Mantxan daude denda horiek, lau Ciudad Realen eta bi Toledon. Eroskiren eta Sabecoren arteko hitzarmen baten fruitu da salerosketa, eta hitzarmen berak babestuta, Sabecok Errenterian duen saltokiaren esplotazioari dagozkion aktiboak ere bereganatuko ditu Eroski Taldeak.

JOSETXO ARANTZABAL

Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko tituludun berriek diplomak jaso zituzten egubakoitzean

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko bigarren promozioko tituludun berriek jaso dituzte ikasketa amaierako diplomak. Egubakoitz arratsaldean egin zuten ekitaldia Eskoriatzako Huhezi fakultatean.

MUko errektore Josu Zabalak, Huheziko dekano Nekane Arratibelek eta Aitor Zuberogoitia eta Aitor Arregi irakasleek eman zituzten diplomak; azken horrek *Kontaidazu zerbait, baina kontatu ondo* delako berbaldia egin zuen. Diplomak banatu eta gero, Josu Zabalak hitz batzuk egin zituen, eta bukatzeko, luntxa eta Los Galerna taldea arrasatearraren emanaldia izan ziren.

> OGASUNA

Hogei zerga-iruzur salaketa, zerbitzua abiatu eta segituan

Gipuzkoako Ogasunak martxan jarri duen iruzur fiskala salatzeko zerbitzuak 20 salaketa jaso zituen egun bakar baten. Horietatik 15 Internet bidez (*www.gipuzkoa.net* da ataria) ipini zituzten herritarrek, eta beste bostak, telefonoz (902 10 00 40). Informazioa modu anonimoan eman daiteke, baina betiere gutxieneko datu batzuk eman behar dira, horretarako inprimaki bat beteta.

> HEZKUNTZA

Esperientziaren Eskolak etzi hasiko du bigarren ikasturtea

Mugabe Elkarteak Arrasateko Udalaren laguntzarekin antolatutako Esperientziaren Eskolak bigarren ikasturtea hasiko du etzi, eguaztena, 33 ikaslerekin aurten. IMI zeneko egoitzan, Arrasate Pasealekuan batuko dira 11:00etan, eta iazko arrakasta berrestea espero dute. Ekitaldi berean, aurreko ikasturteko ikasleei diplomak banatuko dizkiete Mugabe Elkarteko teknikariek eta Arrasate.

Bergarako jaietan kartelak kaleetatik kentzen ibili zen Ertzaintza. IKER BARANDIARAN

POLITIKA > JAURLARITZA

Udalek 40.000 euro arteko laguntza izango dute kartelak kentzeko

Jaurlaritzak joan den astean onartu zuen laguntza horien harira emandako agindua; aurten, 500.000 euro bideratu dira horretara

M.B.> BERGARA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalek "terrorismoa goratzen" duten kartelak, argazkiak, pankartak edo pintaketak kaleetatik kentzeko laguntzak eska ditzakete dagoeneko. Eusko Jaurlaritzak joan den astean onartu zuen Herrizaingo sailburu Rodolfo Aresek esandako laguntza horien harira emandako agindua. Horretan, udalek 40.000 euro arteko laguntzak lortzeko aukera izango dutela aipatzen da.

BIZTANLERIAREN ARABERAKOA

Horien zenbatekoa udalerri bakoitzaren biztanleria kopuruaren araberakoa izango da. Hala, 5.000 biztanletik beherako herriek, gehienez, 10.000 euroko laguntza edukiko dute; eta 50.000 biztanletik gorakoen kasuan, 40.000 euro artekoak izan daitezke.

Agindu hori Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) orain dela bi aste sinatutako akordioaren ondotik dator. Esandako hitzarmenean, besteak beste, kartelak eta pintadak kentzeko dirulaguntzen neurria dago aurreikusita. Eusko Jaurlaritzak, guztira, 500.000 euro bideratu ditu aurten kaleetatik aipatutako elementuak kentzeak eragingo dituen gastuak ordaintzeko.

GASTU ZUZENAK ETA ZEHARKAKOAK

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu laguntza horiek eta kaleak garbitzeak eragindako gastu zuzenak (herrietako garbiketa zerbitzuei ordaintzea) edo zeharkakoak (bestelako enpresen edo zerbitzu espezializatuen kontratazioak) ordaintzeko emango zaie.

etxeko leihotik

Ubane Madera > arrasate@goiena.com

Herritarrek tranbia gura, eta politikariek?

Pare bat astean pare bat bider tokatu zait bi pertsonarekin gai beraren gainean berba egitea: ze buruhauste den nor bere automobilarekin egunero atzera eta aurrera ibili beharra lantokira etortzeko.

Eta egin dugun hausnarketa ere bera da: "Noizko horrenbestetan iragarritako tranbia santua? Imajinatzen duzu hamar minuturo edo ordu laurdenero Soraluzetik Arrasateraino joango den tranbia zerbitzua izatea?".

Eta ez, erantzuna da ez dudala hori imajinatzen. Dagoeneko sinistuta nagoelako ez dutela sekula tranbiarik egingo.

EAJk iragarri zuen lehenengo tranbia eraikiko zuela; PSE-EEko ordezkariak etorri dira gero, eta haiek ere (Arrasatekoek, tartean) indartsu eta seguru iragarri zuten eurek bai, eurek ekarriko zutela tranbia Debagoienera.

"Herritarrok eskertu egingo genuke garraio publiko eraginkorra"

Bueno, ba, agintariek jakin bezate herritarrok itxaroten gaudela. Gehienok uste dugu, gainera, tranbia dela beste edozein garraiobide baino garbiagoa, eta beraz, egokiagoa. Hala ere, jakin bezate agintariek tranbia ipintzeko asmorik ez badute edo hemendik hamar urtera eraikitzen hasteko asmoarekin badabiltza, herritarrok berdin-berdin eskertuko genukeela ganorazko garraio publikoa erabili ahal izatea, benetako herrialde modernoetan dagoenaren modukoa, jakina: maiztasun nahikoarekin eta garaiz funtzionatzen duen garraio publikoa.

> Interesak

Interes kontrajarriak daude zerbitzu publikoaren eta administrazioaren artean: automobil gutxiago erabiltzeak ekarriko du gasolina gutxiago saltzea, autoen zerga gutxiago ordaintzea eta, ondorioz, dirusarrera gutxiago lortzea

> Politikaren gainbehera

Esan eta ez egin; exijitu besteei eta norberak ez bete. Halakoak dira, besteak beste, politikaren eta politikarien gainbehera indartu eta haien sinesgarritasuna zalantzan uzten duten jarrerak. Gero harritu?

JENDARTEA> KOOPERATIBISMOA

Herri mugimendutik sortutako erakundeak lehen aldiz bildu dira Arantzazun

Kooperatibismoaren inguruko 80 bat lagun bildu ziren eguenean egindako mintegian

GOIENKARIA > OÑATI

Kooperatiben Konfederazioen Foroak antolatutako *Protagonisten erabakian oinarritutako erakundeak* mintegia izan zen eguenean Arantzazuko Gandiaga topagunean; 80 lagun inguru batu ziren, denak kooperatibismoaren ingurukoak.

EUSKAL HERRIA, BEREZIA

Paradoxikoa dirudien arren, lehenengo aldia da autoeraketaren edo pertsonaren burujabetasunean oinarritutako erakundeen inguruan dabiltzan sare ezberdinak elkartzen direla. Helburu nagusia ideiak eta printzipioak elkartrukatzea zen.

Mintegia bi zatitan egon zen banatuta: goizean, nork bere errealitatea azaldu zuen eta arratsaldean gogoetak egin zituzten; batez ere, Euskal Herriak bizi duen egoera bereziaren gainean. Horrez gain, etorkizunari begirako proposamenez ere jardun zuten.

Gandiaga topagunean egindako mintegia. ARANTZAZU EZKIBEL

Parte hartu zutenen artean, Jon Sarasua zegoen. Jardunaldia amaitzean, pozik agertu zen: "Asmoa zen hainbat eragiletako lagunak elkartzea eta ideiak elkartrukatzea". Besteak beste, Kontseilua, ikastolak, AEK eta Fagorko kideak izan ziren. Aurrera begira, berriro elkartzeko asmoa azaldu zuten.

EKONOMIA > DIRULAGUNTZAK

Bukatu da pagotxa automobil eta altzari berriak erosteko

Autoak erakusketan Arrasateko Ford Mugarrin. GOIENKARIA

Eusko Jaurlaritzak itxi egin ditu bi sektoretan martxan zeuzkan Renove planak

Merkatariok diote gehiago saldu dutela, baina planak hobeto antolatu ahal zitezkeela

GOIENKARIA > BERGARA

Egubakoitzean bukatu zen, asmoz, urte amaierara arte irautekoa zen altzarien Renove plana, Eusko Jaurlaritzak SPRIren bidez bultzatutakoa. Laguntzatan banatzeko zeuden 2.000.000 euroak agudo asko gastatu dira. Zapatuko 08:00ak arte zuten merkatariek falta zitzaizkien eskaera-orriak eta agiriak SPRIri bidaltzeko.

Renove plan horrek denetariko sentsazioak utzi ditu. Alde batetik, beheraldian zegoen altzarien sektorea suspertzeko balio izan du; bestetik, aurrekontua txikiegia izan dela bistan dago, eta horixe esaten dute merkatariek ere. Batzuen iritziz, gainera, helburua ona izan arren, Eusko Jaurlaritzak antolatu eta koordinatu duen modua ez da ona izan.

HEDABIDEETATIK JAKIN ZUTEN

Bergarako Servimasa altzaridendako Mikel Etxanizek, adibidez, esan du bezero gehiago izan dela, baina plana ez dela batere ondo koordinatu. Haren kexua da, besteak beste, merkatariek ez dutela planaren berri jakinarazpen ofizial baten bidez jaso, baizik eta komunikabideen bidez edo elkarren artean hitz eginda.

Komertzioak lanez gainezka ibili dira; hiru asteko epea izan dute eskaerak aurkezteko, eta oraindik horretan zebiltzan egubakoitzean, zapatu goizera arte. Biltoki dendako Mariaje Baskaranen esanetan, SPRIk, azken egunetako "lan pilaketa" aurreikusita, ahalbidetu du dokumentu batzuk posta elektronikoz bidaltzea komertzioek (orain arte, dokumentazio guztia posta zertifikatuz bidali behar izan dute). Baskaranek dioenez, "jende asko ibili da, baina plana laburregia izan da". Jaurlaritzak jakinarazi die "oraingoz, plana ez dela luzatuko; beharbada datorren urtean beste deialdi bat egingo dutela".

Orain, merkatariak SPRIko dirulaguntzen zain daude; oraindik ez dira hasi dirua jasotzen.

EGUENEAN, AZKEN ONARPENA

Modu ofizialean eta praktikoan bukatu du Eusko Jaurlaritzak automobila aldatzeko Renove plana ere. Hain zuzen, eguenean onartu zen Euskadiko 10.000. dirulaguntza eskaera, eta horrenbestez itxi zuen Jaurlaritzak laguntza gehiago eskatzeko programa. Ia bost hilabete iraun du planak, eta 5.000.000 euroko aurrekontua izan du. 1.000 edo 2.000 euroko dirulaguntzak eman dira –Espainiako Gobernuak ematen dituen 500ak, eta Euskadiko beste hainbeste; bestalde, marka batzuek 1.000 euro ere ematen zuten–, baina orain aukera dago 500 euroko dirulaguntzak lortzeko zenbait saltokitan.

Sektore honetan ere, altzari-saltzaileenean gertatzen den moduan, planaren alde onak eta txarrak aurkitu dituzte Debagoieneko saltzaileek. Hala, Arrasateko Ford Mugarriko Rafa Etxaberen esanetan, salmentak areagotzen lagundu du; baina, beste alde batetik, "dirulaguntzak kendutakoan laster itzuliko" dira auto-saltzaileak lehengo egoerara. Eta, bestalde, antolakuntza hobetu izan zitekeela dio Etxabek: "Saltzaileok 2.000 euro aurreratu behar izan ditugu, eta aurreratutakoa hiru erakunde ezberdinetatik kobratzea ez da lan erraza: txostenak bete, erantzunaren zain egon, zalantzak argitu…"

EKONOMIA > ERRENTA AITORPENA

Modu mailakatuan ezarriko da 400 euroko deskontua

Espainian, zergapeko guztiei emango diete zerga-salbuespen hori; Gipuzkoan, 20.000 euroko zerga-oinarria dutenei bakarrik

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak mailaz maila ezarriko du errenta aitorpena egiten dutenendako 400 euroko deskontua. Horixe jakinarazi zuen Ogasun diputatu Pello Gonzalezek Batzar Nagusietako osoko bilkuran, joan den astean. Erabaki horren oinarria da bidegabetzat hartzen dela 18.000 euro irabazten duen zergapeko batek 400 euro kobratzeko eskubidea izatea eta, aldiz, 18.001 euro irabazten duenak ez izatea onura hori.

Horrenbestez, 20.000 eurotik gorako zerga-oinarria dutenek ez dute dirulaguntzarik izango; eta dirulaguntza osorik jasoko dute 15.000 euro baino gutxiago zerga-oinarria dutenek. Bitarte horretan daudenendako, zerga-salbuespena modu mailakatuan ezarriko da.

DENETARA, 210.000 LAGUNI

Salbuespen sistema hori 2010eko urtarrilean ezarriko da eta bi urtean egongo da indarrean. Gipuzkoan, 142.000 lagunek jarraituko dute 400 euroko dirulaguntza jasotzen, eta hori baino gutxiago, norbere zerga-oinarriaren arabera, jasoko dute beste 68.000 gipuzkoarrek.

Modu horretara, Gipuzkoako Ogasunak –eta gauza bera gertatzen da Araban eta Bizkaian– ez du bere egin Espainiako Gobernuaren erabakia; 400 euroak garbi kentzekoa, alegia.

KAPITAL-ERRENTEK, %20

Horrekin batera, Ogasunak kapital-errenten gaineko zerga sistema ere aldatu du.: %20ko zerga ezarriko die errenta mota horiei –inbertsio-fondoak, akzioak, higiezinak, kontu korronteen interesak…–, eta orain zehaztu behar du zenbateko kapitaletik gora ordaindu beharko den zerga hori.

Espainiako Gobernuarekiko desberdin jokatuko du kasu horretan ere Gipuzkoako Ogasunak: Espainiako Gobernuak erabaki du hasierako 6.000 euroen gainean %18-19 bitartean kobratzea zergatan, eta hortik gora, %21eko zerga ezartzea.

TXOMIN MADINA

Kutxak arratsaldez irekitzearen aurka

LAB sindikatuak agerraldia egin zuen eguenean Arrasateko Kutxaren bulego aurrean, Kutxak arratsaldez ere irekitzen duelako protestatzeko. Esan zuten "alde bakarreko" erabakia izan zela, langileekin negoziatu bakoa; bestalde, langileen %60ri eragiten diela eta langileon lan eta familia bizitza bateratzea zailtzen diela.

auzorik auzo

ARANTZETA > Elgetako auzoa da Arantzeta. Elgetako beste auzoetan gertatzen den moduan, Arantzetan ez dago auzo-alkaterik. Auzo txikia da, eta biztanleak ere gutxi dira. Hango bizimoduaz berba egin digute auzotarrek.

Iturri baserriko Antonia Arantzabal eta Ojanguren baserriko Isabel Ojanguren, San Blas ermitaren aurrealdean. A.E.

Isabel Ojanguren > Arantzeta auzoko bizilaguna

"Goitik behera zatozela auzora sartzeko sarrera kurban dago eta arriskutsua da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Isabel Ojangurenek eta Antonia Arantzabalek esku zabalik hartu gaituzte euren etxeetan. Arantzetan ez dute auzo-alkaterik; bai, ordea, auzoko gorabeherez arduratzen diren auzotar zintzoak. Orain pozik daude, errepidea konpondu egin diete-eta.

Arazo nagusia errepidea izan da azkeneko urteetan, baina orain konponduta dago. Pozik zaudete?

Bai, hala da, udan egin dituzte lanok. Aspalditik genbiltzan errepidea konpontzeko eskatzen, eta, egia esan, esperantza barik geunden. Firmak batzen ere hasi ginen... baina, halako batean, langileak etorri ziren eta konpontzen hasi ziren. 40 urte, behintzat, izango dira errepidea bere horretan zegoela. Diputazioarena da errepidea, eta haiek arduratu dira konpontze lanekin.

Beste kezka bat auzora dagoen sarrera txarra omen da. Hala da?

Bai, goitik –Elgetatik– zatozela sarrera ez da batere ona. Kurba batean dago auzorako sarrera eta, egia esan, ez da egokia. Susto asko izan ditugu; azken momentuko frenatzeak, batez ere.

Bestalde, telefonoarekin ere arazoak izaten ditugu. Linea basotik dator, auskalo zelan, eta horren ondorioz beti ez da ondo entzuten.

Arantzeta auzo txikia da; auzotar gutxi zarete eta gehienak nagusiak. Auzoa hutsik geratzeko beldurrik baduzue?

Bai, beldurra badugu; kontuan hartu behar da auzoan bizi garen ia gehienak nagusiak garela, 40 urtetik gorakoak izango gara ia guztiak. Gazteak ez badira etortzen, hutsik geratuko da auzoa.

Garaieran dagoen auzoa izanik, arazoak izaten dituzue neguan elurrarekin?

Ez, makinak pasatzen dira elurra kentzera eta ez dugu arazorik izaten.

Auzoan bi ermita txiki dituzue. Zeintzuk dira horiek?

San Martin ermita Ojanguren baserri ondoan dago. Lehen, gorago zegoen, baina orain dela urte batzuk hona ekarri genuen. Bestalde, San Blas ermita dago, Iturri baserriaren goialdean.

San Martin hurrengo domekan egiten dugu meza ermitan; sasoi batean, garia bedeinkatzera ekartzen zen egun hartan. Gaur egun, familian ospatzen dugu eguna.

Garai batean argia egiten zen auzoan. Nola zen hori?

Errekalde baserrian zegoen errotaren presioarekin sortzen zen argia. Braulio eta Pedro aitasemeak ibiltzen ziren. Gogoan dugu uraren presioa jaisten zen heinean, argia poliki-poliki itzali egiten zela. Bestalde, Pedro *kaminero* lanetan ere ibili zen.

Baserri ikusgarriak ere badaude auzoan!

Ojanguren baserria orain dela 400 urte ingurukoa izango da. Leinu-etxea ei da. Behin, Peruko mutil bat, Ojanguren abizenduna, etorri zitzaigun bisitan.

NAZIOARTEKO TOPAKETA

"Arantzeta auzoan ez dago Arantzeta abizena duen inor"

Uztailaren 17an, 18an eta 19an arantzetarren nazioarteko lehenengo topaketa egin zuten Elgetan. Han batu ziren mundu guztiko arantzetarrak; denera, 170 lagun inguru.

"Jende asko etorri zen egun hartan auzora bisitan; bizitasuna eman zion topaketak auzoari", azaldu digu Isabel Ojangurenek. Euren etxeko zelaian dagoen ermitara ere joan zela jendea gogoratzen du Ojangurenek.

Bitxia dirudien arren, Arantzeta auzoan ez dagoela Arantzeta abizena duen inor esan digute Isabel Ojangurenek eta Antonia Arantzabalek.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urriko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

LIBURUA
PAMIELA argitaletxea
Bidali AG ATXAGA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

KAMISETA
skunkfunk
Bidali AG KAMISETA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

MP3 BAT
EROSKI
Bidali AG EROSKI
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA
AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
LASKAR INFORMATIKA SL
• Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
• Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
• Informatika eta teknologia berrien produktuak.
Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Edorta Jimenez (Mundaka, 1953) idazlea da. Eleberriak eta poesia idatzi ditu, eta, aldizka, artikuluak ere bai. Aste bukaeran Galeusca 2009n parte hartu du, Gotzon Barandiaranek eta Igor Estankonak euskal sorkuntzaren gainean egindako txostena aurkezten. Euskarazko sorkuntzaz, kulturaz eta gizarteak euskaraz kontsumitzen duen guztiaz egin zuen berba.

Edorta Jimenez > Idazlea

"Euskal sorkuntzaren berri jaso beharko genuke zuzenean, bila joan barik"

MIREIA BIKUÑA > ARANTZAZU

Idazle katalanen, galiziarren eta euskaldunen urteroko topaketa egin dute aste bukaeran Arantzazun. *Literatura txikiak, erronka handiak* izenburupean, hainbat lan-saio egin dituzte. Horietako baten parte hartu du Edorta Jimenezek.

Euskarazko sorkuntzaren gizarteratzeaz jardun duzue aste bukaeran. Baina zer da euskarazko sorkuntza?

Sorkuntzaren barruan euskaraz sortzen den guztia sartuko genuke. Besteak beste, euskarazko hitzak dituzten kantuak, liburuak, ikus-entzunezkoak, pelikulak eta telesailak. Horiek *kultura* hitzaren barruan sartu ordez, sorkuntzaren barruan sartzen ditugu. Horregatik diogu euskarazko sorkuntza krisian dagoela.

Zergatik dago krisian?

Euskarazko sorkuntza, sistema moduan, krisian dagoela diogu. Arrazoi ezberdinak daude. Urtetan egonkortu den kezketako bat da gurekin bizi diren erdaldunak euskarazko kulturari buruz ezertxo ere jakin barik bizi direla. Bestalde, musika egileek lan egiteko sistema aldatu beharra izan dute. Orain zuzeneko kontzertuak eman behar dituzte, euskarri moduan CDak eta biniloak indarra galtzen dabiltzaeta. Arrazoi asko daude, baina denak aipatzea ezinezkoa da.

Krisiari aurre egiteko ze bide daude?

Bi bide aurreikusten ditugu: elkarlana eta hartu-eman zuzena. Sortzaileok hartu-eman zuzena izan behar dugu hartzaileekin. Horren harira, elkartzeko lekuak sortu behar ditugu.

Adibidez, ekainean Larrabetzuko Literaturia jardunaldiak egin genituen. Sortzaileak, argitaratzaileak eta kritikariak, literatura sistemaren hiru arloetako ordezkariak, mahaiaren inguruan bildu ginen. Gure literaturaren kasuan benetan sistemarik ba ote dagoen argitzea izan zen saioaren mamia. Euskal literaturak eginiko bidean izan dituen gabeziak eta aurrean ikusten genituen erronkak nabarmendu genituen. Bestalde, iazko Durangoko azokan Sortzaileen Eguna egin genuen eta harrera ona izan zuen. Aurten ere egingo dugu.

Diozu hirutan laburbil daitezkeela historian zehar izan diren kultura-logikak.



Edorta Jimenezek Arantzazun ospatutako Galeusca 2009n parte hartu du. JOSETXO ARANTZABAL

IRTENBIDEAK

"Sorkuntzaren krisiari aurre egiteko bi bide aurreikusten ditugu: elkarlana eta hartu-eman zuzena"

Bai, hala da. Kultura tradizionala, kultura modernoa eta kultura postmodernoa daude. Egun, hiru kultura-logikak daude bizirik, eta, zeharka, batak besteari eragiten dio. Hiru kulturek eragiten diote euskaldunari; eta ondorioz, euskarari. Euskara ez dago hiru kultura sistemetako bati ere muzin egiteko moduan, euskalduna ez baitago hirurotako batetik ere salbu.

KONTSUMITZAILEAK

"Jendartea osatzen dugun pertsona guztiak ez gara kultura kontsumitzaile aktiboak, baina bai pasiboak"

Baina hiru esparruetako bat bera baztertu barik lan egiteko, ezinbestekoa dugu jarrera kritikoa: ezinbestekoa dugu hiru esparruotako bakoitzak euskarazko kulturari ekarri, ekartzen eta ekarriko dionaz hausnartzea. Dena den, nahikoa lan izango dugu datozen hamarkadetan bidea egiten.

BITARTEKOAK

"Euskaldunon kultura zabaltzeko bitartekorik ez dugunez, hurbiltasuna erabili beharko genuke "

Euskaldunok badugu euskal kultura kontsumitzeko beharrik eta ohiturarik?

Jendartea osatzen dugun pertsona guztiak ez gara kultura kontsumitzaile aktiboak, baina bai pasiboak. Euskaldunok kultura espainol, frantses eta anglosaxoiari buruzko edukiak gura barik jasotzen ditugu egunero.

Aldiz, askotan iruditzen zaigu euskaldunok euskal kulturari buruzko informazioa bilatu egin behar dugula; bila joan behar dugula, alegia.

Esan berri dut euskalduna den oro, munduko herri guztietan gertatzen den moduan, ez dela kultura kontsumitzailea. Kultura kontsumitzailea ez den euskaldunak ez du informaziorik bilatzen, eta bilatzen ez badu nekez jasoko du kultura espainol, frantses zein anglosaxoiari buruz jasotzen duen beste eduki. Horregatik uste dugu euskaldunok ez ditugula gure sortzaileak ezagutzen.

Zein iturritatik jasotzen dugu euskal kulturaren gaineko informazioa?

Euskaldunok munduko beste kulturek euren adierazpideak zabaltzeko eta kontsumiarazteko dituzten bitartekoen mailakorik ez ditugunez, hurbiltasuna da gakoetako bat. Egun, euskalgintzan dihardutenen esku dauden aldizkari, irrati, telebista zein Interneteko agerkarietan, euskarazko kulturari buruzko berriei protagonismo handiagoa eman dakieke, eta baita lekuan lekuko kultura sorkuntzari. Horrek, agian, gureaz arduratzeko beharra sorraraziko die euskarazko kulturaz ez beste kulturez arduratzen diren agerkariei.

Horixe izan liteke lehentasuneko bat: ahalik eta euskaldun gehienek gure sorkuntza kulturalaren berri jasotzea zuzenean, bila joan behar izan barik.

Zelan elkarbizi kultura espainol, frantses eta anglosaxoiarekin?

Erdarazko kultura adierazpenak nagusi diren eremuetan, adierazpideon antolatzaileekin harremanetan jarri, eta euskarazko kultura adierazpideei zein leku eman eztabaidatu genezakeela uste dut.

Era berean, uste dut bizilagun ditugun erdaldunek jakin beharko luketela bizi diren inguruan badela jatorrizko hizkuntzan gauzatzen den kultura. Jakin beharko lukete tutik ulertu ez arren, horrenbeste miresten eta kontsumitzen dituzten kultura adierazpideen kalitate bereko proposamenak euskaraz ere badirena. Hori erakutsi behar diegu.

ALDEKO AURREZKIA ALDEAN

Aurrezkiak Mahaian

Hartu aurrea eta prestatu jakirik goxoenak zeure aurrezkien interesaz. kutxak mahaian ipiniko dizu imajina dezakezun tresneriarik praktikoena eta modernoena. Aukeratu zeure interesa ohiko bulegoan, Telekutxa-ren 901 333 555 telefonora deituz, www.kutxa.net-en edo kutxaren kutxa-zainetan.

Zuk aukeratu zer eraman.

Laberako 2 azpil, 2 zartagin edo sukaldeko ontziteria ere eraman dezakezu.
Aztertu baldintzak.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

kale inkesta

Barack Obamari eman diote Bakearen Nobel Saria. Saria merezi duela uste duzu?

Edurne Burgaña
Ikaslea
Antzuola

Sari hori ere norbaiti eman behar zaio. Baina ziur besteren batek gehiago egin duela bakearen alde Obamak baino. Obama modan jarri dela esango nuke, eta egiten duen guztia txalotu egiten diotela.

Javier Agirreolea
Erretiratua
Bergara

Obama ez dugu ezagutzen, baina amerikarrak ez ditut gustuko. Hala ere, bakearen alde ezer gutxi egin duela uste dut eta Bakearen Nobel Saria merezi duela aurrerantzean erakutsi beharko du.

Jokin Amazorain
Ikaslea
Bergara

Dirudienez, Obamarekin aldaketa dator AEBetako politikan, eta iruditzen zait merezi duela saria. Agindu zituen zenbait neurri ez ditu bete, baina poliki-poliki neurriok martxan jartzen hasiko da.

Paki Etxebarria
Langilea
Bergara

Bai, oso ondo iruditzen zait, Bakearen Nobel Saria merezi du. Orain arte egin duena ondo egin du, eta esaten duenarekin koherentea dela uste dut. Bere aurretik egon zena baino hobeto, behintzat, badabil.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Kiroldegiak beste itxura bat du, pintaketen ostean

Oñatiko kiroldegiko erabiltzaile batek mezua bidali du erredakziora, esanez Oñatiko Zubikoa kiroldegiak beste itxura bat duela bertan egin diren pintaketa lanen ostean.

Gimnasioa kolore berdez margotu dute, eta sarrera, berriz, laranjaz. Irakurleak uste du kiroldegiak beharrezkoa zuela itxuraldatzea, eta beraz, "txalotzekoa" dela egin dutena.

ARRASATE

> Txakurren erasoen aurrean zerbait egin beharra dago

Arrasateko irakurle batek txakur baten erasoaren berri eman digu. Zerrajera guneko etxeetan izan zen erasoa; txakurra bere jabearekin zihoan, baina horrek ez zuen eragotzi neska bati egin zion erasoa. Erasoa ikusi zuen irakurleak dioenez, kaletik doan bakoitzean txakur bat agertzen bada "beldurrak jota" pasatzen da. Gainera, dioenez, txakurra dutenek, bidegorrietatik korrika doazela, txakurra lotu barik eroaten dute. Irakurlearen ustez, txakurrak motzean lotuta eroan behar dira, eta arriskutsuak direnak, muturrekoarekin. Azkenik, dio kexa jarri duenak, "isuna jarriko balitz ez litzateke halakorik gertatuko".

ARRASATE

> Maritxu Kajoi ostean, garbiketak huts egin zuen

Irakurle arrasatear batek joan den astean jarri zuen kexa, Maritxu Kajoi ostean Arrasateko kaleak "erabat zikin" zeudela esanez.

usteak uste

Jokin Bereziartua

Pokerraren sukarra

Pokerrak astindu du Debagoiena. Ez da albiste berria, dagoeneko, gutxienez, urtebete egin du-eta gure artean. Bailarako hainbat gaztek oso gustuko dute gurera heldu aurretik pelikula amerikarretan ezagutzen genuen dirudunen joko ilun hura. Gizarteratu da, beraz. Eta nola!

Arrasaten, esaterako, badago Arrasate Poker elkartea. Legaltasunarekin etengabeko borrokan, hor dabiltza; pokerra joko moduan defendatzen eta elkarte moduan, inongo irabazi asmorik gabe. Hori diote, behintzat. Elkarteko kide batek zioenez, Interneten jokatzea da arriskutsuena –*Pokerstars* da webgune ezagunena–, "ia ohartu gabe" diru asko galdu daitekeelako. Ez nago pokerraren aurka. Are gehiago, joko moduan, dibertigarria dela deritzot. Baina badu alde iluna, dirua izan ohi da-eta jokoan. Bada, kontuz, poker zaleok, eta zaindu zuen sosak!

zorroztailea

Markos Balentziaga

Oteizaterapia

"Hamalau presok (...) Jorge Oteiza eta bere lana jorratu zuten lau hilabetean. Emaitza gisa, sortzaile euskaldunaren izena daraman film labur bat ekoiztu dute. Hor, beste lengoaia batekin, Arantzazuko apostuluen frisuaren interpretazio bat egin zuten."

Cristina Aguinaga
El Diario Vasco > 2009-10-09

EL DIARIO VASCO

Oteiza como terapia

Egubakoitzian zekarren Gipuzkuan salduena dan egunkarixak: Kataluniako Brians 2 kartzelan kartzelatuei Oteizaren lana aztertziak hobekuntza on-ona egin dotse.

Jakiñeko kontua da Jorge Oteiza (Orio 1908-2003) euskal artista punta-puntakua izan zana.

Notiziaren barri izanda, denboria alperrik galdu barik, baten batek pentsatzen jardungo dau "Oteizaterapia" hori eskolan landu biharko litzakela jendiak terapia horren onurak gazte-gaztetatik goza ditzan, eta matematikiarekin batera erakutsi biharko lirakela, berbarako: perritxiko-batzia, ligatzen ikastia, botelloian botellak ondo hustutzia eta holakuak. Ederto dago hori.

Argi dago "Oteizaterapia" —Gipuzkoako periodiku salduenak dixit— kartzelara apopillo joaten diranendako on-ona dana. Neri, baña, hauxe da sortzen jaten galderia: atxilotuak kartzelara apopillo bialtzen dittuenendako be ezin leike bikaña izan terapia hori?

"Atxilotuak kartzelara bialtzen dittuenandako be izan leike bikaña"

"Ba ote legoke terapia hori Rodolfo Aresi aplikatzerik?"

Bistakua da "Oteizaterapia" barrixa izanda, ondorio guztiguztiak be ez dittugula ezagutzen. Baña, segi daigun kartzela-bueltan, terapia barrixari ahalik eta zuku onena ateraz.

Hona hemen zein dan hurrengo kezkia: ba ote legoke terapia hori Rodolfo Aresi, adibidez, aplikatzerik?

Ez, irakurle maite, nere barruan ez dabil Aresen buru gaña Chiquilicuatren itxurako ille-sapai bihurtzia, edo John Lennonen moduko flekillo batekin pasiatzera bialtzia... Jainkuak aparta naixala halakotatik! Nahiko-nahikua dot jakittia "Oteizaterapiari" esker Aresen burua ez dala ertzain-kasko bat edo Oteizaren Arantzazuko apostuluen harrizko buruak baiño gogorraua eta gauza dala ulertzeko —gorde eta zaindu biharreko eskubide danei erreparauta— EAEko Auzitegi Nausixak epai baten, edo Giza Eskubideen NBEko kontalari Martin Scheinin finlandiar katedratikuak bere ebazpenian, oraintsu, esandakuak: argazkixak erakustia, euskal presuen argazkixak erakustia, ez da ezeren apologia!

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Laguntzailea** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Maider Arrregi, Jokin Bereziartua **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 14 **Bergara** > 16 **Oñati** > 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
Antzuola > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20

> ARRASATE
'Maldan behera' liburuak saria irabazi zuenean, Bedoñan izan zen Gabriel Aresti, orain 50 urte **> 14**

> ESKORIATZA
Hiesaren inguruko zortzi ikuspegi azaltzen dute beste hainbeste artistak erakusketa baten **> 19**

> ANTZUOLA
Hiru proba-harri ipini dituzte Sagastin, eta informazio kartelak ipintzeko asmoa dute **> 20**

ELGETA > ZERBITZUAK

Lehengo haurreskolan zegoen plaza kopuruaren bikoitza dauka berriak

BI EGOITZA BATEN
Umeendako zerbitzuaz gain, gazteleku eta ludoteka dago han

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Zapatu eguerdian inauguratu zuten Elgetako haurreskola eta gazteleku-ludoteka berria, nahiz eta ikasturtea hasi duten han dagoeneko bost umek. Torrealdean dago, 400 metro koadro ditu, eta egoitza bakar baten bi espazio nagusiak egokitu dira, elkarri lotuta. Haurtzaindegi berriaren alde azpimarragarriena da 20 bat umerendako lekua dagoela, orain arteko egoitzaren bikoitza. Oraingoz, ume guztiak batera daude, bost daudelako, baina, behar izanez gero, beste gela bat egoki daiteke etorriko diren umeak hartzeko. Erabilera askotako gela, sukaldea, bainugela eta logela ditu haurtzaindegiak eta, hari pasillo bidez lotuta, gaztelekuludoteka dago. Proiektua elgetarrek parte hartuta definitu eta aurrera eraman da.

Zinta-moztean eta ondorengo bisitan batu ziren hainbat arduradun –Elgetako alkate Oxel Erostarbe eta zenbait zinegotzi, Foru Aldundiko Gazteria Saileko Felix Arrieta eta Haurreskola Partzuergoko Maite Larrañaga– eta adin guztietako elgetarrak. Arduradunek poza eta herritarrek ikusmina eta lilura azaldu zuten.

Elgetako alkateak esan zuenez, "herriak eskatutako proiektua" aurrera eraman du Udalak: "Orain dela bospasei urte hasi genuen haurtzaindegiaren proiektua, lehengo egoitza txiki geratu zelako. Jendearen parte-hartzearekin egin dugu; hasieran ikusi zen laguntzeko borondatea zuela, eta bestetik, premia ere bazegoen. Bestalde, gazte eta nerabeek kultura etxean zituzten lehen gelak, baina hemen zerbitzu hobea emango diegu".

"AHALIK ETA KOSTU TXIKIENA"

Alde ekonomikoa ere nabarmendu zuen Erostarbek: "Herritarrongan ahalik eta kostu txikiena ipini dugu", esan zuen, eta gogora ekarri, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Gazteria sailek, Foru Aldundiko Gazteria sailak eta Kutxak diruz lagundu dutela. Herritarren parte-hartzea ere eskertu zuen.

Aldundiak ludoteka eta gaztelekuaren proiektuak babestu ditu finantza aldetik. Erakunde horretako Felix Arrietak esan zuen "Elgetak eta Gipuzkoako udalerri guztiek horrelako baliabide bat izatea oso positiboa" dela Aldundiarendako.

Udaleko, Foru Aldundiko eta Haurreskola Partzuergoko ordezkariak, zinta mozten. JOSETXO ARANTZABAL

Haurreskola partzuergoko gerenteak esan zuenez, bestalde, eurendako "garrantzitsuena leku kopurua bikoiztu izana da".

"EAJ-EAK HASITAKO LANA DA"

EAJ-Hamaikabat udal taldeko Patxi Basaurik esan zuen haurreskola, gaztelekua eta ludoteka orain arte martxan egon izana "aurreko agintaldietan EAJ-EAk hasitako ekintzak" izan zirela, eta oraingo lokala talde horrek "aurreko urteotan egindako lanari esker" lortu dela "doan". Faltan igarri zuen Arlarrek "beste taldeen lana aipatu ez izana".

INAUGURAZIOAN IZAN ZIREN ELGETARREK ESAN ZUTENA

Ana Mari

"Lehendik bisita eginda neukan, baina herrian gauza berria denez, eta zoragarria, gainera, etorri egin naiz", esan zigun Ana Marik. "Herriari bizitasuna emango dio, eta gurasoendako laguntza da".

Mikele, Maider eta Izar

Ludotekako jolasak probatzen aurkitu genituen Mikele, Maider eta Izar inaugurazio egunean. Mikelek esan zigun "oso polita" iruditu zitzaiola egoitza, eta bera "izena emanda" dagoela. Izarrek zalantza zuen: "Lagunak etortzen badira, akaso neu ere etorriko naiz. Hemengo jolasak politak dira. Baina ni egon nintzen lehen ere, eta egun baten bizkotxoa egin genuen", azaldu zigun.

Jesusa eta Pilar

Elgetako bi emakume erretiratu horiek ere gerturatu ziren inaugurazio ekitaldira, eta instalazioak bertatik bertara ikusi zituzten. Haurreskola gustatu zitzaien bereziki: "Oso polita da, eta 2 urte arteko umeak ezin hobeto egongo dira. Lastima, guk dagoeneko ezin erabili izatea!", esan zuten umore onez. "Gure ilobak ere ezin dira etorri, 11 urte dituztelako dagoeneko". Esan zutenez, "herriarendako ona dena, denondako da ona".

Kometak egiteko aukera aparta izan zuten gaztetxoek. LAU HAIZETARA ELKARTEA

Kometa maisuki zerabiltenek nahiz hasi berriek eta ikasten zihardutenek kolorez jantzi zuten Garaio. LAU HAIZETARA ELKARTEA

AISIALDIA > NAZIOARTEKO KOMETA JAIALDIA

Garaioko zerua kometez eta kolore biziz jantzi da zubian

Hainbat klubeko 200 lagun izan dira Garaioko Nazioarteko Kometa jaialdian

MAIDER ARREGI > GARAIO

Harrera bikaina izan du Nazioarteko XII. Kometa Jaialdiak. Espainia eta Frantziako hainbat kometa elkartetik 200 bat lagun etorri dira. Iñigo Antia Arabako Lau Haizetara Kometa Elkarteko kidea oso gustura azaldu da eta balorazio guztiz positiboa egin du: "Kometarekin ibiltzeko haize bikaina izan dugu. Gaztetxo askok hartu du parte ekintza ezberdinetan eta Garaioraino gerturatu direnak asko izan dira". Zaletasuna handia dela azpimarratu du Antiak: "Kometa zale asko dago Euskal Herrian eta baita Debagoienean ere. Gure elkartean, Arabakoa izan arren, badira Debagoieneko zaleak ere". Kometa erakustaldia ez ezik, kometak erosteko eta egiteko aukera ere izan dute bertaratu direnek: "Umeendako kometak eta helduendako paperezko kometak edo *pipa brasildarrak* egiteko aukera ere izan da".

BAKEAREN ALDE

Domekan, munduko bakearen aldeko ekintza egin zuten. Kometa zuriak aireratu eta *Zeru bat, mundu bat* lelopean, bakearen aldeko mezuak jarri zituzten kometa zurien isatsetan.

ANTZUOLA > OSPAKIZUNA

Antzuola-Aiherra senidetzearen errelebua gazteek hartu dute

Antzuola eta Aiherra 140 kilometroko distantziak soilik banatzen dituztela iragartzen duen seinalea jarri dute bi herrietako sarreretan



Torresoroa aretoan egin zieten harrera dantzari eta txistulariek. JOSETXO ARANTZABAL

Antzuola eta Aiherrako alkateak, harremanaren sortzaileekin. JOSETXO ARANTZABAL

Bi seinale jarri dituzte; bat, Antzuola eta Aiherra senidetuta daudela iragartzen duena, eta bestea, 140 kilometroko distantziara daudela dioena. JOSETXO ARANTZABAL

MAIDER ARREGI > ANTZUOLA

Hego eta Ipar Euskal Herriak bat egin zuten domekan. Autobuskada etorri zen domekan Aiherratik Antzuolara. Airimiriari aurre eginez, harrera beroa egin zien Antzuolako txistulari taldeak Antigua auzoan. Bertan elkartu ziren 25 urte senidetuta daramaten herrietako bizilagun, alkate eta aspaldiko lagunak. Lehenengo geldialdian, Antiguako erota erakutsi zieten antzuolarrek eta, hamaiketako edarraren ostean, txistulariekin batera, Torresoroa aretora abiatu ziren. Torresoroko atarian, ordea, gaztetxeko kideek egindako sorpresa bat zuten ikusgai. *Mugak apurtuz, bi herri, nazio bakarra* lelopean, mural bat margotu zuten.

Behin areto barruan, Antzuolako alkateak, Pedro Iturbek, hartu zuen hitza, aurreskuaren ostean. Ez dela senidetze soil bat azpimarratu zuen Iturbek. "Herritik jaio eta bultzatutako harremana da. Ez da senidetze soil bat, herriak daukan sentimendua da eta herritik sortutakoa". Senidetzea bultzatu zutenendako ere hitz hunkigarriak izan zituen Iturbek: "Izarraitz mendian egin zuten topo Aiherrako eta Antzuolako talde batek. 25 urte igaro dira senidetzearen hitzarmena sinatu zenetik eta, harreman horrek izan duen eboluzioa ikusita, oso pozik gaude, ilusioa handia da. Daukagun harreman pertsonala bikaina da, baina ezinbestekoa izan da bi herrietako elkarteek egindako lana".

Juan Antonio Iturbek, senidetzearen sortzaileetako batek, eskerrak eman zizkien senidetzearen hasieran parte hartu zutenei: "Oraindik gogoratzen dut 1984an Makean batu gineneko eguna. Han sinatu genuen hitzarmen ofiziala. Euskarak batzen gaituen bi herri gara. Sorpresa izan zen Iparraldeko herri batean euskara egiten zutela jakitea eta haiendako ere harrigarria zen gu euskaraz mintzatzea".

GAZTEENGAN ETORKIZUNA

25 urteren ostean, gazteei pasa diete testigua, eta harremana sustatzeko ekintzak antolatu dituzte urritik apirilera bitartean. "Inoiz baino gazte gehiago etorri da eta pozik gaude; harreman honek etorkizuna izan dezan, gazteek egin beharko dute lan orain", azaldu zuen Patxi Olabarria Kultura zinegotziak. Jean Mixel Barbier Beltzuntze Kultura Elkarteko kideak ere balorazio positiboa egin zuen; izan ere, hurrengo sei hilabeteetarako zenbait ekintza antolatu dituzte. "Gazteek kontzertuak eta ekintza ezberdinak antolatu dituzte. Gau Beila izeneko ekintza antolatu dugu Aiherran, eta Los Viernes al Ron talde antzuolarrak kontzertua eskainiko du. Abenduaren 26an, berriz, Antzuolara joango da Aiherrako munduko txapeldun titulua daukan organista. Martxoa eta apirila bitartean, zehazteke dagoen ekintza nagusia egingo dugu borobiltzeko".

Aiherrako auzapeza ere, gustura eta hunkituta. "Biziki kontent gira, elkarteei, herritarrei eta Udalei eskerrak eman behar zaie. Orduko Antzuolako alkate zenak, Joxe Angel Zabalok, ere lan handia eginen zuen bi herrien alde". 14:30 aldera, bazkaria egin zuten, harreman berriak sortzeko eta lehendik zeudenak sendotzeko asmoz. 160 lagun inguru batu ziren Udal Pilotalekuan.55 lagun etorri ziren Aiherratik.

Dantza, musika eta jai giroan murgilduta, dagoeneko hasiak dira hurrengo urterako, 26.urteurrenerako, ze ekintza prestatu pentsatzen. Baina, 25.urteurrena denen oroimenean geratu dadin, Antzuolako sarreran seinaleak jarri dituzte. Pedro Iturbe alkateak adierazi bezala, handik pasatzen diren auto eta ibilgailu guztiek jakingo dute Aiherra 140 kilometrora dagoela. Eta Aiherran ere, berdin, Antzuola 140 kilometrora dagoela jakingo dute bertaratzen direnek. Bi herrien nortasuna eta errealitateak jakitera emateko modu originala eta polita, zalantza gabe.

MINTEGIA > EMIGRAZIOA

'Euskal Herria mugaz gaindi' jardunaldiak egingo dituzte

Besteak beste, diasporako euskal abizenen jatorria aztertuko dute mintegi horretan, Euskaltzaindiko ordezkarien partaidetzarekin

UBANE MADERA > ARRASATE

Oraingo astean aurkeztu eta urriaren 20an hasiko dute *Euskal Herria mugaz gaindi* izeneko mintegia Arrasaten. Dagoeneko, baina, aurreratzeko moduan gaude hiru eguneko jardunaldiak antolatu dituztela, Kulturaten egingo dituztenak, goiz eta arratsaldez. "Normalean lantzen dira azken urtean emigrazioaren inguruan egindako ikerketa berriak; hain justu horiek aurkezteko aukera eskaintzea da helburuetako bat", adierazi du Jon Ander Ramosek, mintegiaren koordinatzaileak.

KALIFORNIAN ETA MONTEVIDEON

Euskal Herriko Unibertsitateak bideratu zuen ekimena, 2004an. Eta mintegi hori aurten etxeko atarian dugun arren, azpimarragarria da lehenago Kalifornian (Ameriketako Estatu Batuak, 2008), Baionan (2007), Montevideon (Uruguai, 2006) eta Gasteizen (2004-2005) egin izan dutela.

EMIGRAZIOA ETA ZINEMA

Arrasaterako prestatu duten egitarauaren nondik norako nagusiak ere aurreratu dituzte. Adibidez, urriaren 20an, martitzenean, mintegia inauguratu eta historiako kontuak landuko dituzte eta proiektu batzuk aurkeztuko dituzte. Eguaztenari dagokionez, artearen historia landuko dute, goizean. Eta arratsaldean zinema eta emigrazioa uztartuko dituzte.

DIASPORAKO EUSKAL ABIZENAK

Eta eguenean, *Euskal abizenak munduan* jardunaldia landuko dute: "Azken urteotan diasporan halako kezka sortu da norberaren abizenaren jatorria nondik datorren… hori jakinda, Euskaltzaindira jo genuen eta horren inguruko mahai-ingurua egongo da", azaldu du Jon Ander Ramosek.

Erdiko kaleko kantoian dago Udalaren lokal berria. U.M.

ADMINISTRAZIOA > LOKAL BERRIA

Udalak erosi du udaletxe azpiko zapata saltokia zena

U.M. > ARRASATE

Udaletxearen azpiko aldeko kantoian zegoen zapata-denda (Alonso) itxi zutela aprobetxatu eta Arrasateko Udalak erosi egin du lokal hura. Dagoeneko, gainera, ipini dute Udalaren ikurra den logoa zapata dendaren leihoetan, eta estali ere egin dituzte leiho horiek.

Kontua da Arrasateko Udala azken urteotan espazio arazoekin dabilela, materiala eta langileak non sartu asmatu ezinda. Horrela, lokal berria erabiliko du bere beharretarako.

Oraingoz, biltegi moduan erabiliko dute. Aurrera begira zertarako izango den, berriz, zehaztu barik dute.

LITERATURA > URTEURRENA

Duela 50 urte Arestik 'Maldan Behera' aurkeztu zuen

Gabriel Arestiren poesia liburu horrek gerora eragin handia izan zuen euskal poesian

UBANE MADERA> ARRASATE

Denboran atzera egin eta 1959era salto eginda, orain dela 50 urte Bedoñan egindako bisita esanguratsua gogora ekarriko dugu: Gabriel Aresti idazlearen (Bilbo, 1933-1975) *Maldan behera* izeneko poesia liburuak lehen saria irabazi zuenekoa.

Esanguratsua da ekitaldi hura; izan ere, Gabriel Aresti idazleak berez oihartzuna handia du, eta handia da baita ere *Maldan behera* izenburua duen olerki sortak gerora izan duen oihartzuna.

LORAMENDIREN OMENEZ

Juan Arana Loramendiren gorazarrez Euskaltzaindiak Bedoñan, Loramendiren sorlekuan antolatutako literatura lehiaketan gailendu zen Gabriel Arestiren *Maldan behera* olerki sorta, 1959ko irailaren 13an. Antonio Arruek, Aingeru Irigaraik, Jose Maria Lojendiok eta Luis Mitxelenak osatu zuten epaimahaia eta haiek egin zuten Arestiren lanaren alde. Bigarren saria, berriz, Gandiagarendako izan zen, *Lelo xamurra* lanarengatik. 60 lan aurkeztu zituzten lehiaketa hartara.

Arestirendako berarendako ere oso garrantzitsua izan zen saria eskuratzea. Hamar urte geroago, bazioen Arestik: "Orain hamar urte inguru poema luze bat idaci nuen, *Maldan behera*. Poema haregatik sari bat eman zidan Euskalzaindiak, Euskal Akademiak, Loramendiren saria. Orduan, poeta sentitu ninzen horrekin, batez ere sariketa horretara hirurogei olerkari presentatu zirelako".

Zera ere gaineratu zuen Gabriel Arestik: "Nire poema eztakit oraindik nun argitaratuko dudan. Behar bada, Eganen, baina oraingoz eztit ajola".

"Saritzat eman zizkidaten bi mila pesetak ederki etorri zitzaizkidan, eta egun polita iragan genuen Mondragoen, Loramendiri opetsitako gorasarrean. Arrosa guztiek beren arantzeak eduki behar, eta egun zoragarri haretan ere nire arantzetxua geratu zitzaidan bihotzean josita, bada Bordari jauna nirekin hasarratu zen biziro, eztakit oraindik segurutik zergatik. Aita Zaitegi eta Aita Igorrekoa presente egon ziren, eta Zaitegik esan zidan munduko bekaizteria gustiak gora behera, aurrera segitu behar dudala nire lanarekin, hari beste horrenbeste pasatu zaiola beti, eta horregatik eztela sekula etsitu".

OROITZAPENERAKO Idazle bilbotarra, Bedoñako ekitaldian. AMAIA AZPIAZU

ARGAZKIA, EKITALDIAREN LEKUKO

Justu artikuluari laguntzen dion argazki horixe da Arestik Bedoñara egindako bisitaren lekuko. Bilboko idazlea bera agertzen da lehen planoan. Harekin azaltzen den dantzari jantzitako neskatilatxoa, berriz, Txaro Azpiazu zena da. Eta atzeko aldean azaltzen den gizonezkoa, berriz, Bernabe Berezibar zena, Arrasateko euskaltzale ezaguna.

Informazioa: Amaia Azpiazu, Joxe Arantzabal, Literatur Emailuak eta Susa argitaletxea.

LANA

Bi lan poltsa osatu beharra du Udalak

Udal Euskaltegiko irakasleen eta argiketarien lan poltsak behar ditu

U.M. > ARRASATE

Udala auzoan dagoen Ingurumen Eskolarako irakaslea behar du Arrasateko Udalak. Asteon onartu ditu lanpostu hori lehiaketara ateratzeko baldintza eta oinarriak.

Hain justu, Euskaltegiko irakasleen lan poltsaren kasuan, gaur, martitzena, egingo dituzte azterketak. Lehenengo, euskara proba egingo dute, 10:00etan, Kulturaten. Eta horren ostean izango dira elkarrizketak. Lan poltsa horretara aurkezteko, Irakasle ikasketak, unibertsitateko lizentziatura edo unibertsitateko diplomatura eduki beharra dago.

ARGIKETARIAK

Argiketari edo elektrikarien kasuan ere gaur da kontuan hartu beharreko eguna; gaur da-eta izena emateko azkeneko eguna. Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira eskaerak.

ZERBITZUAK > SEXOLOGIA

Webgune berritua estreinatu du Udal Sexologia zerbitzuak

Sarri eguneratuko den webgunea jarri dute martxan, unean uneko beharrak asetzeko

Elkarreragilea izango da, eta gura duenak kontsultak on-line egiteko aukera dauka



Irudian, Interneteko erabiltzaile bat webgune berrituaren kontsulten atalean bere zalantza idazteko gertu. J.B.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Udal Sexologia zerbitzuak 13 urte bete ditu dagoeneko. Udalak bultzatu zuen proiektua da, eta betebetean asmatu zutela esan behar, egun, aipatu zerbitzuak eginbehar garrantzitsuak betetzen baititu Arrasaten. Zerbitzuaren helburua, Larraitz Arando arduradunak dioenez, sexualitate osasuntsuago baten alde lan egitea da. Finean, sexualitatea "modu naturalean" bizitzen laguntzea du helburu Arrasateko Udal Sexologia zerbitzuak.

DINAMIKOAGOA...
Bada, helburu horri eutsiz, orain bost urte inguru zabaldu zuten webgunea berritzea pentsatu dute. Zertarako? Erabiltzaileen beharrak modu dinamikoago, eta beraz, eraginkorrago batean asetzeko. Arandok aditzera eman duenez, eguneraketak "maizago" emango dira, eta horrela "unean bertan pil-pilean" dauden gaiei lehentasuna emango zaie. Eta ez hori bakarrik, webgune berria elkarreragilea ere izango da.

...ETA ELKARRERAGILEA
Webgune berriak kontsultak on-line egiteko aukera ematen du. Hala, Garibai etxera joaterik ez duenak Internet bidez argitu ahalko ditu bere zalantzak. Prozedura erraza da oso: webgunearen hasiera orriko eskuinaldean dagoen *kontsultak on-line* atalean klikatu eta kontsulta idazkia bete beharko da. Bertan, izena, posta elektronikoaren helbidea eta argitu gura dena bidaliz, interesatuak laster jasoko du sexologia zerbitzukoen erantzuna. Hori bai, oraindik ere mantenduko dute bulegoko aholkularitza zerbitzua –astelehenetan, 10:00etatik 13:00etara eta martitzen eta eguenetan, 16:00etatik 19:00etara– zein telefono zerbitzua –943 25 20 66–. Informazio gehiagorako, bisitatu webgune berritua: *www.sexologiazerbitzua.com*.

EKIN EMAKUMEAK

Integratzen laguntzeko zerbitzuak, aurrera

Besteak beste, lana topatzen lagundu eta gure kultura azaltzen diete etorkinei

J.B. > ARRASATE
Ekin Emakumeak elkarteak aurrera darrai emakumeendako, etorkinendako eta baztertze arriskuan daudenendako integrazio zerbitzua eskaintzen. Eta dagoeneko badira urteak hain zerbitzu garrantzitsua ematen dutela. Izan ere, azken hamar urteotan emakumeen integrazioa bultzatzeko lanean jardun dute. Eta bereziki azken urteetan etorkinekin egin dute lan, arrasatearren eta etorkinen artean harremana sortzeko helburuarekin.

HAMAIKA ZERBITZU
Honako zerbitzu hauek dira, besteak beste, etorkinei eskaintzen zaizkienak: herriko zerbitzuen berri eman, euren eskubideak zeintzuk diren azaldu, lana aurkitzeko orientatu, Arrasate eta inguruak ezagutarazi eta gure kultura eta ohiturak erakutsi. Eta, gainera, hau guztia, euskarari berebiziko garrantzia emanez egin dute.

Bestalde, bi ikastaro antolatu dituzte azaro eta abendurako: dementziaren gainekoa –abenduaren 14tik 18ra– eta elikagaiak maneiatzen ikastekoa –azaroaren 9tik 11ra–. Izena emateko: Pablo Uranga kaleko egoitzara jo edo 943 79 83 70 telefonora deitu.

ERRETIRATUAK > IRTEERA

Oropesaraino heldu zen Maritxu Kajoi

Oporretan zegoen Arrasateko erretiratu talde batek bere erara ospatu zuen hain egun berezia

J.B. > ARRASATE
Txikiteroen zaindariaren eguna oso egun berezia da arrasatearrendako. Horren beste adibide bat Arrasateko erretiratu talde batek –68 lagun– egin zioten omenaldia izan zen. Oropesan zeuden 15 eguneko opor aldi batez gozatzen, eta urriaren 2an, postaz bidaltzeko eskatu zituzten eskapularioak jarri eta dotore-dotore ibili ziren hiri turistikoan. Adierazi dutenez, bertakoak "zur eta lur" geratu ziren eurak ikustean.

HITZALDIA ETA IRTEERA
Bestalde, Abaroak ekintza ezberdinak antolatu ditu urrirako. Eguen honetan, hilak 15, Santiago Goñik hitzaldia egingo du Abaroako 5 zenbakidun aretoan. Goñik testamentuaren nondik norakoak izango ditu hizpide.

Azkenik, urriaren 21ean irteera egingo dute Iratxera; Artaxoako hesia bisitatuko dute. Urriaren 13an amaituko da izenematea (10:30), eta txartelak hilaren 19an banatuko dira. Prezioa: 25 euro.

Oropesan izandako erretiratuetako batzuk, eskapulario eta guzti. ABAROA

> IKASTAROA

Dantza garaikidea ikasteko aukera Arrasate Musikalekin

Musikaz haratago doan taldea da Arrasate Musikal. Izan ere, ez da musika landu eta irakasten duten bakarra. Udatik bueltan dantza garaikidearen gaineko ikastaroa hasi ziren eskaintzen, eta oraindik ere zabalik dute matrikulaziorako epea.

Urri osoan izango da izena emateko aukera, Monterron jauregian –egun Musika eskola dena–. Honakoa da matrikulatzeko ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 16:00etatik 20:00etara. Klasei dagokienez, ordu bi bakarrik izango dira astean; denbora falta ez da aitzakia izango, beraz. Honakoa ordutegia: astelehena eta eguaztena, 20:00etatik 21:00etara.

Irudian, udaltzain bat isuna jartzen San Martin plazan. Isunen rankinean bigarren lekuan dago San Martin plaza, 248 isunekin. MONIKA BELASTEGI

ZERBITZUAK > UDALTZAINGOA

Iaz 2.697 isun jarri zituzten udaltzainek; 382, Ibargarain

2007an baino %22,88 isun gehiago jarri zituzten. Gehienak dira leku debekatuetan eta espaloietan aparkatzeagatik

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udaltzaingoak egiten duen urteko txostenari erreparatuz gero, nabarmen egin zuten gora iaz trafiko arauak hausteagatik jarritako isunek; %22,88, hain justu ere, 2007 urtearekin alderatuz gero. Iaz udaltzainek 2.697 isun jarri zituzten, eta 2007an, 2.080.

Isun horietatik %56,54 Bergarako biztanleei jarritakoak dira, eta gainerako %43,45, kanpoko gidariei.

Isun gehien jarri ziren kaleak izan ziren erdialdekoak: Ibargarai (382), San Martin plaza (248), Irizar (137), Matxiategi (125), Kruz Gallastegi (125), Arruriaga (107), Fraiskozuri (77), Ariznoa plaza (65), Mizpildi (60) eta Bidekurutzeta (52).

Hain justu ere, kale horiek dira trafiko gehien jasotzen dituztenak eta baita ere aparkaleku falta handien duen gunea. Izan ere, hor batzen dira inguruko auzoetatik eta ondoko herritatik autoz etortzen direnak, zerbitzu gehien dagoen herriko gunea da-eta. Isun guztien %51,09 pilatzen da kale horietan (1.378 isun).

Arau hausteei dagokienez, hauek izan dira isundunenak, besteak beste: leku debekatuan aparkatzea (371), espaloian aparkatzea (333), baimendutako denbora gainditzea (331), galtzadan aparkatzea (279), zirkulazioa oztopatuz aparkatzea (161), bigarren ilaran aparkatzea (135) eta oinezkoen pasabidean aparkatzea (125).

Garabia zerbitzuari dagokionez, 16 ibilgailu erretiratu zituzten iaz eta zegokien tasa ordaindu behar izan zuten. Horiez aparte, ibilgailu gehiago ere erretiratu ziren, baina kasu horietan tasarik kobratzeke. Udaltzaingoak txostenean argitzen duenez, ibilgailuendako biltegia oraindik egokituta ez dagoenez, garabia soilik erabiltzen da jaietan, pilota partidu egunetan eta larrialdietan.

DATUA

3,52
EURO

Hori izan zen udaltzain baten biztanleko urteko kostua. Udaltzain eta 1.000 biztanleren arteko erlazioa, berriz, 1,01ekoa izan zen.

KALEAN UTZITAKO ANIMALIAK

Kalean utzitako animaliez ere arduratzen dira udaltzainak. Iaz, 26 txakur batu zituzten, eta horietatik 23, Elurra txakurtegira eraman. Azken bederatzi urteotan dihardute lanean Elurra txakurtegiarekin hitzarmen baten bitartez, eta jabeek jaso ezean, hara eroaten dituzte animaliak.

Bestalde, 1997an mikrotxip irakurgailua erosi zuen Udaltzaingoak eta, Internet birtartez, Aldundiko erroldan kontsulta zuzenak egiteko aukera dute. Errolda horretan EAEn erroldatuta dauden txakur guztiak azaltzen dira eta horrek anomalion jabea aurkitzeko lana asko errazten dio Udaltzaingoari.

16 UDALTZAIN

Iaz 16 udaltzain zeuden Bergaran, 14.763 biztanlerendako. Hala, udaltzain eta 1.000 biztanleren arteko erlazioa zen 1,01ekoa.

Aurrekontuari dagokionez, 831.190 eurokoa izan zuten –udal aurrekontuaren %3–. Bestalde, udaltzain baten biztanleko urteko kostua izan ziren 3,52 euro –Udaltzaingoarena, 56,20– .

Iazko urria ezkero astebururetan ere ematen du zerbitzua udaltzaingoak. Hori horrela, udaltzaingoaren ordutegia da, astelehenetik zapatura, 06:00-22:00 eta domeketan, 10:00-22:00.

JAKINGARRIAK

> LAGATAKO AUTOAK
Jabeek bertan behera lagatako 10 auto erretiratu zituzten bide publikotik eta zatitegira eraman iaz. Beste 10 jabeek erretiratu zituzten.

> GERO ETA AUTO GEHIAGO
Iaz 9.437 ibilgailu zeuden inskribatuta, 2007an baino %1,7 gehiago. Udaltzainek argitzen dute ibilgailu kopuruak etengabeko gorakada mantentzen duela. Gaur egun, 0,54 auto eta 0,64 ibilgailu dagokio herritar bakoitzari.

> KALEZ KALEKO SALMENTA
Kalez kaleko salmenta egiteagatik akta bakarra jaso zuen udaltzaingoak iaz. Hori horrela, saltzeko modu hori Bergaran desagertuz doala azpimarratu dute.

> GALDUTAKO GAUZAK
Galdutako balio gutxiko gauzez gain -giltzak...-, 93 gauza batu dituzte, eta horietatik 33 jabeei bueltatu dizkiete. Erreklamatu gabe geratzen dena aurkitu duenari bueltatzen diote eta, bestela, ongintza-erakundeetara, batik bat, arropa, jostailuak eta betaurrekoak.

> BESTELAKO ZERBITZUAK
Udaltzaingoa arduratzen da bobra baimenez, zaraten neurketaz, lurzoru publikoaren okupazioaren kontrolaz, auzoetako korreoaz eta lokalen ordutegia kontrolatzeaz.

UDALA

Euskara ikastaro bereziak etorkinentzat

Euskal Herrira etorri berriei egokitutako metodologian oinarrituta daude

M.B. > BERGARA

Kanpotik etorri eta euskara ikasteko interesa duten guztiendako eskaintza berezia prestatu dute Udalak eta Udal Euskaltegiak, HABErekin elkarlanean. Hain justu, euskara ikasten hasteko 60 orduko ikastaroa antolatu dute. Hala, Euskal Herrira etorri berriei egokitutako metodologia eta materiala erabiliko dute.

Ikastaroa 16 urtetik gorakoendako da, doan, eta astean lau ordu izango dira, astean bi egunetan banatuta. Egunak eta ordutegia aukeran laga dituzte eta erabakiko dituzte ikasleek eskaera orrietan jarritakoaren arabera. Erabaki eta gero interesa erakutsi duten ikasleei jakinaraziko dietela aurreratu dute Udaletik.

IZENEMATEA, ZABALIK

Urriaren 16ra arte dago zabalik izenematea. Horretarako jo behar da Udal Euskaltegira (Zabalotegi kalea 13) edo 943 76 44 53 telefono zenbakira deitu.

oharrak

KINTADA
>1962an jaiotakoek kinto afaria egingo dute

Urriaren 31n egingo dute, Tartufo jatetxean. Autobusa egongo da joan-etorrirako. Izenematea da urriaren 25a baino lehen, Ariznoa, Etxagi eta Deportivo tabernetan (10 euro aurreratu behar dira). Egun horretarako hitzordua egin dute 20:00etan, Fraiskozurin.

BERTSOLARITZA
> Bertsolari Txapelketa Nagusirako txartelak salgai

Jardun euskara elkartean daude salgai. Finalerako sarreraz gain, bazkari zein autobuserako txartelak ere badaude.

KINTADA
>1968an jaiotakoek kinto afaria egingo dute

Urriaren 24an egingo dute afaria. Izenematea da urriaren 15a, eguena, baino lehen, Deportivo tabernan. Izena ematerakoan 10 euro aurreratu behar dira.

ONDAREA > INDUSKETA

Seminarioan azaldutako pareta ez dagokio Bergarako harresien zati bati

Aurkitu dituzte beranduagokoak uste ziren lurperatze-sistema higienikoak jesuiten hilobietan

Dokumentatu ahal izan dute Lehen Guda Karlistan Seminarioa izan zela Probintzia Ospitale Militarra

Udal agintariak eta Zehazten enpresako arkeologoak, Madariagaren mausoleoaren aurrean. MONIKA BELASTEGI

Jesuiten komunitateko hilobiak. M.B.

Perez eta Alberdi, jesuiten aztarnak aztertzen. M.B.

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Seminarioko elizaren ikerketa arkeologiko-historikoaren lehen emaitzen berri eman zuten egubakoitzean. Mikel Elkoroberezibar, Udaleko Ondare batzordeburuak, indusketa arkeologikoaren zuzendari Jesus Manuel Perezek eta Xabier Alberdi lanok gizarteratzearen arduradunak eman zituzten azalpenok.

Mikel Elkoroberezibar zinegotziak hartu zuen hitza lehenik, eta Udala "pozik" dagoela azaldu zuen, "indusketak herritarren artean izan duen harrerarekin". Horren haritik, "halako ekimenekin jarraitzeko" asmoa ere azpimarratu zuen, eta "herritarrak gonbidatu" indusketara hurbiltzera. Izan ere, gauza interesgarri asko azaldu da Seminarioko indusketan, eta "planteatutako helburu asko lortu" dituztela nabarmendu zuen Xabier Alberdik.

LORTUTAKO HELBURUAK

Batetik, On Andres de Madariaga, Calatravako Zaldun eta Peruko Kontuen Auzitegiko Kontatzaile Nagusia eta elizaren sustatzaile nagusiaren "jatorrizko mausoleo aparta" ikusgai jarri dute, Alberdik azaldu zuenez. Horretarako, mausoleoa estaltzen zuen 1866ko oroitarria jaso behar izan zuten Petra SLko zaharberritzaileek, eta oroitarri horri eta Madariagaren mausoleoaren estalkiari lehenengo garbitze lanak egin dizkiotela ere gehitu zuen.

Bestetik, jesuiten komunitateko nekropoliaren zati bat industen dihardutela ere argitu zuen Alberdik. Hala, baieztatu ahal izan dute hilobietan jesuiten komunitateko hildakoen aztarnak zeudela. Horrekin batera, eraikuntzak gero izandako erabileren ondorioz lurperatutakoenak aurkitu dituztela ere gehitu zuen. Zehazki, dokumentatu ahal izan dute, Lehen Guda Karlistan –1835 eta 1839 bitartean– Seminarioko eraikuntza karlisten Probintzia Ospitale Militarraren egoitza izan zela.

Nekropolia industeak ezusteak ere ekarri dizkie arkeologoei: "Ezustea izan da XVII-XVIII. mendeetako enterramenduetan aplikatzen zituztela sistema higienikoak, uste zirenak beranduagokoak. Hain justu ere, dokumentatu ahal izan dugu kare bizian lurperatzen zituztela hildakoak, gaixotasunak ekiditeko".

Beste emaitzetako bat dagokio elizako zoruari: koloretako marmolez eta harriz eraikitako zoruaren hedapen osoa industu eta berreskuratu dute eta orain "datazioa zehazteko ikerketarekin" jarraitzen dutela azaldu zuen Alberdik. Jatorrizko zoru hori hasten da aldarean, eliza sarrerarainо iristen da eta gurutze forma du.

EZEZTATU DUTEN HIPOTESIA

Elizaren lurrazpian aurkitutako pareta handiaren hedapen osoa ere industu dute eta bere jatorria eta eraikuntzaren ezaugarriak arkeologikoki aztertzen dihardute. Horren harira, zuten hipotesietako bat "ezeztatu" egin dutela aurreratu zuen Alberdik: " Orain arte herriko harresiaren zati bat izan zitekeen hipotesia geneukan arren, agian 1597an eraikitzen hasitako jesuiten jatorrizko elizari dagokion aztarnen bat izan daitekeen hipotesia hasi gara aztertzen".

Bestetik, gaur egun eliza eraiki ondoren orubeak izandako beste erabilera batzuk ere dokumentatu dituzte. Besteak beste, "elizaren oinetan hedatutako balizko kripta" aipatu zuten aurkezpenean.

Bukatzeko, elizaren sarrera ondoan egiten diharduten indusketan "eliza eraikitzen hasi aurreko mailetara iritsi" direla azpimarratu zuen Alberdik eta "Erdi Aroko materiala aurkitu" dutela ere bai, nahiz eta ez izan "testuinguru horretakoa, kokagune horretakoa".

ARTXIBOKO LANA

Indusketarekin batera, artxiboetako dokumentazioaren ikerketa egiten dihardute. Dagoeneko hainbat artxibo begiratu dituzte. Egun ari dira Bergarako Udal Agiritegiko fondoak aztertzen.

DATUA

100

PERTSONA EGUNEKO

Egunero, batez beste, 100 lagun hurbildu dira Seminarioko elizako aztarnategira. Kopuru horrekin pozik azaldu dira udal arduradunak. Abuztuan 145 bisitari jaso zituztela ere esan zuten.

Bisita gidatuak urrian bukatuko dira

Oraindik Seminarioko indusketa lanak ikusi ez dituenak urriaren 30era arteko epea du. Izan ere, egun horretan lagako diote bisita gidatuak egiteari.

Urriaren 12tik 30era arte gidatutako bisitak egiteko, deitu behar da 636 17 09 37 telefono zenbakira edo *zehazten1@yahoo.es* helbide elektronikora idatzi. Beste aukera bat da Seminarioko elizako ate nagusira hurbiltzea astelehenetik egubakoitzera, 11:30ean eta 16:30ean, eta zapatuetan, 11:00etan.

Bestalde, ikastetxeendako bisita gidatu programa datozen egunotan hasiko dute eta hori ere urriaren 30ean bukatuko da. Ikastetxeekin egingo duten lanari dagokionez, bisita gidatuez gain eskolan lantzeko unitate didaktikoak ere prestatu dituzte.

KULTURA > IKASTAROAK

Eskulan tailerretan parte hartzeko zapatura arte eman daiteke izena

Interesatuek kultura etxean eman beharko dute izena goizez edo arratsaldez

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Udaleko Kultura Sailak antolatutako eskulan ikastaroetarako izenemate epea zapatura arte dago zabalik. Kultura Sailak bost ikastaroetan eskaintzen dituen plazak baino lagun gehiagok izena emango balute, zozketa bidez zehaztuko lituzkete ikastaro bakoitzeko taldeak. Behin betiko taldeak osatu ondoren, ordainketa egiteko epea zabalduko dute: helduen ikastaroetan parte hartzen dutenek 66 euro ordainduko dituzte; haurren ikastaroetakoek, 48 euro; eta bitxigintza ikastarokoek, 46 euro.

GEHIENAK, 40 ORDUKOAK

Eskaintzen dituzten ikastaroak dira: hari, patchwork eta puntu lanak; gazteendako eta helduendako zeramika; eskulanak; bitxigintza; eta helduendako eta gazteendako pintura ikastaroak.

Azaroan hasi eta maiatzera arte egingo dituzten ikastaro guztiak 40 ordukoak izango dira. Dena den, bitxigintzakoa 20 ordukoa izango da.

Hari, patchwork eta puntu laneko tailerra Arantzazu Lizarraldek emango du astelehenetan eta eguaztenetan. Bestalde, Iñaki Jauregialtzo eta Arantxa Madinabeitia izango dira zeramikako irakasleak. Helduendako ikastaroa emango dute eguaztenetan 19:00etan eta 7-12 urte arteko neska-mutikoena 17:30ean.

BITXIGINTZAKO BI IKASTARO

Irati Ugartek emango duen bitxigintza ikastaroa egubakoitzetan egingo dute. Ikasturtean zehar bi emango ditu: azarotik urtarrilera lehena eta otsailetik apirilera bigarrena.

Bestalde, egurra margotzeko tailerra martitzenetan emango du Jasone Agirrek. Bi talde egingo ditu: 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

GAZTEEN PINTURA, ADINKA

Nagusiendako pintura ikastaroa Luis Laskurain bergararrak emango du, astelehenetan eta martitzenetan. Bestalde, pinturarako izena ematen duten gaztetxoak adinaren arabera banatuko dituzte: 5 eta 9 urte artekoak eguenetan bilduko dira eta 10 eta 15 urte artekoak egubakoitzetan. Eskolak ordu eta erdikoak izango dira eta Lexeia Larrañaga izango da irakaslea.

LANAK > ERABERRITZEA

Oñatiko kondearen jauregia berritu egin dute Arabako Buradon Gatzaga herrian

Arabako diputatu nagusi Xabier Agirrek inauguratu zituen birmoldaketa lanak

Aurrerantzean bisita gidatuak egingo dituzte Buradon Gatzagako herrigunean

Oñatiko kondearen jauregia barrurik eraberritu dute; inaugurazioan, herritarrek eta agintariek parte hartu zuten. GOIENKARIA

M.B. > OÑATI

Oñatiko konde Iñigo Velez de Gebarak (1566-1644) Arabako Buradon Gatzagan duen jauregia eraberritu egin dute. Urriaren 1ean egin zuten inaugurazioa, eta ekitaldian egon ziren Arabako diputatu nagusi Xabier Agirrek; Toki Administrazio eta Lurralde Orekaren Foru diputatu Alfredo de Miguelek; eta Buradon Gatzagako Administrazio Batzarreko presidente Mari Luz Urretxuk.

800.000 EURO BAINO GEHIAGO

Arabako Foru Aldundiak 814.000 euro inbertitu ditu Oñatiko kondearen jauregia eta herrigune historikoaren eraberritzeak egiteko. Ahaldun nagusiak egindako lanaren garrantzia azpimarratu zuen: "Egin ditugun lanak garrantzitsuak dira; alde batetik, Aldundiak dirutza handia erabili duelako; eta beste alde batetik, Buradon Gatzagako herrigune historikoa eraberritu dugulako. Izan ere, Arabako ibilbide turistiko nagusienetakoa da".

LANAK, BOST FASETAN

Bost fasetan egin dituzte eraberritze lanak; besteak beste, herriko oinarrizko azpiegiturak eta zoladura berritu dute. Dena den, lanen helburu nagusia sarmientotarren dorretxearen egonkortasuna ziurtatzea zen.

Oñatiko kondeen jauregiaren barruan esparru berezia egin dute, aurrien xarma mantenduz turismoarekin lotutako jarduerak egiteko; besteak beste, bisita gidatuak eta erakusketak egin ahal izateko.

107 BIZILAGUN

Buradon Gatzaga Arabako Errioxan dago eta 107 bizilagun ditu. Miranda de Ebrotik (Burgos) 14 kilometrora, Harotik (Errioxa) 8 kilometrora eta Bastidatik (Araba) 8,7 kilometrora dago. Herriak bi kale nagusi ditu eta biak harresi bidez daude lotuta. Herrigunean plaza nagusia dute eta inguruan askotariko monumentuak, batzuk Pizkunde garaikoak.

Buradon Gatzagako herrigune historikoari *Multzo monumental* izaera eman zion Eusko Jaurlaritzak 2003ko otsailean.

ZERBITZUAK

ONA txartelak eskatzeko leku berriak

Kiroldegian, kultura etxean, Udalean eta osasun etxean eska daitezke, hain justu

M.B. > OÑATI

Osasun Txartel Elektronikoa (ONA) eskatzeko leku berriak zehaztu dituzte Oñatin. Hemendik aurrera hainbat tokitan tramitatu ahal izango dute: osasun etxea, astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 17:00etara; Udalean, astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; kultura etxean, astelehenetik egubakoitzera 16:30etik 20:30era; eta kiroldegian, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan 11:00etatik 13:00etara eta martitzenetan eta eguenetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

ASKOTARIKO TRAMITEAK

ONA txartelak orain darabilgun Osakidetzako txartela ordezkatzen du. Besteak beste, Osakidetzako, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Estatuko Administrazioko tramite guztiak egiteko aukera ematen du.

Era berean, udal zerbitzuetan erabil daiteke. Haur eta nagusien liburutegietan kontsultak egin eta liburuak maileguan hartu, udal errolden kontsulta egin, eta isunen gaineko informazioa jaso, besteak beste.

> ETXEBIZITZAK

Babes ofizialeko azken etxeen zozketa bihar egingo dute

Babes ofizialeko azken 84 etxeen zozketa bihar egingo dute, 18:00etan, kiroldegiko pilotalekuan. Hain zuzen ere, Ugarkalde auzoko 11. eta 12. zenbakietako 40 etxe eta San Martin auzoko 9., 10., eta 18. zenbakietako 44 etxe zozketatuko dituzte.

Gainera, Ugarkaldeko 11. eta 12. zenbakietan egiten diharduten logela bakarreko zortzi etxeak ere zozketatuko dituzte. Interesa dutenek izena emateko aukera dute oraindik udal bulegoetan.

Azken zozketetan erabili duten Etxebideko zerrenda berbera erabiliko dute bihar. Gainera, babes ofizialeko etxeak banatzeko Udalak egingo duen azken zozketa izango da.

Ibarraundi museoko beheko solairuan dago ikusgai erakusketa. MIRIAN BITERI

Urriaren 16ra arte egongo da Medicusmundi elkartearen erakusketa bisitatzeko aukera, astelehenetik egubakoitzera

ESKORIATZA > ERAKUSKETA

Zortzi artistak hiesaren errealitatea islatzen dute egunotan Ibarraundin

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa delako erakusketa dago joan den astelehena ezkero Ibarraundi museoan. Gipuzkoako Medicusmundi elkartearen eskutik ekarri dute esandako erakusketa Eskoriatzara eta horren helburua da herritarrak, mundu mailan, GIB/hiesa eteteko konponbide globalak martxan jartzeko beharraz sentsibilizatzea. Hau da, herritarrek egoeraren analisi kritikoa egitea eta haiek arazoaren irtenbidean parte hartzera bultzatzea.

MATERIALAK

Esan bezala, Ibarraundi museoan egongo da ikusgai obra multzoa, urriaren 16ra arte. Interesatuek astelehenetik egubakoitzera bitartean bisitatu ahalko dute hori, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Erakusketa horretan, artista bakoitzak hiesaren inguruan duen ikuspegia islatzen du bere lanean. Eta, besteak beste, eskulturak, zeramikak eta kristala, olioak, mihisean edo paperean teknika mistoak dira erabilitako materialak eta estiloak. Horien bidez, hizkuntza berriak bilatu dituzte errealitatea edo gaixotasunak txiroen artean sortzen duen egoera azaltzeko.

ARTISTAK

Izenburuak berak dioen moduan, *Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa* erakusketak zortzi artistaren obrak biltzen ditu. Francisco Alvarez *Curro*, Desiree Fernandez, Raul Fernandez, Elena Gallego, Justo Manuel Garcia, Victoria Gil, Emilio Hurtado eta Jesus Martinezen artelanak dira, hain zuzen ere, egunotan Ibarraundin ikus daitezkeenak.

ESKORIATZA

Gerrari buruzko proiekzioa Ibarraundin

Extremadurako errepresioaz jardungo dute bihar, 19:00etan

M.B. > ESKORIATZA

Eguaztenean, hilak 14, *Los Refugiados de Barrancos* dokumentala ikusi ahalko da Eskoriatzako Ibarraundi museoan, 19:00etan. Idi Ezkerra Fundazioak antolatutako proiekzioaren ostean, mahai ingurua egingo dute eta bertan dokumental horren zuzendari Fernando Ramosek parte hartuko du.

Dokumentala Asociacion Cultural Morrimer-en bi urteko lan gogorraren emaitza da. Extremadurako errepresio frankistari buruzkoa da; 1936ko irailean, Francoren soldaduek Portugalgo muga ondoko azken herriak konkistatu zituztenekoa, hain zuzen. Errepresioa han ikaragarria zenez, ehunka lagunek muga igarotzea erabaki zuten eta Portugalerantz ihes egin zuten. Antonio Augusto de Seixas portugaldar tenientearen esku-hartze gizatiarrari esker, Barrancos herri ondoan errefuxiatu-esparru bi sortu ziren espainiar talde hori hartu eta babesteko.

LEKUKOAK

Dokumentalean, Portugalgo eta Espainiako lekukoek, historialariek, kazetariek eta idazleek parte hartu dute. Guztira, 18 pertsona azaltzen dira; horietatik nabarmentzekoak, gertaeren hamar lekuko zuzen.

ARETXABALETA > HEZKUNTZA

Gurasoendako 'Ardura hezi' ikastaroa emango dute azaroan

Interesatuta daudenek urriaren 30a baino lehen aurkeztu behar dute eskaera orria udaletxean edo kultura etxean; plazak mugatuak dira

M.B. > ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak gurasoei zuzendutako *Ardura hezi* ikastaroa gertu du. 0-16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek haurren heziketan dituzten zailtasun eta erantzukizunen gainean jardungo dute bertan; gainera, beste zenbait gurasorekin batera egoerak aztertu eta irtenbideak bilatzeko erabil daitezkeen tresnak ikasiko dituzte. Besteak beste, gurasoen paperaz hitz egingo da, adinari egokitutako mugez eta arauez eta haur eta nerabeekin negoziatzeko behar eta moduaz.

Izenematea dagoeneko zabalik dago; interesatuek urriaren 30a baino lehen eraman behar dute eskaera orria udaletxera edo kultura etxera. Plazak mugatuak dira, gehienez 30 lagunek parte hartu ahalko dute.

SAIOAK, MARTITZENETAN

Saioak azaroan izango dira, martitzenetan, 18:00etatik 19:30era, Arkupen. Udaletik azaldu dutenez, Gizarte langile eta hezitzaile Loredi Salegik emango ditu eta partaideak talde txikietan banatuta egongo dira.

ARETXABALETA > KULTURA

Josune Bereziartu egongo da eguenean Arkupen

Ikus-entzunezkoa eta haur eta helduendako ikuskizunak egongo dira egunotan

M.B. > ARETXABALETA

Arkupeko urriko kultura egitarauaren barruan, hainbat hitzordu daude datozen egunotan. Eguenean, urriak 15, Josune Bereziarturen eskutik, ikus-entzunezkoa dohainik ikusteko aukera egongo da Zaraia aretoan. Betiko moduan, 19:30ean hasiko da hori.

Zapatuan, hilak 17, helduendako antzerkia izango da toki berean: Ester Bellverren *Yo prota-agonizo* antzezlana, hain justu ere. Ikusleek emakumezko aktore bat harrituta ikusiko dute agertoki gainean, haren irudia aldagelako ispiluan. Ispiluan, pelikula batean bezala, bere bizitzako pasarteak agertzen joango dira. Sarrerak zortzi euro balio du.

Domekan, urriak 18, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek bisitatuko dute Arkupe, 17:00etan, *Martingala* ikuskizunarekin. Sarrerak hiru eurotan salduko dira.

Hiru harri ipini dituzte orientazioa zainduz, eta iparra non dagoen adierazten dute. IRATI AGIRREAZALDEGI

ANTZUOLA > OHITURA ZAHARRAK

Probarako harriak ipini dituzte Sagastin

Asmoa da berdegunean, harrien aldamenean, informazio kartelak ipintzea probalekuen historia kontatuz, besteak beste

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolan probalekuak izan dira urtetan barrena: Ondarren eta frontoi ondoan, hain zuzen ere. Azken hori, pilotaleku ingurua urbanizatu zutenean, orain dela 20 urte inguru, probalekurik gabe geratu zen herria, eta orduan, proba-harriak Antigua auzora, DYA-ko eraikinaren atzeko aldera eraman zituzten.

Orain dela gutxira arte han egon dira harriak, nahiko egoera kaskarrean. Horietako harriren bat herritik kanpora eraman zutela eta antzuolar batzuek berreskuratu egin zutela ere kontatu digu Jose Mari Iturbe Nekazaritza eta Ingurumen zinegotziak.

GEZI ITXURAN

Torresoroa eraiki zutenean Jose Mari Iturberi bururatu zitzaion egokia izan zitekeela bazterreratuta zeuden harri horiek eraikin berriaren inguruan kokatzea; hortaz, Hirigintza batzordean ideia aurkeztu eta adostu zuten Sagastin ipintzea harriak, Torresorotik gertu.

Harriak Sagastiko berdegunean ipintzeko orduan kontuan izan dute horien orientazioa, eta iparraldera begira jarri nahi izan dituzte proba-harriak. Jose Mari Iturbek hauxe esan digu: "Hiru harri izanik gezi bat irudikatu nahi izan dugu, iparra non dagoen adieraziz".

Probarako harriak ipintzeaz gain, hagin bat ere landatuta dago gune horretan. "Ugarte-Torre baserrian zegoen eta Udalari eskaini zioten arbola. Hortaz, Sagastin ipini zuten. Antzuolan, basoan ere, badira banaka batzuk Aginerreka inguruan", azaldu digu Jose Mari Iturbek.

Harriak ipini dituzte, baina hor ez dira amaituko Sagastiko berdegune hori egokitzeko lanak. Izan ere, Udaletik asmoa dute Antzuolako probei eta probalekuei buruzko informazioa jasotzeko eta gune horretan, harrien ondoan-edo kartelen bat ipintzeko herritarrengandik jasotako informazio horrekin.

ARAMAIO > AISIALDIA

Zuiako Koadrilak familiendako irteerak antolatu ditu urri, azaro eta abendurako

Lehenengo irteera urriaren 18an egingo dute; Burdinbidearen Euskal Museoa bisitatuko dute Azpeitian

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak beste egitasmo bat ipini du abian aurten: familiendako irteerak egingo dituzte datozen hiru hilabeteetan. Lehenengoa domekan izango da, urriaren 18an. Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoa bisitatuko dute. Autobusa 08:30ean irtengo da Aramaioko kiroldegitik eta 14:30 inguruan itzuliko dira.

Azaroan, berriz, Uraren Museoa ezagutzeko aukera egongo da. 2 urtera arteko umeek ez dute ordaindu beharrik izango; 3 eta 12 urte bitartekoek bi euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtetik gorakoek, berriz, sei euro. Gainera, 10 urtetik beherako haurrek heldu batekin joan beharko dute derrigorrez. Izena emateko azken eguna azaroaren 5a da.

Abenduan Mungiara joango dira, Olentzeroren etxea bisitatzera. Irteera orduak beti berdinak izango dira, baita prezioak ere. Abenduko irteeran parte hartzeko izenematea abenduaren 4an amaitzen da.

Irteera horietara joan nahi dutenek udaletxean egin beharko dute ordainketa.

LEINTZ GATZAGA > LANDA INGURUNEA

Ehiza postuen zozketak egiten hasi dira, Aretxabaletan

Gatzagan egitea zozketa horiek gura zuen Udalak, baina Gipuzkoako Ehiza Federazioak Aretxabaletan egingo ditu, iaz legez

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Egubakoitzean zozketatu zituzten denboraldiko lehen postuak. Aretxabaletako Aretz tabernan izan zen, aurreko urteetan legez, eta hainbat ehiztari elkartu ziren bertan. Gatzagako mendian dauden 65 bat postu zozketatu zituzten, eta azaroaren 22a bitartean egubakoitzero egingo ditu Gipuzkoako Ehiza Federazioak.

Gatzagako Udal ordezkariak ez daude gustura hartutako erabakiarekin. Orain hilabete inguru esleitu zizkion postuok Ehiza Federazioari eta herrian egiteko zozketak eskatu, baina aurten behintzat ez da hala izango.

Aretxabaletako Aretz tabernan, postuen zozketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA > ARGAZKI LEHIAKETA

Gaur da azken eguna lanak udaletxean aurkezteko

Hilaren 18an erakusketa ipiniko dute lanokin eta sari banaketa egingo dute

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Udalak lehenengo aldiz antolatu duen *Elgetaklik* lehiaketara argazki gutxi aurkeztu dituzte, oraingoz, herritarrek. Gaur, martitzena, amaitzen da lanak aurkezteko epea.

Epaimahaikide izango da Julio Calleja argazkilari profesionala. Lehiaketak Elgetako txoko maiteenak argazki bidez jasotzeko proposamena egiten die 14 urtetik gorako herritarrei. "Txoko asko daude, eta askotarikoak", adierazi du Callejak. "Elgeta aproposa da argazkiak ateratzeko".

Argazkilariak begi onez ikusten du lehiaketa deitu izana. "Horrelako ekimenekin argazkilaritza bultzatzen da, eta uste dut zale asko dituela diziplina horrek". Epaia emateko orduan, batez ere argazkia ateratzerakoan hartutako ikuspuntua baloratuko duela adierazi du; irudimena eta sormena, gehienbat.

Udalak bi kategoria ezberdin planteatu ditu: 14-18 urte bitartekoak alde batetik eta 18 urtetik gorakoak bestetik. "Oso ondo iruditzen zait lehiaketa nerabeei ere zabaldu izana. "Nik, baina, mugikorrekin ateratako argazkien atala sortuko nuke eurendako", esan du Callejak. Ez du uste Elgetan argazkilaritzarako zaletasun handia dagoenik, "baina horrelako ekimenik sor daiteke".

ERAKUSKETA, HILAREN 18AN

Udalaren asmoa da lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa ipintzea hilaren 18an. Gogoratu, gainera, sei sari daudela jokoan: Eibarko Ikatz dendetan trukatzeko 150, 100 eta 75 euroko bonuak, hain zuzen ere.

Kirola

> FUTBOLA
Banako berdinketa UDArendako, partidu borrokatu baten **> 22-23**

> SASKIBALOIA
Aloña Mendik 84-55 irabazi zion Askartza liderrari **> 24**

> ITSASO EGAÑA
Handbol Amposta taldea ohorezko mailara igo nahi dugu **> 27**

Abasolok ezustekoa, lokatzak baldintzatu zuen proban

EGURALDIA AURKARI
Euriak lokaztu egin zuen zirkuitua, pilotu eta ikusleen kalterako

DEBAGOIENDARRAK
Markiegik ez zuen bere eguna izan; Abasolo, MX2 mailan nagusi

Xabi Abasolo arrasatearrak lan bikaina egin zuen domekan, eta Ander Valentin faboritoa baino azkarrago aritu zen. JOSETXO ARANTZABAL

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Lokatza izan zen protagonista domekako ipar zonako hirugarren moto-kros proban. Ez zen Bergara Hiria proban izandako adina lokatza izan, baina oraingoan ere opena baldintzatu zuen eguraldiak. Beraz, proba ez zen espero bezain ikusgarria izan, ikusleen kalterako.

ASKO EZ ZIREN HELMUGARA HELDU

Izena eman zuten 56 pilotuetatik erdiak baino gehiagok amore eman behar izan zuten lokatza artean. Hori izan zen Josu Mentxaka (MX2 junior) bergararraren kasua, esaterako.

Bere herrikide Asier Blazquezek (MX1) ez zuen proba hasi ere egin, arazo teknikoak direlaeta. Proba amaitu zutenen artean, Xabier Abasolo (MX2 senior) iza zen azkarrena. Izan ere, pilotu arrasatearra oso azkar aritu zen eta Ander Valentin faborito nagusia menderatu zuen. Esan beharra dago Valentinek ez zuela bere eguna izan; hamaika arazo izan zituen motorrarekin. Azkenean hirugarren postuan amaitu zuen Lizarrako pilotuak, Josu Iruretagoiena sartu baitzen bigarren helmugan.

CASTAÑERA NAGUSI MX1 MAILAN

Bestalde, MX1 mailan, parte hartu zutenen artean, ez zen ezusteko handirik izan. David Castañera izan zen nagusi. Larregi sufritu barik irabazi zuen Kantabriako pilotuak. Haren atzetik, Urretxuko Ibai Merketegi sartu zen helmugan.

Etxean aritu zen Urtzi Markiegi bergararrak ez zuen bere eguna izan eta azken postuetan amaitu zuen; lehen txandan erori egin zen azken aldapan. Gainera, alebinetan Iban Moratinos nagusitu zen, eta Promesak deritzon kategorian, bestalde, Iker Larrañaga izan zen azkarrena. Hurrengo opena Aranda de Dueron, Burgosen jokatuko da.

PROTAGONISTA NAGUSIAK

Xabi Abasolo
Arrasate

"Pozik nago egindako lanarekin, ez nuen espero hain azkar ibiliko nintzenik. Lehen txandan bigarrengoan baino lasaiago ibili naiz. Eguraldiak ez du batere lagundu".

Ander Valentin
Lizarra

"Lehen txandan irteera ona egin dut, baina gero arazoak izan ditut motorrarekin. Bigarren txandan ere, lehen postuan nindoala, motorrak huts egin du".

Josu Iruretagoiena
Itziar

"Zortea aldeko izan dut gaur. Ander Valentinek, niretzat faborito nagusia zenak, ez du bere eguna izan eta azkenean nik bigarren postuan amaitu dut proba".



Urtzi Markiegi
Bergara

"Erori egin naiz azken aldapan, eta ezin izan dut garaiz motorra altxatu; denak aurretik joan dira. Zirkuituaren egoerak asko baldintzatu du proba".

Ibai Merketegi
Urretxu

"Lokatza asko zegoen eta oso zaila zen motorra gidatzea; eguraldiak erabat baldintzatu du opena. Hala ere, espero nuen postuan amaitu dut, eta gustura nago".

HIRUGARREN MAILA > ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

Estrategia jokaldian berdindu zuen lehia Aretxabaletak 84. minutuan

Falta jaurtiketa batean egin zuen gola Imanol Rodriguezek; aurretik, zazpigarren minutuan egin zuen bizkaitarren gola San Pedro jokalariak

ARETXABALETA

1-1

SANTURTZI

Aretxabaleta > Eden, Raul, Gorka (Alain, 53. min.), Iban (Akaitz, 36.min.), Andoni, Ruben, Haritz, Iker, Borja, Imanol eta Oinatz (Iñaki, 59.min.).

Santurtzi > Villavivera, Diez, Rio, Gonzalez, Barba, Arranz, Cerezo (Garaia, 77. min.), Alvarez, San Pedro, Boyero eta Casado.

Epailea > Velasco jaunak zuzendu zuen partidua. Barbosa eta Merino jaunak izan ziren marrazainak.

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA

Hasierako minututik luzapenekoetara, partidu borrokatua jokatu zuten domekan Aretxabaletak eta Santurtzik Ibarra futbol zelaian; hasieratik, bizkaitarrak hobeto kokatu zirelako zelaian eta zazpigarren minutuan gola sartu zutelako; eta bukaerara, UDAk 84. minutuan berdindu zuelako, eta handik aurrerako minututuetan presio handia egin zuelako partidua irabazteko.

Dena den, bai UDAk eta baita Santurtzik egindako jokoa ikusita, berdinketa emaitza justuena izan zela esan behar dugu. Biek ala biek merezi izan zuten puntua.

Lehenengo minututik ikusi zen Santurtzi talde beteranoa eta indartsua dela, eta etxekoak baino hobeto kokatu zen zelaian. Gainera, egindako lehen gol aukera aprobetxatu zuten partidua euren alde jartzeko. Iban Astolak huts handia egin zuen baloia aldentzerakoan, eta San Pedro aurrelariak ez zuen gola sartu.

Markagailua kontra izanik, aretxabaletarrak ahalegindu ziren lerroak aurreratzen, baina bizkaitarrak oso azkarrak ziren kontraerasoan. UDAk arazo asko izan zituen defentsan; huts gehiegi egin zituen.

Abantaila izan arren, Santurtzik gol aukera gehiago sortu zituen. Eskerrak aurrelariak ez zirena fin ibili! UDAren lehen jaurtiketa Haritzek egin zuen, 31. minutuan, Oinatzekin bat-bikoa egin ondoren; baina atezainak geratu egin zuen baloia. Lau minutu eta gero, penaltia eskatu zuten zaleek Imanol area barruan erori egin zelako, baina epaileak ez zuen ezer adierazi. Segituan, atzeko lerroa sendotzeko asmoz, lehen aldaketa egin zuen UDAko entrenatzaile Gordobilek.

Atsedenaren aurretik, baina, Santurtzik beste bi aukera izan zituen abantaila handitzeko.

Aretxabaletako jokalari Andoni Amutxastegi, baloia hankarekin menderatu guran. Zaleek eta au

FALTA JAURTIKETAN

Bigarren zatiaren hasiera lehenaren bukaeraren antzekoa izan zen. Aretxabaleta ezinka ibili zen, azken metroetan jokaldi garbiak egin barik.

Lehen jaurtiketa Santurtziko jokalari Alvarezek egin zuen. Jarraian, beste bi aukera egin zituzten, 53. eta 55. minutuetan.

ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE
1200 b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
FAGOR
465
-105
360 €
(Renove plana)

BERMEA 2 URTE
1200 b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2712
FAGOR
420
-105
315 €
(Renove plana)

BERMEA 2 URTE
1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3F-1610
FAGOR
335
-105
230 €
(Renove plana)

1000 b/min
5 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-110
aspes
280
-105
175 €
(Renove plana)

RENOVE PLANA
Sukaldeko altzariak
1000€ merkeago

144
x
55
x
60
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AFD-145
aspes
295
-85
210 €
(Renove plana)

A Sailkapen energetikoa
INDUKZIOA IF-3S/X
475 €
FAGOR

A Sailkapen energetikoa
LABEA ETA BITROZERAMIKA
aspes
360
-75
285 €
(Renove plana)

RENOVE PLANA
GARBIGAILUAK
ONTZI-GARBIGAILUAK
HOZKAILUAK
IZOZKAILUAK
A -85 €
A+ -105 €
LABEAK -75 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

ulkitxoan daudenek arretaz jarraitzen dute jokaldia. JOSETXO ARANTZABAL

Jokaldiekin ezer gutxi lortzen zutela ikusirik, falta jaurtiketa aprobetxatu zuten Aretxabaletak berdinketa egiteko. Raul jarri zen jaurtiketa egiteko, eta Iker eta Imanol atezainari bizkarra ematen jarri ziren baloia erdiratzeko. Baina, estrategia erabiliz Raulek bota ordez Imanolek jaurti zuen baloia. Atezainak ez zuen jaurtiketa espero eta berdinketa egin zuen UDAk. 84. minutua zen. Handik aurrera, buruarekin baino gehiago bihotzarekin, eta zaleen animuekin, aurrera egin zuten etxekoek garaipenaren bila. Baina, ez zuten aukerarik egin. Hori bai, Santurtziko aurrelari San Pedrok aukera izan zuen bigarrena egiteko.

OHOREZKO ERREGIONALA > BOSGARREN JARDUNALDIA

Amaiera arte sufritu zuen arren, Aloñak puntu garrantzitsuak lortu zituen

ALOÑA MENDI

2-1

TRINTXERPE

Aloña Mendi > Iñigo, Gorka, Endika, Roberto (Jon, 84. min.), Palacios (Mikel, 72. min.), Unai, Xabier (Aritz, 70.min.), Josu (Iñigo, 77. min.), Sanchez eta Iker.

Trintxerpe > Asier, Gorka, Iñigo, Raul, Arregi, David (Ore, 66. min.), Ibon, Urretabizkaia (Patri, 61. min.), *Pitu*, Telmo (*Katxa*, 58. min.) eta Agirre (Madariaga, 72. min.).

Epailea > Antoñana jauna izan zen epailea, eta Batista eta Seijas jaunak izan ziren marrazainak.

Aloñako jokalari Julen Juaristi baloiari begira. JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Epaileak partidu bukaera adierazi zuen arte sufritu zuen Aloñak Trintxerperi irabazteko. Baina puntuak ezinbestekoak ziren oñatiarrendako, eta ez zuten huts egin.

Lehen zatian, itxura eskasa erakutsi zuten bi taldeek. Gol aukera gutxi egin zituzten, eta jokoa ere txarra izan zen.

Bigarrenean, itxura hobetu zuen Aloñak, batez ere 51. minutuan Unai Arregik lehen gola egin ondoren. Abantailarekin, hobeto finkatu zituzten postuak etxekoek, eta zelai erdia menderatu zuen. Dena den, gogor borrokatu behar izan zuen, 83. minutuan Iñigo Arregik bigarren gola egin aurretik.

LUZAPENA, AMAIGABEA

Bi goleko abantailarekin partidua erabakita zegoela zirudien, baina Trintxerpeko jokalari Ibonek gola egin zuen 93. minutuan. Luzapena amaigabea egin zitzaien Aloñari eta zaleei, Trintxerpek aurrera egin zuen-eta. Baina ez zuten astirik izan bigarrena egiteko.

Partidu bukaeran, pozik zeuden oñatiarrak; batez ere, emaitzarekin. "Etxean jokatutako azken partiduan emandako itxura hobetu dugu, eta, gainera, irabazi egin dugu. Gustura gaude", esan zigun Josu Zubiak.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara erasoan eskas eta defentsan motel ibili zen

Mahoneroek 0-3 galdu zuen Vasconiaren kontra, hiru gol aukera garbi egin arren

M.B. > BERGARA

"Erasoan ez dugu golik egiten, aukera garbiak sortu arren, eta defentsan oso motel gabiltza, erritmo barik. Horrela ezin ditugu partiduak irabazi". Halaxe laburtu zigun zapatuko partidua Bergarako entrenatzaile Manu Diazek. Idiazabalen kontrako partiduaren antzera, gaizki jokatu zuten Agorrosinen. Vasconiaren kontra hiru gol aukera garbi egin arren, 0-3 galdu zuten.

JOKALARI BAT GUTXIAGOREKIN

Lehen zatian gol bat jaso ondoren, bigarrena gogotsu hasi zuten mahoneroek, baina, 55. minutuan Oregik bigarren txartel horia ikusi zuen, eta etxekoak hamarrekin geratu ziren. Handik aurrera, ezinean ibili ziren. Baloia ondo mugitu arren, azken metroetan oso motel ibili ziren.

OHOREZKO ERREGION.

Mondraren hutsetan, Oiartzunek golak

Gol aukera eta joko hobea egin arren, Oiartzunek irabazi zuen 1-2 Mojategin

M.B. > ARRASATE

Mondrak egin zituen gol aukera gehiago, eta hobeto jokatu zuen zapatuan Mojategin, baina defentsan egindako bi huts aprobetxatu zituen Oiartzunek partidua irabazteko. "Atzeko lerroan kontzentrazioa galtzen dugunean, golak egiten dizkigute. Oiartzunek aprobetxatu egin du", dio Andoni Azkargortak.

MONDRAK, GOL BAKARRA

Golak momentu erabakigarrietan egin zituen Oiartzunek: alegia, zati bakoitzeko bigarren minutuetan. Mondrak 0-2koarekin ez zuen amore eman bigarren zatian, baina, aukera garbiak egin arren, gol bakarra egin zuten. Andres Castillejo izan zen golegilea.

emaitzak eta sailkapenak

3. MAILA

Sailkapena

	Punt.	Jokat.
1. **Real Sociedad B**	**19**	8
2. **Beasain**	**18**	8
3. **Amorebieta**	**16**	8
4. **Gernika**	**15**	8
5. **Zalla**	**13**	8
6. **Basconia**	**13**	8
7. **Amurrio**	**12**	8
8. **Aretxabaleta**	**12**	8
9. **Zamudio**	**11**	8
10. **Arenas de Getxo ***	**11**	7
11. **Elgoibar**	**10**	8
12. **Durango**	**9**	8
13. **Laudio**	**9**	8
14. **Leioa ***	**8**	7
15. **Retuerto**	**8**	8
16. **Lagun Onak**	**6**	8
17. **Santurtzi**	**6**	8
18. **Portugalete**	**6**	8
19. **Retuerto Sport**	**6**	8
20. Eibar B	**4**	7

* Partidu bat gutxiago

Emaitzak

Amurrio-Zalla	1-2
Portugalete-Gernika	0-0
Retuerto-Eibar B	2-1
Amorebieta-Real Sociedad B	1-2
Salvatierra-Laudio	0-1
Zamudio-Durango	2-1
Aretxabaleta-Santurtzi	1-1
Basconia-Lagun Onak	3-2
Leioa-Arenas	bukatu barik
Elgoibar-Beasain	0-1

Hurrengoak

Laudio-**Aretxabaleta**	

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena

	Punt.	Jokat.
1. **Aurrera Ondar.**	**15**	5
2. **Pasajes**	**12**	5
3. **Idiazabal ***	**9**	4
4. **Berio**	**9**	5
5. **Zarautz**	**9**	5
6. **Hondarribia**	**8**	5
7. **Oiartzun**	**8**	5
8. **Aloña Mendi**	**7**	5
9. **Trintxerpe**	**7**	5
10. **Hernani**	**7**	5
11. **Ordizia**	**6**	5
12. **Euskalduna**	**5**	5
13. **Tolosa ***	**5**	4
14. **Vasconia**	**4**	5
15. **Mondra**	**4**	5
16. **Bergara**	**4**	5
17. **Real Union**	**2**	5
18. **Beti Gazte**	**1**	5

* Partidu bat gutxiago

Emaitzak

Beti Gazte-Aurrera	2-4
Berio-Euskalduna	2-1
Aloña Mendi-Trintxerpe	2-1
Bergara-Vasconia	0-3
Tolosa-Idiazabal	Atzo
Hondarribia-Zarautz	1-2
Pasajes-Ordizia	1-0
Real Union-Hernani	0-1
Mondra-Oiartzun	1-2

Hurrengoak

Hernani-**Mondra**	
Euskalduna-**Aloña Mendi**	
Trintxerpe-**Bergara**	

BESTELAKOAK

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta-Santurtzi	1-1

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Aloña Mendi-Trintxerpe	2-1
Bergara-Vasconia	0-3
Mondra-Oiartzun	1-2

ERREGIONAL PREFERENTEA

Zumaiako-Antzuola	3-0
Amaikak Bat-Aretxabaleta B	2-4

LEHEN ERREGIONALA

Gazteak-Bergara	2-0
UDA Arizmendi-Mondra B	0-1

GAZTEEN LIGA NAZIONALA

Aretxabaleta-Gasteizeko Aurrera	2-1

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Elgoibar-Mondra	2-1
Lazkao-Aloña Mendi	1-1

GAZTEEN LEHEN MAILA

Urki-Aretxabaleta B Arizmendi	2-4
Bergara-Amaikak Bat	0-2
Soraluze-Arizmendi	1-3

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Ondarruko Aurrera	2-1
Amaikak Bat-Aretxabaleta Arizmen.	0-2
Urola-Aloña Mendi	6-1

KADETE GIZONEZKOAK

Arizmendi-Aretxabaleta	1-6
Aloña Mendi-Bergara B	7-0
Eibartarrak-Arrasate	0-2

SENIOR AUTONOMIKOA >BIGARREN JARDUNALDIA

Aloña Mendik jipoi ederra eman zion liderrari

Bigarren laurdenaren hasieran 13-0ko partziala eginez bideratu zuen Askartzaren kontrako norgehiagoka

ALOÑA MENDI

84-55

ASKARTZA

Aloña Mendi > Ales (7), Jagoba (26), Ander (9), Mikel (10), Zabaleta (8), Eneko (3), Iban (3), Uribetxeberria (6), Biain (10) eta Ibai (2).

Askartza > Murua, Montero (13), Martinez, Jones (17), Rebollo (1), Vela (7), Gascon (7), Arbaiza (8), Gartzia, Iglesias eta Gonzalez (2).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 21-17. Bigarren laurdena: 47-30. Hirugarren laurdena: 71-37. Laugarren laurdena: 84-55.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Lehen jardunaldiko porrota ahaztuta, gogotsu irten ziren Aloña Mendiko jokalariak kantxara, eta jipoi ederra eman zioten Askartza liderrari. Harmailetan zeuden zaleen gozamenerako, talde joko ona egin zuten, baloia ondo mugituz, eta hiruko jaurtiketetan maisuak direla erakutsi zuten.

Lehen laurdena izan zen parekatuena. Bizkaitarrak hasi ziren markagailuan agintzen. Dena den, erasoan zailtasunak izan zituzten bi taldeek hasierako minutuetan. Lehen tartea bukatzeko bi minutu falta zirenean jarri zen Aloña aurretik lehen aldiz, 15-14. Orduan hasi ziren oñatiarrak partidua bideratzen.

Bigarren tartearen hasiera erabakigarria izan zen. Xabier Igartuaren taldeak 13-0ko partziala egin zuen lau minututan, eta 34-17 jarri zen aurretik. Askartzak lehen saskiratzea bosgarren minutuan egin zuen. Tentsioarekin eta indartsu jokatuz, etxekoak abantaila handitzen hasi ziren, eta atsedenera 17 puntuko abantailarekin heldu ziren, 47-30.

LAUGARREN LAURDEN ESKASA

Hirugarren laurdena hasi orduko partidua erabakita zegoen arren, entrenatzailearen aginduak jarraituz, gogor defendatu zuten eta erasoan jaurtiketa garbiak bilatu zituzten. Hirugarren tarteko lehen hiru jaurtiketak hiru puntukoak izan ziren (bi Jagobak eta bat Alesek). Bestalde, defentsan egindako lanari esker, Askartzak zazpi puntu bakarrik lortu zituen hirugarren tartean. Horregatik guztiagatik, azken tartearen hasieran 34 puntuko aldea zuten oñatiarrek.

Laugarren laurdena eskasa izan zen. Aloñako entrenatzaileak tentsio berberarekin jokatzeko esan zien arren, jokalariak asko lasaitu ziren. Lehen bi minutuetan ez zuten punturik lortu.

DESABANTAILA TXIKITU

Etxeko jokalarien lasaitasuna aprobetxatu zuen Askartzak desabantaila txikitzeko eta markagailua itxuratzeko. Azken tartean, Askartzak 16 puntu egin zituen, eta Aloñak, 12, baina garaipena etxean geratu zen.

Ander Mallabiabarrena, kakoz jaurtiketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

LEHENENGO MAILA

MUk ez zuen izan irabazteko aukerarik

Arrasatearrek 95-77 galdu zuten Urretxun Goierri Verkolen kontra

M.B. > ARRASATE

Partiduko erritmoa menderatu zuen arren, Mondragon Unibertsitateak ez zuen punturik lortu Goierri Verkol taldearen kontra. Urretxuarrek hobeto jokatu zuten bigarren eta laugarren laurdenetan, eta irabazi egin zuten: 95-77.

Lehen laurdenean, Goierri Verkol taldeko jokalari De Miguel izan zen onena, 20 punturekin. MUko Arantzabal izan zen jokalari bakarra hari aurre egiteko gai (12 puntu eta hiru berreskuratze).

Bigarren laurdenean, MUri indarra bukatu zitzaion, eta lehen zortzi minutuetan 17-2ko partziala jaso zuen, baina MUko entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen eta, 4-11ko partzialarekin, partiduan sartu ziren berriro ere.

INDAR BARIK LAUGARRENEAN

Hirugarren tartea parekatuena izan zen. MUko Xabier Anasagastik egindako lanari esker joko ona egin zuten arrasatearrek, eta desabantaila txikitzen hasi ziren. Baina unerik erabakigarrienean, laugarren tartean, indar barik geratu ziren berriro eta partiduak ihes egin zien.

GIPUZKOAKO LEHEN MAILA > 3. JARDUNALDIA

Talde beteranoaren kontra galdu zuen Soraluze BKEk

SORALUZE BKE

61-84

ALDE ZAHARRA

M.B. > BERGARA

Zarautzen jokatutako partiduan gertatu moduan Soraluze BKE nahi eta ezin ibili zen zapatuan Alde Zaharraren kontra. Donostiarrek, talde beteranoa dutela erakutsiz, lehen minututik jarri zuten partidua euren alde. 0-6, 5-14 eta 12-36 aurreratu ziren markagailuan. Mahoneroek jaurtiketa asko huts egin zituzten, eta batzuk, oso garbiak. Erreboteak hartuta, kontraerasoan irten ziren donostiarrak, eta abantaila hartu zuten markagailuan. Atsedenean 23-42 zeuden aurretik.

JOKALARI BETERANOAK

Hirugarren eta laugarren laurdenetan ezinka ibili ziren etxekoak. Dena den, desabantaila txikitzea lortu zuten eta 13 puntutara jarri ziren (33-46), baina Alde Zaharrak taldeko jokalariak fin ibili ziren, eta abantaila handitu egin zuten, azken emaitza lortu arte. Merezimendu osoz irabazi zuten. Mahoneroek, ostera, ez zuen partidua irabazteko aukerarik izan Labegaraietan.

Bergarako Alonso (14) eta Eraña (15), donostiarren jaurtiketa defendatzen. J.A.

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA	
Goierri Verkol-MU	95-77
SENIOR AUTONOMIKOA	
Aloña Mendi-Askartza	84-55
GIPUZKOAKO SENIORRAK	
Soraluze BKE-Alde Zaharra	61-84
GAZTE MUTILAK	
Urola-MU A	64-86
KADETE MUTILAK	
MU A-Internacional	81-42



Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn

Astelehenero 22:15ean.

Goitb Goiena Telebista Ikustekoa!

LEHEN TERRITORIALA > BIGARREN JARDUNALDIA

Azken bost minutuetan gol bakarra egin zuen Aloña Mendik eta galdu egin zuen

ALOÑA MENDI

22-24

EREINTZA

Aloña Mendi > Unai (1), Asier (9), Daniel, Jose (2), Jokin (2), Manu (1), Aitor, Ander (3), Mikel (1), Iker, Eneko, Ioritz (3), Andoni eta Hector.

Ereintza > Yerobi, Rivero, Martinez (1), Huete (3), Yantzi (4), Aguado (1), Goikoetxea (2), Garmendia (5), Otegi (2), Vazquez (2), Bergara (1), Escude (1) eta Rivera (2).

Golak bost minuturo > 1-2; 3-4; 7-5; 8-7; 9-10; 10-12; Atsedena. 12-13; 14-15; 17-16; 17-19; 21-22; 22-24.

Aloña Mendiko senior mailako jokalariak, entrenatzaileak eta ordezkariak. MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Minutu erabakigarrietan ez zuen asmatu Aloña Mendik, eta galdu egin zuen Ereintzaren kontra zapatuan Zubikoan.

Norgehiagoka bukatzeko bost minutu falta zirenean, 21-22 zegoen aurretik Ereintza. Hiru eraso izan zituen berdinketa lortzeko Aloñak, baina ez zuen asmatu. Errenteriako taldeak 23. gola egin zuen 27. minutuan. Esperantza galdu barik, ondo defendatu zuten oñatiarrek, baina kontraerasoan huts egin zuten. Gainera, Ereintzaren hurrengo erasoan Aloñako jokalari bat egotzi zuen epaileak. Hortaz, azken bi minutuetan, jokalari bat gutxiagorekin jokatu zuten oñatiarrek. Hala ere, denbora izan zuten 22. gola egiteko, baina Ereintzak 24.a egin eta partidua irabazi zuen.

DEFENTSAN, ONDO

Minutu erabakigarrietara berdinketarekin heldu aurretik, baina, bi taldeek abantaila izan zuten markagailuan: Aloña 8-5 jarri zen aurretik lehen zatian, eta Ereintza 12-15 zegoen aurretik bigarren zatiko 8. minutuan. Defentsan erasoan baino hobeto jokatu zuten biek. Gainera arazoak izan zituzten erasoan jaurtiketa garbiak topatzeko, eta atezainek lan ona egin zuten: lehen zatian Ereintzako Yerobik eta bigarrenean Aloñako Ugartek.

Baina inork ez zuen partidua menderatzen jakin izan, eta azken bost minutuetan erabaki zen.

> KADETEAK ETA GAZTEAK

Aloñaren Euskal Ligako bi taldeek galdu egin zuten Ermuan

Euskal Ligan diharduten Aloña Mendiren nesken kadete eta gazte mailetako bi taldeek galdu egin zuten zapatuan. Hain zuzen ere, Ermuan galdu zuten, Erroibide elkarteko taldeen kontra: kadeteek, 21-13, eta gazteek, 20-8.

Inaki Canterok eta Manu Garmendiak zuzentzen duten taldeek ez zuten irabazteko aukerarik izan bizkaitarren kontra. Ermuko taldeek maila hobea erakutsi zuten.

emaitzak

MAILAZ MAILA

GAZTE NESKAK, EUSKAL LIGA

Errotabarri-Verkol Aloña	20-8

KADETE NESKAK, EUSKAL LIGA

Errotabarri-Verkol Aloña	21-13

LEHEN TERRITORIAL

Aloña Mendi-Ereintza	22-24

KADETE MUTILAK

Ereintza-Soraluze BKE	27-25

Alberto Iñurrategi eta Mikel Zabaltza, japoniarren korridorean. GOIENKARIA

MENDIA > NATURGAS HORNBEIN 09 ESPEDIZIOA

Eguraldi txarraren erruz, amore eman behar izan dute

Gailurreko haize gogorren eta horiek eragin dezaketen hotz itzelaren ondorioz, espedizioa helburua bete barik bueltatuko da etxera

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Eguraldiak ez die utzi. Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabaltza Everest Hornbein korridoretik igo barik bueltatuko dira etxera. Eguraldi iragarpenek haize gogorrak, eta haize horiek eragindako hotz ikaragarriak aurreikusten zituzten gailurrean. Haizeokin –100 kilometro orduko ingurukoak, batez beste–, gorputzak zero azpitik 60 graduainoko hotza jasan beharko luke, eta maila horietan oso zaila da gorputzeko zenbait atal izoztu gabe mantentzea.

Espedizioak azken unera arte mantendu du eguraldia egonkortuko zen itxaropena, azken 18 urteotan zapaldu gabe egon den Hornbein korridoretik Everesteko gailurra zapaltzeko irrikaz. Lehenengoan ez zen posible izan, eta bigarren aukera baten zain egon dira, eguraldia noiz hobetuko. Baina iragarpenek aurreikusten duten bederatzi orduko *lasaitasuna* ez da nahikoa eurendako.

ZAILTASUNEZ JOSITAKO ABENTURA

Espedizioaren helburua Everest Hornbein korridoretik igotzea zen, estilo alpinoan –horrela bi mendizalek bakarrik igo dute–, sherpen laguntzarik, oxigenorik eta soka finkorik gabe. Oraingoan ez da posible izan.

JOSETXO ARANTZABAL

Indartsu itzuli da Arrasateko tenis kluba, gaztetxoenak hezitzeko

Arrasateko tenis klubak zapatuan egin zuen lehen entrenamendu saioa, urtetan zehar elkartea geldirik egon ostean. Orain arte tenis pista egokirik ez zutenez, Oñatin ibili dira jokatzen. Itzuleraren lehen saioan 20 lagun inguru batu ziren eta kirol horren inguruko oinarrizko teknikak ikasten ibili ziren. Klubaren asmoa da tenisa bultzatu eta herriko gaztetxoenak heztea, etorkizunean Euskal Herri mailan lehiatu daitezen. Astean lau entrenamendu saio egin gura dute; indartsu itzuli dira, beraz.

> KROSA

Izenematea zabalik Soraluze-Bergara proban parte hartzeko

Zabalik dago Antxintxika Triatloi taldeak antolatzen duen Soraluze-Bergara kroserako izenematea. Urriaren 31n jokatuko da. Aurten, bost urte beteko ditu Olatz Rementeria memorialak Komeni da izena lehenago ematea, irteerako jende andana ekiditeko. Gainera, egunean bertan izena emanez gero, bost euro gehiago ordaindu beharko dira; hortaz, aurrez, 10 euro; eta egunean bertan, 15 euro da.

> FUTBOLA

Datorren jardunaldian jarriko da martxan 'Bederatzitik sei' porra

Datorren jardunaldian hasiko da Mondra *Bederatzitik sei* porrarekin. Futbol jardunaldiari saltsa apur bat jartzea da ekimen berriaren helburua.

Mondrako ordezkariek euskal talde nagusiak aukeratu dituzte, eta haiekin batera, ibarreko ordezkariak ere hartu dituzte kontutan, hirugarren mailakoak eta ohorezko erregionalekoak. Apustu bakoitza euro baten truke egin daiteke.

Argandoña donostiarra eta Etxagibel arrasatearra, egubakoitzean. JOSU TORNAY

XAKEA > IX. ARRASATE HIRIA

Maisu handia hasi barik, gureak ezustekoa ematen

Gaur jokatuko du txapelketa irabazteko faborito den Holden Hernandez kubatarrak; orain arte, faboritoek kostata irabazi dute

J.B. > ARRASATE

Joan den egubakoitzean hasi zen IX. Arrasate Hiria xake txapelketa. Txapelketan 34 xakelari ari dira parte hartzen. Faborito nagusia, Holden Hernandez kubatarra, gaur lehiatuko da Altamirako egoitzan, 16:30ean.

Xake zaleen artean, txapelketak ikusmina piztu du. Izan ere, puntako bi jokalari izango dira txapelketan: lehen aipatutako Holden Hernandez kubatarra eta iaz txapela eroan zuen Alejandro Franco madrildarra. Biak dira profesionalak. Hala, antolatzaileek diotenez, orain arteko txapelketarik "gogorrena eta puntakoena" izango da. Hori, diote, "bederatzi urteko lanaren emaitza" da.

EZUSTEKOA, ETXEKOEN ESKUTIK

Lehen jardunaldian, 15 partida jokatu ziren. Antolatzaileek jakinarazi dute faboritoak izan zirela nagusi. Hori bai, "kostata eta partida luze eta borrokatuak" jokatuta irabazi zuten. Faboritoak nagusitu arren, izan ziren ezustekoak. Eta horietan, arrasatearrak izan ziren protagonista. 15 urte dituen Juan Manuel Ruizek berdindu egin zuen rankingean zazpigarren lekuan dagoen Andoni Migelekin. Ruiz eta Asier Etxagibel dira Arrasateko taldearen harribitxiak. Gaztetxoen mailan Euskal Herriko txapeldunak izandakoak dira.

Gainera, klubeko beteranoa den Eugenio de Andresek rankingean zortzigarren postuan dagoen Juan Manuel Salinero menderatu zuen; eta azkenik, Iban San Jose arrasatearrak –rankingean azkenetarikoa da– berdinketa lortu zuen Egoitz Irure azpeitiarraren aurrean. Rankingari dagokionez, onena den Josu Tornay arrasatearrak ez zuen kale egin; "oso luzea" izan zen norgehiagokaren ondoren, irabazi egin zuen Oskar Sanabriaren aurka.

Itsaso Egaña > Eskubaloi jokalaria

"Taldearen helburu nagusia, iaz bezala, Ohorezko mailara igotzea izango da"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Bigarren urtez jarraian jokatuko du Itsaso Egañak (Oñati, 1982) Tarragonako Handbol Amposta taldean. Gustura dago Tarragona aldean; gainera, aurten taldeko lidergoa hartuko du oñatiarrak. Beste beteranoekin batera gazteen ardura izango du Egañak.

Itsaso Egaña, Handbol Amposta taldeko kamisetarekin. GOIENKARIA

Oraingoz, beste urte betez jarraituko duzu Tarragonako taldean.

Bai, hala da. Aurtengoa bigarren urte izango dut Handbol Amposta taldean.

Lehenengo nazional mailan dagoen taldea da Amposta. Iazko taldearekin alderatuta, jokalari garrantzitsu bi joan zaizkigu; hortaz, taldea zerbait ahulagoa dela esan daiteke.

Zein izango da zure lana taldean; ze ardura izango duzu?

Esan bezala, aurten talde gaztea izango dugu; hortaz, nire lana gazte horiei erakustea eta laguntzea izango da. Gainera, erantzukizuna hartu eta taldea mailaz igotzeko ardura ere izango dut.

Esan daiteke taldeko beteranoetakoa zarela?

Bai, hori da. Beste jokalari batzuekin batera taldeko beteranoa naizela esan daiteke. Aurten gazte asko igo dira lehenengo taldera, eta eurei laguntzea izango da gure lana, besteak beste.

Aurtengoa bigarren urtea da Tarragonan. Gogorra izango da etxetik kanpo joan beharra. Nola hartu zaituzte taldekideek?

Egia esan, oso harrera ona egin zidaten eta konfiantza osoa jarri zuten nigan bai jokalariek eta baita entrenatzaileak ere. Alde horretatik ez dut arazorik izan.

Gainera, ez da lehenengo aldia kanpoko talde baten jokatzen duzula. Azaldu egiguzu zure ibilbidea.

Eskubaloian Aloña Mendin hasi nintzen; gero, Donostiako Bera Bera taldera joan nintzen. Handik Granadara joan nintzen; Granadan bi urte egin ondoren berriro ere Bera-Berara itzuli nintzen; eta, gero Santanderrera. Santanderretik Tarragonara etorri nintzen iaz eta aurten hemen jarraitzen dut.

Orain arte jokatu izan dudan talde guztiak Ohorezko mailako taldeak izan dira; Tarragonakoa, ostera, Lehenengo mailakoa da –maila bat beherago.

Zein izango da zuen helburua aurtengo denboraldian?

Lehen esan bezala, helburua mailaz igotzea izango da. Iaz ere helburu bera geneukan; baina, aurten, zailagoa izango da, jokalari garrantzitsuak joan zaizkigulako. Ligan aurrera goazela taldeak konfiantza hartuko du eta emaitzak orduan ikusiko dira. Uste dut emaitza onak izango ditugula; baina, agian, ez iazkoak bestekoak.

Ezberdintasun handia dago Bera-Bera bezalako talde handi bat eta orain zauden taldearen artean?

Bai, entrenamenduen errimoari dagokionez, adibidez, oso ezberdina da. Bestalde, elkartearen egitura bera ere ezberdina da: fisioterapeutak, medikuak... hori guztia hemen ez daukagu; bai, ordea, Bera-Beran.

Dagoeneko taldeko beteranoa zara. Noiz arte duzu eskubaloian jarraitzeko asmoa?

Ez dut pentsatu, baina gorputzak ahal duen bitartean... Egia da, beste gauza batzuetan pentsatzen hasi naizela dagoeneko. Adibidez, lana egiteko gogoz nago; izan ere, guk ez dugu kotizatzen eta aurrera begira jarrita, beharrezkoa ikusten dut hori. Hortaz, jokatzen jarraitzea gustatuko litzaidake, baina baita lan bat aurkitzea ere.

Ez dakit, agian datorren urtean utziko dut eskubaloia; edo, baliteke hemendik bost urtera izatea.

Eskubaloiaz bizitzea zaila da hortaz?

Eskubaloian, nesketan, hori ezinezkoa da. Gainera, gaur egungo egoeran oso zaila da. Bera-Beran jokatzen nuenean %10a kotizatzen genuen, baina gaur egun uste dut ez dela horrela izango.

Orain arteko zure ibilbidean ezagutu dituzun entrenatzaileen artean zein aipatuko zenuke?

Uste dut, Reyes Karrere oso entrenatzaile ona izan dela. Asko ikasi dut haren ondoan, eta Reyesekin ikasitakoak oraindik ere erabiltzen ditut. Adibidez, nik talde gaztea entrenatzen dut eta Reyesekin ikasitako teknikak erabiltzen ditut entrenamenduetan. Taktika eta teknika azpimarratuko nuke Reyesengatik. Bestalde, konfiantza eman didaten entrenatzaileak Granadako Isabel eta Santanderreko Santi Abascal izan dira.

Zaila da norberak bere burua epaitzea, baina zeintzuk dira zure ustez zure alde onak eta alde txarrak kantxa barruan?

Ez dakit egokiena naizen horrelakoak esateko, baina alde ona abiadura dela esango nuke eta jokaldiak ikusteko daukadan gaitasuna. Bestalde, niri gustatzen zait taldean giro ona izatea; hortaz, saiatzen naiz ahal den neurrian guztiekin giro ona izaten, eta umorea jartzen taldean. Azken finean, jendea ez baldin badago gustura ni ere ez naiz gustura egoten. Horregatik, giro ona ezinbestekoa da.

Alde txarrak dira, presio larregi jartzen diodala batzutan nire buruari eta batzutan jenio asko izaten dudala.

Eskubaloiaz jokatzeaz gain, ikasketak ere egin dituzu. Gustatuko litzaizuke biak uztartzea?

Bai, irakasle ikasketak egin ditut; Heziketa Fisikoa eta Lehen Hezkuntza. Nire burua irakasle bezala ikusten dut, hori da behintzat gustatuko litzaidakeena. Esan behar da, gaur egun, beheko mailako taldeak entrenatzen ditudala.

Hasi berri duzue liga, joan den astean, hain zuzen. Zelako hasiera eman diozue?

Joan den zapatuan hasi genuen liga. Bartzelonako talde baten aurka jokatu genuen euren etxean eta sei goleko aldearekin irabazi genuen. Esan behar da oso hasiera ona eman diogula ligari; orain, etxeko partidua irabaztera atera behar dugu.

"Taldeko beteranoen ardura izango da taldeko gazteei erakutsi eta laguntzea"

"Reyes Karrerekin ikasitakoak gaur egun oraindik ere erabiltzen ditu"

"Nire burua irakasle bezala ikusten du, hori da behintzat gustuko dudana"

"Lehenengo partidua irabazita hasiera ona eman diogu aurtengo ligari"

ELIKADURA > GOMENDIOAK

Umeen elikadura ez ezik, eurena ere zaindu behar dute txikien gurasoek

Gurasoek ere egunean zenbat aldiz jan behar duten, zer, aste guztiko balizko menu bat eta errazioei inguruko azalpenak idatzi ditu dietista oñatiarrak

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak gurasoen elikaduraz idatzi du Guraso.com atariko kolaborazioen tartean. Umeen elikadurari ez ezik, gurasoenari ere garrantzia ematen dio Diaz de Monasteriogurenek, eta eurendako aholkuak jaso ditu bere azken artikuluan.

BAZKARI ETA AFARIAK

Lehenengo platera, bigarrena eta postrea sartzen ditu dietista oñatiarrak gurasoen menuan, bai bazkaltzeko baita afaltzeko ere. "Adibidez, bazkaltzeko: lehenengo platera: barazkiak (egosiak, kremak edo zopak) edo entsaladak, patata apur batekin. Bigarren platera: eltzekariak edo arraina edo haragi zuria, barazki edo entsaladarekin. Lehenengo plateran patata ez badugu sartu, bigarrenean, jan dezakegu. Astean birritan pasta edo arroza ere jan dezakegu, oilasko edo arrainarekin nahastuta. Postrea: fruta edo jogurta. Afaltzeko, berriz: lehenengo platera, barazkiak (egosiak, kremak edo zopak) edo entsaladak, patata apur batekin. Bigarrena: arraina edo arrautza barazkiekin edo entsaladarekin. Noizean behin frijitu bat ere bai. Eta postrea: fruta edo jogurta", idatzi du Amaia Diaz de Monasteriogurenek.

Aholku horrez gain, aste guztiko menu posible bat ere jaso du taula baten, eta janari bakoitzetik hartu behar diren errazioen kopuruak eta azalpenak ere jaso ditu elikadurari buruzko aditu oñatiarrak.

Zurezko mahai-tresnak. BARRENETXEA

Umeek hitz egiten zela ikasten duten ikertu du aditu batek. ZELAIXETAN

HEZKUNTZA > UMEAK

Haurren hizkerari erreparatutako ondorioak

Onomatopeiak ere errepikapenak daude, adibidez, umeekin hitz egiteko dugun hizkeran

O.E. > ARRASATE

Haurren hizkeran erreparatutako ondorio batzuk jaso ditu artikulu baten Joseba Aurkenereak. Bere esanetan, kode berezia erabiltzen dugu haurrekin hitz egiteko, eta hitz horien doinua, helduen kodean erabiltzen ditugunak baino gozoagoak dira. "Kakofoniak (txalo-txalo, apapa, papo ...), onomatopeiak (plixti-plaxta, ñañan ...), bustidurak (aitta, maittia ...) eta atzizki txikigarriak (Josetxo, sudurtxo...) erabiltzen ditugu maiz. Eta horrelaxe ateratzen zaizkigu, gainera. Gure umeak txikiak zirenean, gure nagusiek gurekin erabiltzen zituzten hitzak hasi nintzen erabiltzen, eta horretaz konturatu nintzenean hasi nintzen hitzak batzen eta sailkatzen", dio Joseba Aurkenereak.

Haur hizkerari buruz oso iritzi kontrajarriak daude. Batzuek uste dute ez dela kode hori erabili behar, eta baietz besteek, "nik baietz uste dut", dio berak.

NERABEAK > JARDUNALDIAK

Nerabeak eta krisialdiaren topaketak

Homofobia, xenofobia eta droga kontsumoa eztabaidatuko dute adituek Portugaleten

O.E. > ARRASATE

Nerabeak krisialdian izeneko jardunaldiak antolatu ditu Portugaleteko Udalak urriaren 21, 22 eta 23rako. Helburua da hausnarketa egitea neska-mutilek aurrean dituzten erronkei buruz, krisialdi handian daudela. Horretarako, jorratuko dituzten gai nagusiak hiru dira: berdintasuna neska-mutilen bizimodu afektibo eta sexualean, elkarbizitza, parte-hartzea eta herritar kultura eta azkenik, droga eta beste hainbat kontsumo arriskutsu. Irakasleek, ongizate teknikariek eta soziologoek hartuko dute partea, besteak beste.

Gazteak izango deira hizpide. YO, ADOLESCENTE

> IKASTAROA

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa dago Arrasaten

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa antolatu du beste behin Arrasateko Emakume Txokoak. "Joan den urtean hasi ginen, eta hiru hilabetero bi talde izaten ditugu. Ikastaro praktikoa eta baliagarria da, eta jendeak ikusi du hori", dio Esther Lizarraldek, Emakume Txokoko dinamizatzaileak. Adin guztietako emakumeendako da.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
zatoz gure webgunera
guraso.com

> PUNK ROCKA
SS-Kaliert, Overdose TV eta Material Rechazadok, gustuko kontzertua > 30

> ORFEOIA ETA ORGANOA
Musika sakratu emanaldi bikaina egin zuten San Pedro parrokian > 31

> ANTZERKIA ARKUPEN
Psikologian oinarritutako umorezko antzezlanak arrakasta izan zuen > 32

Laino guztien azpitik, jauzi ederrak egin zituzten skaterrek

SKATE PARKEA
Maila bateko zein besteko skaterrendako dago egokituta parkea

ZALEAK, POZIK
Zaletasun handia dago ibarrean eta skaterrak gustura azaldu dira

MAIDER ARREGI > ESKORIATZA

Gozatu ederra hartu zuten Debagoieneko gazte askok zapatu arratsaldean. Eskoriatzako skate parke berriak astindu ederra hartu zuen; izan ere, patinekin edo skateaz jo eta sua aritu ziren. Batek baino gehiagok kolperen bat ere hartu zuela onartu zigun, baina halaxe ikasten dela eta oso gustura daudela ere azpimarratu ziguten.

Inaugurazio ofizialerako, animatzen ziren guztiendako txapelketa antolatu zuen Eskoriatzako Udaleko Gazteria Sailak. Bi txapelketa egin ziren: bat, 14 urtetik gorakoendako, eta beste bat, 14 urtetik beherakoendako. Txapelketako skater onenendako skaterako materiala Arrasateko Nothing Without dendak eta Jart etxeak banatu zuten.

Ibarreko gaztetxo asko gerturatu ziren zapatu arratsaldean Eskoriatzan estreinatu berri duten skate parkera. MAIDER ARREGI

MAILA GUZTIETARA EGOKITUTA

Aspaldidanik zegoen skate parkea egiteko eskaria. Hala, Eskoriatzako zaleek eta Bergarako Piorails enpresak elkarlanean egin dute parkea. Piorails enpresa skate zaleek osatzen dute.

Ibai Lopezek, beste bi lagunekin batera, parkearen diseinua egin du. Lopezen arabera, hasiberriendako ere badago tokia. "Diseinua egiterakoan hasiberriendako modulu pare bat jarri ditugu; maila ertaina eta altua dutenendako, berriz, aldapa malkartsuak. Skaterren bideoetan oinarritu gara diseinua egiterakoan. Burdina erabili dugu eta gainekalderako egur berezi bat".

BALORAZIO POSITIBOA

Pedro Lasagabaster, Eskoriatzako alkatea, eta Maider Etxaniz, Gazteria teknikaria, gustura azaldu ziren. Ibarreko gaztetxoak pozik ikusi zituzten eta skate parkeari erabilera bikaina emateko ilusioz zeudela azaldu zigun Etxanizek: "Orain artean, behintzat, itxura polita dauka. Kanpotik ere etorri dira eta pozik gaude. Espero dugu jendea etortzea eta zaletasuna handitzea, baina aurrera begira ikusi beharko dugu ze erabilera ematen zaion".

Bestalde, hilaren 16an, Bergarako Laino skate parkea zabalduko dute. Laino Estatuko lehen parke estalia izango da.

DEBAGOIENEKO SKATERRAK

Jokin eta Daniel
Arrasateko skaterrak

"Asko gustatu zaigu Eskoriatzako parkea. Hiru bat urte daramatzagu skatea praktikatzen eta Arrasatetik Eskoriatzara etorri gara, lagunek gomendatuta".

Beñat eta Ander
Eskoriatzako skaterrak

"Gu batzuetan ibiltzen gara patinekin, baina gaur ikusle moduan etorri gara. Dena den, laster probatuko dugu parkea, asko gustatu zaigu eta".

Julen, Aritz eta Ekaitz
Eskoriatzako skaterrak

"Parkea probatu dugu eta kolperen bat edo beste ere hartu dugu dagoeneko. Beharra zegoen Eskoriatzan gazteak entretenitzeko eta lagunak egiteko".

Asier eta Kerman
Aretxabaletako skaterrak

"Txapelketan parte hartu eta izerdia bota dugu. Oso gustura ibili gara Eskoriatzako parkean. Oraindik ikasten ari gara, urtebete daramagu eta skater bezala".

Marta, Maider eta Irati
Eskoriatzarrak, ikusle moduan

"Guk oraindik ez gara horrelako parke batean ibili baina, horrelako aukera izanda, seguru probatuko dugula skate parkea. Gainera, gustuko mutilak ere badaude".

Frantziako Overdose TV hirukoteak txalotzeko moduko jarrera erakutsi zuen ia ikuslerik ez zegoen emanaldian; behin eta berriz saiatu ziren publikoarekin bat egiten. JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA > OVERDOSE TV, MATERIAL RECHAZADO ETA SS KALIERT, KONTZERTUAN

Ikusle gutxi, baina izerdi faltarik ez

NON: Arrasateko Hiru aretoan.
EGUNA: Zapatua, urriak 10.
ESTILOA: Punk-rock eta hardcore.
IRAUPENA: Hiru ordu pasatxo.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Rockaren arau sakratuari men eginez, ordu beteko atzerapenarekin hasi ziren kontzertuak. Hiru aretoa hutsik zegoela hasi zen Frantziako Overdose TV taldea. Ordu bete inguru iraun zuen emanaldian, punk gogorra eskaini zuten. Euren kantu gehienak ingelesez abestu zituzten, baina baxu-jolea Andaluzian jaiotakoa da, eta beraz, espainola ere erabiltzen dute euren abestietan. Emanaldiko unerik gorena Eskorburtoren *Adios, reina mia* jo zutenean heldu zen. Santurtziko hirukotearen kantu mitikoa euren diskoan sartu du talde frantziarrak. Eta baxu-joleak jakinarazi zuenez, denbora dezente zeramaten zuzenean jo barik. Ia ikusle barik ere, dena eman zuten; txalotzeko moduko jarrera.

ETXEKOAK, GAUEKO ONENAK

Material Rechazado izan zen taulara igotzen bigarrena. Orduan bildu zen jende gehien Hiru aretoan. Hala ere, ezin da esan kontzertua arrakastatsua izan zenik, ezta gutxiago ere. Ikusle gutxi izan arren, indartsu irten zen seikote arrasatearra. Euren diskoko kantuekin, izoztear zegoen giroa berotzea lortu zuten, eta taldearen bereizgarri den *Carceles de asfalto* abestian hainbat lagun igo ziren agertokira.

Bertsioak, noski, ez ziren falta izan: besteak beste, Bouncing Souls-en *True Believers* eta Eskorbutoren *Maldito pais* eta *Paz, primero la guerra*. Nabaritu zen Material Rechazado etxean zegoela, eta jo eta ke aritu ziren ordu eta laurden iraun zuen emanaldian. Gaueko onenak izan ziren, zalantza barik.

SS Kaliert alemaniarrak izan ziren igotzen azkenak. Duela bi urte gaztetxean jo zuten eta, aldi hartan moduan, garrasi oldarkorrak eta erritmo azkarrak izan ziren nagusi. Hau da, punka hardcore ukitu nabariekin. Edozelan ere, ziur ez dutela zapatuko emanaldia euren ibilbideko kontzertu onena moduan gogoratuko...

KRONIKA > EUSKAL HERRIKO 33. DANTZA TXAPELKETA

Ena eta Lazkano, txapeldun

NON: Segurako Baratze pilotalekuan.
EGUNA: Domeka, urriak 11.
ZENBAT JENDE: 500 lagun inguru.
IRAUPENA: Ordu eta erdi inguru.

J.B. > SEGURA

Ez zen ezustekorik izan: Aitzol Ena eta Maite Lazkano bikote bergararra faborito zen Euskal Herriko dantza txapelketa irabazteko, eta, saio bikain baten ostean, merezita irabazi zuten. Bigarren lekuan, Hernaniko Xabier Segurak eta Lierni Martiarenak osatutako bikotea geratu zen, eta hirugarren lekuan, Lezoko Iker Sanzek eta Pasaiako Idoia Besalak amaitu zuten.

Segurako Baratze pilotalekua jendez lepo egon zen, txapelketak pizten duen ikusminaren seinale. Ordu erdiko atzerapenarekin hasi zen, arazo teknikoengatik.

OMENALDIA SARIAREN EGILEARI

Azken zazpi urteetan garaikurraren egile izan den Nestor Basterretxeari omenaldia egin zioten. Izan ere, Basterretxeak musu truk egin izan du eskultura, eta antolatzaileek euren esker ona erakutsi gura izan zioten. Basterretxeak berak eman zien saria Ena eta Lazkanori. Bejondeiola bikote bergararrari!

Bestalde, aldaketak izan ziren aurtengo txapelketan. Orain arte San Joan jaien bueltan egiten zen txapelketa, baina aurten udazkenean egitea erabaki zuten, ekain amaieran dantzariek izaten dituzten ikasketa konpromisoengatik. Ez zen hori, baina, aldaketa bakarra izan; neska bikote batek hartu zuen parte lehenengoz: Azaitz Unanuek eta Aizkoa Medinabeitiak osatutako bikoteak, hain zuzen.

Maite Lazkano eta Aitzol Ena pozik, garaikurra eskuan dutela. GOIENKARIA

KRONIKA > ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOKO EMANALDIA

San Pedroko organoak distira egin zuen

NON: Bergarako San Pedro parrokian.
EGUNA: Zapatua, urriak 10.
ZENBAT JENDE: Eliza bete egin zen.
IRAUPENA: Ordu eta laurden inguru.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Oso gustura eta gehiago entzuteko gogoz, horrela utzi zituzten Donostiako Orfeoiak, Jose Antonio Sainz Alfarok zuzenduta, eta Gerardo Rifon organo-joleak zapatu iluntzean Bergarako San Pedro parrokia goraino (jende askok zutik jarraitu behar izan zuen emanaldia) bete zuten entzuleak. Ahots bikainek izan zuten protagonismo handiena, baina beharbada gaueko txalo bereziena Gerardo Rifon donostiarrak eta San Pedroko organoak merezi zuten; han organo kontzertuak sarri entzuten dutenek igarriko zuten instrumentua inoiz baino gozatuago dagoela. Rifonek doinu dotoreenak atera zizkion maisuki.

Hainbat aldeko faktore zituen Donostiako Orfeoiak: hasteko, ahotsen kalitate ukaezina eta emakume eta gizonezkoen ahotsen arteko oreka; gero, errepertorioa, musika sakratuaren barruan oso ezaguna eta entzuleen gustukoa izaten dena.

Gerardo Rifon organo-jolea eta organo-jole laguntzailea, zapatuko emanaldia hasteko gertu. JOSETXO ARANTZABAL

KLASIKOAK ETA MODERNOAK

Eta gustukoa izan zen, bai horixe, errepertorioa eta, oro har, emanaldi osoa. Aita Madina, Bach, Mozart, Mendelssohn, Haendel… bezalako konposatzaile klasikoen musika sakratuko pieza ezagunak ziren; konposatzaile modernoagoen lan pare batekin, baina horiek ere, apustu ziurrak (Javier Bustoren *Ave Maria* orfeoien pieza jokatuena da emanaldietan, mundu osoan) eta Andrew Lloyd Weberren *Pie Jesu*, Ana Salaberria sopranoak eta Raquel Lizartza mezzosopranoak egoki abestua, Iñaki Goñi tenoreak gero Jose Uruñuelaren *Maitia nun zira* bezala.

Kontzertuak Bergarako Orfeoiaren antzeko emanaldien arratsaldeak gogora ekarri zituen. Errepertoriotik kanpo, *Agur Jaunak* abestu zuten; propina txikiegia.

INOIZ BAINO FINAGO

Gerardo Rifon Donostiako Orfeoiaren ohiko laguna da emanaldietan, eta zapatukoan ere primeran moldatu zitzaion bata besteari. Organo doinuak ahotsek zertxobait estalita geratu ziren, baina, azken baten, organoa da ziklo honetako protagonista, eta protagonismo hori bere egin zuen Bergarakoak zapatuan.

Batetik, Rifon punta-puntako interpretea da, eta, bestetik, San Pedro parrokiako musika-tresna ere pareko mailan dago azkenaldian. Horretan zeresan handia du Aitor Olea organo-jole eta organo-irakaslearen etengabeko lanak; izan ere, San Pedroko organoa askoz gehiago jotzen da orain, eta instrumentuak igartzen du, zapatuan bistan geratu zen moduan.

KRONIKA > ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOKO EMANALDIA

San Pedroko organoak distiratu egin zuen

NON: Bergarako San Pedro parrokian.
EGUNA: Zapatua, urriak 10.
ZENBAT JENDE: Eliza bete egin zen.
IRAUPENA: Ordu eta laurden inguru.

Gerardo Rifon organo-jolea eta organo-jole laguntzailea, zapatuko emanaldia hasteko gertu. JOSETXO ARANTZABAL

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Oso gustura eta gehiago entzuteko gogoz, horrela utzi zituzten Donostiako Orfeoiak, Jose Antonio Sainz Alfarok zuzenduta, eta Gerardo Rifon organo-joleak zapatu iluntzean Bergarako San Pedro parrokia goraino (jende askok zutik jarraitu behar izan zuen emanaldia) bete zuten entzuleak. Ahots bikainek izan zuten protagonismo handiena, baina beharbada gaueko txalo bereziena Gerardo Rifon donostiarrak eta San Pedroko organoak merezi zuten; han organo kontzertuak sarri entzuten dutenek igarriko zuten instrumentua inoiz baino gozatuago dagoela. Rifonek doinu dotoreenak atera zizkion maisuki.

Hainbat aldeko faktore zituen Donostiako Orfeoiak: hasteko, ahotsen kalitate ukaezina eta emakume eta gizonezkoen ahotsen arteko oreka; gero, errepertorioa, musika sakratuaren barruan oso ezaguna eta entzuleen gustukoa izaten dena.

KLASIKOAK ETA MODERNOAK

Eta gustukoa izan zen, bai horixe, errepertorioa eta, oro har, emanaldi osoa. Aita Madina, Bach, Mozart, Mendelssohn, Haendel… bezalako konposatzaile klasikoen musika sakratuko pieza ezagunak ziren; konposatzaile modernoagoen lan pare batekin, baina horiek ere, apustu ziurrak (Javier Bustoren *Ave Maria* orfeoien pieza jokatuena da emanaldietan, mundu osoan) eta Andrew Lloyd Weberren *Pie Jesu*, Ana Salaberria sopranoak eta Raquel Lizartza mezzosopranoak egoki abestua, Iñaki Goñi tenoreak gero Jose Uruñuelaren *Maitia nun zira* bezala.

Kontzertuak Bergarako Orfeoiaren antzeko emanaldien arratsaldeak gogora ekarri zituen. Errepertoriotik kanpo, *Agur Jaunak* abestu zuten; propina txikiegia.

INOIZ BAINO FINAGO

Gerardo Rifon Donostiako Orfeoiaren ohiko laguna da emanaldietan, eta zapatukoan ere primeran moldatu zitzaion bata besteari. Organo doinuak ahotsek zertxobait estalita geratu ziren, baina, azken baten, organoa da ziklo honetako protagonista, eta protagonismo hori bere egin zuen Bergarakoak zapatuan.

Batetik, Rifon punta-puntako interpretea da, eta, bestetik, San Pedro parrokiako musika-tresna ere pareko mailan dago azkenaldian. Horretan zeresan handia du Aitor Olea organo-jole eta organo-irakaslearen etengabeko lanak; izan ere, San Pedroko organoa askoz gehiago jotzen da orain, eta

KRONIKA > 'NI NAIZ HECTOR, NI BAKARRIK!' ANTZEZLANA

Gure beste niak ulertzeko antzezlana

Nagore Aranburu, Aitor Beltran eta Asier Zinkunegi aktoreak, antzezlaneko pasarte batean. JOSETXO ARANTZABAL

NON: Aretxabaletako Arkupe aretoan.
EGUNA: Zapatua, urriak 10.
GENEROA: Komedia.
IRAUPENA: Ordu eta erdi.

MAIDER ARREGI > ARETXABALETA

Nagore Aranburu, Aitor Beltran, Teresa Calo, Iñaki Urrutia eta Asier Zinkunegi eskarmentu handiko aktoreak dira, eta badakite publikoa nola sartu poltsikoan. Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan, txalo zaparrada bat baino gehiago jaso zuten eta ikuslearekiko *feeling*-a nabarmen geratu zen. Zaila da barrea eragitea, baina aktoreok badakite nola lortu: ironia, hiperbolea eta umorea maisuki erabiliz.

Gidoi landu batekin eta gertutasuna azaltzen duten gaiekin batera, Zaraian zeuden asko identifikatuta sentituko ziren, seguruenez. Erreprimitutako desioa, suizidioa, maitasun platonikoa, psikiatrarengana joateko beldurra, segurtasun falta, harremanak… eguneroko gaiak landu ditu Jokin Oregi zuzendariak.

Ikusleari negar eginaraztea barre eginaraztea baino errazagoa dela esan ohi da. Izan ere, tragedia batekin erraz egin daiteke negar. Baina komedia batekin agian ez da horren erraza barrea eragitea. Kanpingagsen *Ni naiz Hector, ni bakarrik!* antzezlanak badauka formula barrea eragiteko. Umore sinpleaz aldentzen da eta ikusleari zer pentsatu ematen dio. Halaxe lortu zuen barre algarak eta txaloak Zaraia aretoan Jokin Oregi zuzendariaren lanak.

KOMEDIA ETA HIPERBOLEA

Protagonista nagusia Hector da, 30 urteko ezkongabea. Hectorrek arazo bat dauka, izan ere, orain dela urte batzuk, bere buruaren barrenean, bi ahots entzuten hasi zen. Ahotsak bi nortasun desberdin bilakatuko dira: bata, adar jotzailea, eta bestea, nortasun ilunekoa.

Eromen horri amaiera emateko, psikologoarengana joateko erabakia hartzen du Hectorrek, eta, hala, bere beldurrei aurre egin. Baina, ez du edozein psikologo hautatzen: txikitatik maiteminduta daukan neskarengana joaten da laguntza eskatzera.

Antzezlana dinamikoa eta azkarra da, eta, aretotik irten ostean, buruari bueltak ematera eragiten duen horietakoa. Esaldi borobilez betetako gidoiaz baliatzen da Oregi. Besteak beste, honelako esaldi zorrotzez eta gordinez betetakoa: "Beldurrez dagoen jendea, buztin puska bat bezala, erabilgarria da".

Ordu eta erdiko iraupena daukan antzezlanak sorpresatxo bat ere badakar bukaera aldean: Hectorren izaera antzezten duten hiru aktoreek ironiaz eta umorez betetako abestia eskaintzen die ikusleen belarriei. *Ni naiz Hector, ni bakarrik!* Eszena horrexek, hain zuzen ere, ikuslearen txalo zaparrada eta barre algara nagusienak jasotzen ditu.

KRONIKA > EUSKAL HERRIKO BERTSO TXAPELKETA

Agirreazaldegi, bigarren

NON: Leitzan.
EGUNA: Zapatua, urriak 10.
GAIA: Euskal Herriko Bertso Txapelketako final laurdena

IRATI AGIRREAZALDEGI/ MAIDER ARREGI > LEITZA

Ainhoa Agirreazaldegi elgetarrak bigarren postua eskuratu zuen zapatuan Leitzan jokatu zen Euskal Herriko Bertsolaritza txapelketako final laurdenean. Saio txukuna eginda, 634 puntu lortu zituen. Lehena Etxahun Lekue izan zen, 643 punturekin. Hala, Bergarako finalerdian izango da datorren azaroaren 7an.

Taula gainean lehenengo kantatu zuen Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariak. Harekin batera jardun zuten Ibon Ajuriak, Etxahun Lekuek, Iñigo Olaetxeak, Xabier Sukiak eta Iñigo Mantzisidor *Mantxik*. Agirreazaldegi gustura zen egindako lanarekin saio ostean eta, kantuan beretik jardun duelako, pozik. Orain, gainontzeko final laurdenak jokatu zain egon beharko du aurrera egiten duen ala ez jakiteko. Saio puntuagarriekin hasi eta zortziko nagusian jardun dute bertsolariek hasteko.

Ainhoa Agirreazaldegi, lehenengo bertsoaldian, Ibon Ajuriarekin batera alaba mutilarekin muxuka ikusi duen bikotearen paperean aritu zen. Txukun hasi zuen emanaldia; berotze kontuak aipatuz, baina saioa une goriraino iristea lortu gabe.

BERGARAN, FINALERDIA

Leitzan lehenengo izan den Etxahun Lekue bertsolaria azaroaren 7an Bergaran jokatuko den finalerdian izango da, Aitor Mendiluze eta Maialen Lujanbiorekin batera.

Uztaritzeko final laurdenean lehen tokia lortzen duenak ere jardungo du Bergaran; baita, puntuazioaren arabera laugarren eta zortzigarrenak ere.

Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, Leitzako txapelketako une batean. IRATI AGIRREAZALDEGI.

GURE TALDEAK

Malenkonia

Argazkian, ezkerretik eskuinera, Aitor, Rober (zutik), Iñigo (makurtuta), Erik (aulki gainean), Andoni eta Iñaki. JOKIN ASTIGARRAGA

"Disko pertsonala egin dugu eta detaileak asko zaindu ditugu"

Malenkonia oñatiarrek 'Hegazkadak dakar ekaitza' izeneko diskoa kaleratu dute; hainbat saltoki handitan eros daiteke dagoeneko

Pop-rocka lantzen dute eta hamar kantu idatzi dituzte; besteak beste, piano, gitarra, saxofoi eta tronpeta doinuak erabili dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Malenkonia oñatiarrek bigarren diskoa kaleratu berri dute. Hilaren 5ean egin zuten aurkezpen kontzertua Oñatin. Rober, Iñaki, Iñigo, Aitor, Andoni eta Erik dira taldeko kideak. Eurekin egin dugu berba lan berriari buruz eta etorkizunean egingo dituzten kontzertuei buruz.

***Hegazkadak dakar ekaitza* diskoa kaleratu berri duzue. Nolakoa da?**

Oso gustura gaude diskoarekin. Pop-rocka lantzen dugu eta hamar istorio kontatzen ditugu. Entzuleak istorioetan murgiltzea nahiko genuke. Metafora asko erabili ditugu.

Britainia Handiko pop-rockaren detaileak hartu ditugu. Konponketak onak direla uste dugu. Piano, gitarra, biolin, saxofoi eta tronpeta doinuak erabili ditugu. Bestalde, diskoaren oinarria ona dela esango genuke, eta detaileak asko zaindu ditugu.

Zuen kontura grabatu duzue diskoa.

Bai, hala da. Iaz urrian hasi ginen diskoa prestatzen, eta prozesu luzea izan da. Grabazioak egin ondoren konturatu ginen gitarra doinuak ez zirela egokiak. Grabatuta genuen materialarekin aurrera ez egitea erabaki genuen, eta berriro sartu ginen estudioan. Horregatik guztiagatik, asko atzeratu da diskoaren aurkezpena.

Gainera, grabazioa Arrasateko lagun baten estudioan egin genuen. Hortaz, guk genituen baliabideekin egindako diskoa dela esan behar dugu, eta taldeko kideen arteko hartu-emana indartzeko balio izan digula.

Baina banaketa Gor diskoetxearekin egin duzue.

Diskoa leku guztietara heltzeko modu bakarra banaketa banatzaile batekin egitea da. Gor-eko kideekin bagenuen hartu-emana aurretik eta deitu egin genien. Eurekin egin dugun promozioa itzela izan da. Dagoeneko 26 elkarrizketa egin dizkigute hedabide ezberdinetan. Gu ez gaude ohituta halako promozioetara, baina gustura gaude.

Non eros daiteke diskoa?

Oñatiko taberna batzuetan jarri dugu salgai: Luis, Ona, Guria eta Aker tabernetan, besteak beste. Haritza liburu-dendan ere eros daiteke. Bestalde, FNAC-en, Media Markt-en eta Elhuyarren salgai dago.

Era berean, *www.malenkonia.com* webgunetik doan jaisteko aukera duzue.

Bi urte egon zarete kontzertuak egin barik. Zergatik?

2007ko urtarrilean Danbaka lehiaketako finalera heldu ginen. Orduan asko hitz egin eta idatzi zuten gure gainean. Aprobetxatu egin genuen kontzertuak egiteko eta maketa bat grabatu genuen. Baina taldeko kideok bagenekien gure helburu nagusia diskoa grabatzea zela. Hortaz, 2007ko abuztuan zuzenekoak alde batera utzi eta kantuak idazten hasi ginen.

Bi urte hauetan disko berria prestatzen ibili gara.

Pop-rocka egiten duzue, baina ez da ohikoena.

Ez. Errekaldeko lokalean gauden talde guztietatik gu eta Ünnea taldeak gara pop-rocka egiten dugun bakarrak. Baina guri musika estilo hau ateratzen zaigu, ez besterik!

Kontzertuak lotu dituzue dagoeneko?

Aurreko astean hiru kontzertu egin nituen, Bilbon, Hondarribian eta Tolosan, Kerobia eta Lauroba taldeekin. Baina aurrera begira ez dugu ezer lotu; egun eta toki batzuk ditugu esku artean, baina ez dugu ezer zehaztu. Dena den, zuzenekoak egiteko gogoz gaude, talde batendako gauzarik onena taula gainera igotzea da-eta!

Pop-rockaren tonalitate aberatsak

Debagoieneko pop-rockaren esperantza bueltan dator, dagoeneko espero ez genuenean. Izan ere, Danbaka lehiaketako bigarren edizioan finalista izan zenetik ez geneukan Oñatiko seikotearen inongo berririk, baina lokalean lanean ibili dira isilpean, eta emaitza oso dotorea da.

Taldeak bilakaera esanguratsua izan du, eta bere soinua zizelkatu egin du, gainera. Hala, Britania Handiko popa, folka, pasaje orkestralak, mugaldekoak, intentsitatea eta, jakina, malenkonia batu dituzte.

Iker Barandiaran

iragarkilaburrak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Alegia. Larraitz auzoan, etxebizitza berritua salgai. Sukalde ederra, bi logela, egongela eta bi bainugela. Prezioa: 174.000 euro . 669 82 70 96

Alegia. San Joan auzoan, etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea eta egongelarekin. Prezioa: 156.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia. 669 82 70 96.

Altsasu. Duplex-atikoa salgai Altsasuko Zubeztia kalean. 150 m2. Deitu 948 46 73 51 edo 648 78 96 75 telefonoetara.

Aramaio. Bi familiendako harrizko etxea, lorategiarekin, salgai. Paraje lasaian (Errotabarrin) eta herritik oso gertu. Prezio interesgarria. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 685 71 35 63

Arbizu. Lau logela, komuna, egongela eta sukaldea ditu. Erdi jantzita. Bajeratik sarbide zuzena duena. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 628 15 30 83.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 659 64 67 38

Beasain. Pisu oso zentrikoa . 105 m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazkiak eta informazio gehiagorako: *www.ttiki.com/6609* webgunean. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 656 73 11 43

Berriatua. Etxebizitza salgai . 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde egongela. Berritua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 94 616 64 19 edo 94 613 90 56.

La Mongie. Apartamentua salgai. Eskiatzeko pistetan bertan, logela literarekin,komuna, sukalde-egongela ohe-sofarekin eta terraza pistetara begira. Trastelekua eta garajea ere baditu. 80.000 euro. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 629 32 84 53

Lasarte-Oria. Apartamentua egoera onean salgai. Toki lasaia eta berritu berria. Bikotearentzat egokia. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 657 70 88 66.

Olazti. Herrigunean dagoen etxe bat salgai Olatzagutian. 120.000 euro. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 650 537 983.

Ordizia. Guztiz eraberritutako pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia eta trasteroarekin. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 620 45 79 73 (telefonoz bakarrik jarri kontaktuan mesedez)

Tolosa. Tolosako Gorosabel kalean, bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bat 180.000 euroan eta bestea berriz 156.000 euroan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 669 82 70 96.

102. EROSI

Arrasate. Berriztatzeko baserria, etxea edo txaleta erosiko nuke Arrasate-Garagartza edo Gesalibarren. Interesatuok, mesedez, mezu bat bidali '*gurekontaktua@gmail.com*' helbidera edo telefonoz deitu. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 689 54 32 85.

103. ERRENTAN EMAN

Altsasu. Altsasuko Santo Kristo auzoan berriki eraikitako pisua alokairuan jartzen da. Guztiz jantzia eta garaje plaza alokatzeko aukerarekin. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 606 67 99 35.

Altsasu. Lau logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 620 12 43 85.

Arrasate. Etxebizitzaematen da errentan Uriburu kalean. Unibertsitate ondoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Guztiak kanpora begira. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono hauetara: 652 71 16 20 edo 943 79 81 63

Arrasate. Duplexa ematen da errentan erdialdean. Jantzia. Ia berria. Bi autorentzako garaje itxiarekin. Raquel. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 629 46 93 91

Bergara. Etxebizitza emango nuke errentan Matxiategi kalean. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 649 07 97 56

Lakuntza. Apartamentua alokatzen da Lakuntzan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 630 90 13 54

Oñati. Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 699 78 47 49

Oñati. Hiru logelako etxebizitza errentan ematen da, Atzeko kalean. Guztiz berritua. Garajea aukeran. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 656 78 61 34

Tolosaldea. Villabonan eta Iruran etxebizitzak alokatzen dira. Bat 600 euroan eta bestea 650ean. Harremanetarako telefono zenbakia: 669 82 70 96.

104. ERRENTAN HARTU

Ataun. Etxebizitza behar da alokairuan Ataunen. Pertsona helduak. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 665 70 53 73

Bergara. Etxebizitza edo baserria errentan hartuko nuke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 658 77 90 46

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 600 25 98 54 edo 687 61 63 00

Bergara. Neska batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 679 52 33 66

Bergara. Premiazkoa da. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 666 01 13 42

Lekeitio. Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil. Logela batekoa edo bikoa. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 658 70 19 53

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Erguin aldean pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 628 76 25 00.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko ikasleak behar ditut. Uriburu kalean, Erguinen, unibertsitatetik gertu. Merke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 663 72 37 44.

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak ditu eta bi bainugela. Oso eguzkitsua da. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu dago. Interesatua egon ezkero deitu ezazu telefono honetara: 699 28 99 06.

Aretxabaleta. Partekatutako etxe batean bi gela ematen dira errentan. Internet erabiltzeko aukerarekin. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:600 09 56 18

Arrasate. Bi pertsona behar dira etxea osatzeko erdialdean. Egoera oso onean. Hiru logela, bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. 235 euro. Harremanetarako edo Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:606 74 42 37

Donostia. 2 pertsona behar ditugu pisua konpartitzeko Donostian, lau gelako etxea da, egoera oso onean dago. Gu 18 urteko 2 neska gara. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono hauetara: 617 99 10 26 (Julene) edota 696 02 24 93 (Idurre).

Donostia. Amaran, topo eta autobus geltokitik hurbil gela bat alokatzen da emakume euskaldun batentzat. Berdin ikaslea edo langilea. Pisua konpartitua da eta gehienez 3 lagunekoa. Gela argitsua, balkoiarekin eta gelan telebista dauka. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:: 943 65 16 92. Hartu ezean mezua utzi

Donostia. Gela alokairuan ematen dut Egia auzoko etxe batean, irailaren 26tik ekaina bitartean. Etxea oso txukuna da, eta baita gela ere: ohe bikoitza, silloia eta armarioa. Gladys Enea parketik eta Tabakaleratik oso gertu. Bakarrik bizi naiz. Interesatuta egonez gero, bidali mezua *sansebastian70@yahoo.es* helbide honetara. Mila esker.

Oñati. Langile gazteak logela edo apartamentua behar du. Beste batzuekin batera etxebizitza bilatzeko ere gertu nengoke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 679 29 31 06

Urretxu. Logela baten bila nabil Urretxu edota herri inguruetan. Beste batzuekin batera etxebizitza bilatzeko ere gertu nengoke.Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 678 64 54 28

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Alegia. Alegian, San Juan kalean, garajeko marra salgai. Prezioa. 18.000 euro. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 669 82 70 96.

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Santakrutz 25-27an. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 46 36 71

Arrasate. Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:686 02 56 56

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan Bolu inguruan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 675 70 50 43

Oñati Garajea errentan hartuko nuke. Interesatua egon ezkero 679 62 69 64 telefono zenbakira deitu.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Alokairuko taberna baten bila. Taberna bat errentan hartuko nuke Getarian edo inguruko herriren batean. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 647 48 62 32

Taberna hartuko nuke errentan Debagoienan. Taberna hartuko nuke errentan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 638 10 29 63 telefonora.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aramaio. Aerobik irakaslea behar dugu Aramaion, urte osorako. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:665 72 62 83

Bergara. Pertsona bat behar dugu umeak zaintzeko arratsaldez. Deitu 18:30etik 23:00etara Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 675 70 50 43

Bilbao. Orduka, goizez, Bilbon haurrak zaintzeko prest legoken norbaiten bila gabiltza. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: Monika,652 76 62 88

Etxarri Aranatz. Emakume euskalduna behar da eguerdian haurrak zaindu eta etxeko lan batzuk egiteko Etxarri Aranatzen. Egunean 3 orduz. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 685 47 46 82 (arratsaldez).

Goierri. Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:609 41 38 97

Tolosa. Tolosan, arratsaldetan 3 ume zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 630 98 43 00.

402. ESKAERAK

Altsasu. Adin ertaineko emakume altsasuarrak bere burua eskaintzen du haurrak zaindu, adineko pertsonak atenditu edo etxeko lanak egingo nituzke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 654 23 08 66

Aretxabaleta. Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 659 62 02 49

Arrasate. Emakume arduratsua gertu umeak zaintzeko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono hauetara: 943 79 77 54 edo 646 63 75 03

Arrasate. Hemengo neska gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo edozein lanetarako; orduka ere bai. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 659 55 27 16 edo 943 10 96 31

Arrasate. Neska euskalduna goizetan umeak zaintzeko gertu nago. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 685 77 18 89

Arrasate. Neska gaztea gertu dago arratsaldez eta astebukaeratan taberna baten lan egiteko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:697 42 79 88

Arrasate. Neska gaztea gertu arratsaldez ile apaindegian lan egiteko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:697 42 79 88

Arrasate. Neska gertu garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:678 20 77 01

Azpeitia. 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

Bergara. Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 637 18 07 23

Deba. Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 665 74 18 66. Marian.

Debagoiena. 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Ordutegi arazo barik. 685 70 75 25

Debagoiena. Atarietako garbitasunak egingo nituzke. 696 38 10 07

Debagoiena. Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. 636 01 91 12

Debagoiena. Asteburuetan edozein brikolaje edo etxeko konponketa egiten dut. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 686 99 23 94

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:660 56 65 58

Debagoiena. Josteko makinak konpontzeko gertu nago. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:652 07 63 50

Debagoiena. Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko goizetan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 635 25 54 44

Debagoiena. Neska gaztea umeak zaintzeko gertu. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 666 21 82 94

Debagoiena. Neska gertu 15:00etatik aurrera eta asteburuetan zerbitzari, sukalde laguntzaile edo umeak zaintzen jarduteko. Interesatua bazaude

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.

- LOKALA SALDU/ALOKATU.

- GARAJEA SALDU/ALOKATU.

- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

deitu ezazu telefono honetara:679 04 42 68

Debagoiena. Lagun esperientziaduna gertu etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 650 17 74 87

Debagoiena. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 650 14 69 10

Debagoiena. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

Debagoiena. Bergara edo Arrasate. Emakumea lanerako gertu. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzenjardungo nuke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 636 01 91 12

Debagoiena. Neska bergararra gertu sukalde laguntzaile lanerako. Esperientzia eta elikagaiak erabiltzeko tituluarekin. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 656 73 64 51

Debagoiena. Bergara eta Arrasate. Gidabaimena duen mutila atariak garbitu, elkarteak garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 685 70 76 25

Debagoiena. Bergara eta Arrasate. Emakumea garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 650 62 12 94

Debagoiena. Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 686 52 15 98

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 650 67 16 47

Debagoiena. Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 669 53 02 92

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. 608 08 36 02

Debagoiena. Erizain laguntzailea prest pertsonak zaintzeko. 630 03 95 59

Debagoiena. Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:671 35 22 60

Debagoiena. Esperientzia daukan neska bat gertu dago sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanak egiteko. Interesatua egon ezkero deitu ezazu telefono honetara: 610 82 02 17

Debagoiena. Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 605 76 05 59

Debagoiena. Gertu nago adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 638 54 75 93

Debagoiena. Asteburuetan edozein txakur edo animalia zaintzeko eta paseatzen ateratzeko prest. Merkea. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 686 99 23 94

Debagoiena. Heziketa bereziko ikasle euskaldun batek haurrak zainduko lituzke arratsaldeetan. 628 85 92 99

Debagoiena. Josteko makinak konpontzeko gertu nago. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 652 07 63 50

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 638 10 29 63

Debagoiena. Ordenagailuak konpontzen ditut etxean bertan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 697 66 79 37

Debagoiena. Esperientziadun gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 605 76 05 59

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 636 91 92 83

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Bertan lo egiteko prest nago. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 608 08 36 12

Donostialdea. Donostialdean tabernari lana bilatzen ari naiz. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 619 34 52 03

Eibar. Haur Hezkuntzako ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldetan. Esperientzia. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 626 75 21 17.

Gernika Lumo. Lan bila: txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono hauetara: : 946 25 70 80 edo 676 60 75 68

Goierri. Erreferentzia onak dituen neskak, umeak edo adineko pertsonak zaintzen, edo garbiketa lanetan lan egingo luke. Harremanetarako 606 72 28 76 telefono zenbakira deitu.

Goierri. Neska arduratsuak eta eskarmentu handikoak, garbitzaile lanetan, zerbitzari bezala edota adineko pertsonak zaintzen lan egigo luke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 628 21 75 27

Goierri. Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. Ostalaritzan ere lan egiteko prest. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 696 28 94 54

Irun-Hondarribia. Tabernari lan bila nabil. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 619 34 52 03

Irura. Giza elikadura eta dietetikan diplomatua naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Irati. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 697 52 20 48

Lasarte-Oria. Lasarte-Orian bizi den emakume gaztea, etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 634 78 05 14

Sakana. Era guztietako eraikinen eraberritze lanak egiten ditut (etxebizitzak, lokal komertzialak, bulegoak eta abar). Azulejoak, baldosak, pladurra. Nafarroako Gobernuak eraberritze lanetarako ematen duen diru laguntzaren gestioa ere egiten dut, doan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 669 58 55 02

Tolosaldea. Emakume euskalduna,arduratsua eta esperientzi handikoa eskaintzen da egunez zein gauez adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko. Gida baimena eta autoa baditut. Interesaturik egonez gero deitu lasai eguneko edozein ordutan telefono zenbaki honetara: Etxekoa: 943 57 74 09. Mugikorra: 680 24 42 81. Erreferentziak ere baditut. Idatzi mezu bat *mariapilargarmendia@gmail.com* helbidera.

Tolosaldea. Emakume euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Interesatuek deitu 665 72 04 26 telefono zenbakira.

Uharte Arakil. Arakilen umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 676 22 20 52

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek matematika eta kimikako eskola partikularrak jasoko lituzke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 695 72 79 55

Bergara. DBHko ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke etxean. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 699 12 75 57

Bergara. Gaztelerazko solasaldiak izateko norbait beharko nuke, alemaniarra naizenez gero, nire gaztelera hobetzeko. Trukean, alemaniera erakutsiko nioke interesatuari. Johanna. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 689 33 30 75

Bergara. Ume bati eskola partikularrak emateko laguna behar dut. 20:00etatik aurrera deitu. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara:943 76 03 75

Bergara. Pertsona bat behar da bi mutikori eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailan daude. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 639 03 43 58

Leintz Gatzaga. Ingeleseko eskolak emateko irakaslea behar da Leintz Gatzagan. Eskolak bi arratsaldetan izango lirateke eta urtarrila arte, hasiera baten. Autoa derrigorrezkoa. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 678 82 22 27

502. EMAN

Antzuola. Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 618 92 95 75 edo 679 86 68 39

Arrasate. Unibertsitateko ikaslea gertu astelehenetatik ostegunetara eskola partikularrak emateko. Ordutegia: 18:30etik aurrera. Txaber. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 636 12 05 79

Arrasate. Ingeniaritza ikasi duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 664 66 73 09

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 630 71 35 83

Beasain. DBHko eta lehen hezkuntzako ikasleei (6 eta 16 urte bitarteko umeei), klase partikularrak ematen dizkien Psikologiako 4. nailako ikaslea naiz. Klaseak Beasainen edo Ordizian ematen ditut. Harremanetarako edo Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 615 71 40 84

Bergara. Klase partikularrak emateko gertu nago, DBH. 4 mailan, 18:00etatik aurrera. Pilar. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 943 76 16 42

Bergara. Kimikan Lizentziatu batek Matematika, Fisika, Kimika, Natur Zientziak eta Geologia eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Telefonoa: Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 648 06 79 85

Bergara. Ingeleseko eskolak ematen dira. Maila guztiak. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 618 91 32 89

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Komunikazioa lantzeko. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 654 94 87 26

Bergara. Ingeleseko irakasle ezaguna eskola partikularrak emateko gertu. Azterketak gainditzeko edo errefortzurako. Oso merke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 616 12 56 29

Debagoiena. Bergara edo Arrasate. Eskola partikularrak ematen ditut. 699 39 20 20

Debagoiena. DBHko eta Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak eman edohaurrak zainduko nituzke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 943 76 71 51

Debagoiena. Arkitektura lizentziadun batek matematika, fisika, kimika, natur-zientziak, marrazketa... eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 639 46 07 26

Debagoiena. Ingeles komunikatibo eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntza. 15:00etatik aurrera. Merke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 610 97 49 68

Debagoiena. Ingeleseko eskolak emango nituzke. Maila guztiak, azterketetarako prestakuntza barne. Ingeles komertzialean esperientzia dut. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 618 91 32 89

Debagoiena. Klase partikularrak ematen dira. LH, DBH eta batxilergo zientifikoa. Ikasketak: Biologian lizentziatua eta euskara eta ingelesaren ezagumendu maila altua. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 635 72 02 05

Donostia. Kimika lizentziaturako 4.maila ikasten ari den neska bat naiz eta klase partikularrak emanen nituzke Donostian arratsaldetan. Esperientziaduna eta arduratsua. Ordutegia zehaztuko genuke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 690 76 69 52

Gernika. Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak ematen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia).

Irun. Kemen euskal dantza taldeak fandango, arin arin eta plaza dantzen ikastaroa antolatuko du urriaren 10ean hasi eta abendura bitarteko larunbatetan. Interesatuok hurrengo telefonora dei dezakezue informazio eske: 667 553698. Ander (telefonoz bakarrik jarri kontaktuan mesedez).

Oñati. Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika, ingelesa...). Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 678 27 27 57

Tolosa. Neska euskalduna, esperientziaduna eta tituluduna (Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura,Irakaskuntzako Gaitasun Agiria, EGA), banakako klaseak emateko prest. DBH eta Batxilergoko (Giza-Gizarte Zientzietako irakasgaiak) ikasleei. Informazio gehiago behar izanez gero deitu lasai: 675 71 12 14.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citröen Xsara 1.9 D salgai. 1998koa. 166.000 km. Oso egoera onean. 1.200 euro. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 629 15 79 29

Honda Varadero motorra salgai. 1.000cc. 2006koa. 10.000 km. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 615 76 49 14

Kawasaki Z750 salgai. 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660 33 77 16 telefonora.

Peugeot 206 autoa salgai. 7 urte dauzka. Oso prezio onean. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 699 57 43 51.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Ardiak. 150 ardi saltzen dira, latxa arrazako 300 ardi gaztez osatutako artalde batetik. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 606 04 44 36 edo 943 88 09 45.

703. EMAN

Katakumea oparitzen da. Katakumea oparitzen da. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 80 04 90

Katakumeak. Hiru aste duten lau katakume oparitzen ditut, bi eme eta bi ar. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 685 79 07 61

Katakumeak oparitzen dira. Baserriko 10 bat katakume. Abuztu bukaeran jaiotakoak. Harremanetarako telefono zenbakia:943 79 10 95

Txakurkumeak oparitzen dira. Arratoi txakur eta ehiza-txakur nahasketa. Bi hilabete eta erdi. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 645 70 68 21 Inma..

8/ DENETARIK

801. SALDU

Altzariak. Bi plazako sofa eta relax bat salgai. Marroiak. Estreinatu barik. Dena 320 euroan. Arrasaten. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara harremanetan jartzeko: 660 21 98 44

Aluminiozko llantak. Aluminiozko llantak kubiertekin saltzen ditut. Neurriak: 185/60 R14. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 638 10 29 63

Berogailuak. Ecotermi etxeko 5 berogailu salgai. Bata, Ecotermi 570w 5 difusore 100e, hiru Ecotermi 600w 5 difusore 150e/bak eta bestea Ecotermi 1000w 9 difusore 200e. Egoera onean. Guztiak 750 euroan. 605 77 54 64

BH bizikleta salgai. BH bizikleta salgai, 2009koa eta errepidekoa. Campagnolo freno eta osagaiekin. Egoera oso onean. 617 89 34 15

Bikiendako Arrue etxeko karrokapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649 00 53 42

Egurra salgai. Moztuta. Beheko surako edo txaparako. Aramaion. 617 27 74 64 edo 945 44 51 11

Giant bizikleta salgai. Errepidekoa. 56 neurrikoa. Gutxi erabilia. 4.000 km. 600 euro balio du. Interesatzen bazaizu deitu telefono zenbaki honetara:656 75 35 86

Gitarra akustikorako pedalera salgai. Erdi prezioan. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 943 77 19 20

Hozkailu industriala. 2,05eko altuera, 1,40ko zabalera eta 0,70eko sakonera. Hiru atekoa. 649 84 67 09

Hozkailu kutxa. Zanussi etxekoa. 352 litro erabilgarri. 190 euro. Deitu: 943 79 66 75

Korrika egiteko zinta. BH Argon markakoa. Gehienezko abiadura 18 km/orduko. Gehienezko pendetza %15. 550 euro. Deitu 635 69 82 63 telefono zenbakira.

Liburu oso zaharrak saltzen ditut. 1953. urtekoak eta zaharragoak. 696 84 19 51 edo 943 53 29 18

Masaje aparatua. Hankak urarekin masajatzeko aparailu elektrikoa salgai. 608 36 26 07

Mendiko bizikleta. Mondraker Factor R salgai, suspentsio bikoitz eta blokeoarekin. Prezioa 1.400 euro. 655 74 48 55 edo 943 78 24 90

Monozikloa saltzen dut. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605 73 07 77

Nokia 6124 telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 50 euro. Interesatuek deitu: 617 13 17 51

Ordenagailua HP Pavilion a6580. HP Pavilion a6580 / QuadCore Q9300 / Bus frontal 1333 MHz / ram 4 GB / HD 500 GB / DVD.RW LightScribe / Nvidia GeForce 9500 512 MB HDMI, VGA, DVI / Windows Vista Home Premium Media Center (64 bits) original HP ko 9 hilabeteko garantia ofziala. Bergaran ikus daiteke. 355 euro. Harremanten jartzeko deitu telefono zenbaki hauetara: 633 32 22 00edo 943 53 27 60

Patinetea. Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650 96 23 08

Piragua bi salgai. Piragua bi salgai, osagarriekin, bata mistoa eta bestea erreka edo olatuetarako aproposa. 679 10 95 23

Routerra. Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. 608 36 26 07

Txakurrak eramateko kaxa salgai. Txakurrak autoan eramateko kaxa. Estreinatu barik. Bi txakurrendako modukoa. Interesatuek deitu:639 37 22 99 edo 659 77 03 33

Umeendako aulkia. Jane etxekoa. Hiru gurpilduna. Frenoarekin. 80 euro. 608 36 26 07

Urbanizatutako lursaila Etxarrin. Urbanizatutako lursaila salgai Etxarri Aranatzen. Interesatuek deitu 676 223 802 telefonora. .

802. EROSI

Bankuko billete eta txanponak erosten ditut. 688 61 85 02.

Bikiendako karroa hartu edo erosiko nuke. Deitu 650 57 36 07 telefono zenbakira.

Bikiendako karroa. Bikiendako karroa erosiko nuke. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 628 69 72 64.

Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. Deitu 609 11 72 96 zenbakira.

Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan. Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Deitu: 634 46 41 69

Tintin en komikiak euskaraz. Tintin en euskarazko komikiak erosiko nituzke. Prezioa adosteko. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 94 460 74 44. Getxo.

804. HARTU

Altzariak. Etxea osatzeko altzari eta etxetresnakhartuko nituzke, ezin ditudalako erosi. Deitu: 615 79 51 89

Artzain txabola erosi eta lokal bategatik trukatuko nuke. Artzain txabola erosi eta lokal bategatik trukatuko nuke.Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara:645 00 80 55

Birkiendako karroa. Bikiendako karroa hartu edo erosiko nuke. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 650 57 36 07

Bizikletarako umeen jarlekua behar dut. Bizikletarako umeen jarlekua behar dut. Eskarne. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 608 49 94 15

806. GALDU

2 txakur galdu dira Arama inguruan. Bi txakur galdu ziren irailaren 19an Arama inguruan. Bata Schnauzer Minatura beltz plateatua, eta bestea Border Collie txuri beltza. Norbaitek topatu baditu, deitu mesedez telefono zenbaki honetara:605 70 00 02

Belarritakoa. Altsasun galdu da, zilarrezkoa da eta luzea. Opatu duenak hots egin dezala 619 65 44 90 telefonora.

Belarritakoa. Arrasateko tanatorio inguruan edo Bedoñako eliza inguruan perla ilundun belarritakoa galdu dut. Balio sentimentala du. Aldez aurretik, mila esker. 626 32 04 72 edo 943 76 47 56

Eguzkitako betaurrekoak galdu ditut Urbian behera. Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen irailaren 20an, igandean, Urbiatik jaisten. Mesedez, norbaitek aurkitu baditu deitu telefono zenbaki honetara: 615 79 27 44

Jertse beltza eta eguzkitako betaurrekoak. Joan zen igandean, Irailak 27, jertse beltz bat eta eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Urkizutik Ernioako bidean, Intxurbi baserriaren inguruan, aurkitu dituenak dei dezala mesedez 695 74 98 25 telefono zenbakira. Aldez aurretik, mila esker.

Sakelako telefonoa. Sakelako telefonoa galdu dut Labegaraieta inguruan, irailaren 19an. Udaltzaingoan utzi edo telefonoz deitu, mesedez. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 943 76 29 09

Sakelako telefonoa. Sakelako telefonoa galdu dut. PESAko autobusean Bilbo Bergara ibilbidean. 639 50 51 85

807. AURKITU

Autoko giltzak aurkitu ditugu. Auto bateko giltzak topatu ditugu Hernialden. Zureak direla uste baduzu, deitu Hernialdeko ostatura. Telefono zenbakia:943 65 24 96

Jertse grisa aurkitu dut. Jertse grisa aurkitu nuen irailaren 28an Bergarako Ibargarai kalean, ziburuen parean. Emakumeen jertse grisa da, luzexka eta aurreko aldetik zabalik. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono honetara: 943 76 26 82

Sudadera bat aurkitu da. Oñatin, irailaren 27an bolo txapelketa bukatu ondoren sudadera bat aurkitu zen, norbaitek ahaztuta. Jabeak Kurtze Baltz elkartean berreskuratu dezake, astegunetan 20:00ak aldera. Interesatua bazaude deitu ezazu telefono hauetara: 943 78 14 21 edo 943 53 42 13

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Astegunetan bakarrik zaude? Lan-ordutegi bereziagatik bakarrik bazaude, elkar ezagutu genezake. 45 urteko gizonezkoa, 20-50 urte arteko mutil/gizon lagun euskaltzaleen bila Zestoan, Azpeitian edo Azkoitian. Helburua: astegunetako bakardadea uxatzea, nire egoeran dagoen norbaitekin. Telefono zenbakia: 605 73 49 83. Txantxak saihesteko,idatzizko mezuak bakarrik erantzungo ditut.

Donostia Alde Zaharreko Joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Harremanetan jartzeko idatzi: *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

Neska bila. Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako, interesatuak idatz ezazuei *mgpelmaz@gmail.com* helbidera.

Etxebila higierinak
943-44 61 66

ALOKAIRUAN
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 850€
LEZO 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita 670€
USURBIL 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Lorategia. 650€

SALMENTAN
EGIA Duke Mandas. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua.
RIBERAS LOIOLA Pisu berriak estrenatzeko. 2 logela. Terraza. 64.900.000
AMARA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000
AMARA Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Altua. 43.500.000
AMARA Hasieran. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 45.500.000
AMARA Hasieran 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 48.800.000
AMARA OSINAGA Apartamentu berria. Altua. Garajea. 53.800.000
GROS Azkena. Terraza 20m2. 3 logela. Hondartza ondoan. 58.000.000
GROS 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Balkoia. 51.800.000
INTXAURRONDO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Polita. 36.900.000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Oso polita. 39.500.000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 24.900.000
MARTUTENE Balkoia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 34.300.000
MARTUTENE 100m2. 3 logela, 2 bainugela. Balkoia. Igogailua. 48.950.000
LASARTE 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 33.500.000
PASAI ANTXO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 25.950.000
PASAI DONIBANE 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Bistak. 33.400.000

GARAJE SALMENTA
AMARA Amara Osinaga. Garaje ederra. 3.960.000

www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

BERGARA

BERGARAKO industrialdean
PABILIOIA ERRENTAN. 1.000 m².
Tarteko solairuan 120 metro koadro
bulego eta zerbitzuetarako.
Instalazioa eginda dago.
630 96 71 00

sudokua

	8	6			2	5		
		2	1	9				
7	3		4	8				
5		7					2	
		9		5	7	3		6
			2	4	9		7	
				3		6	9	8
		8		6		2		7

bila-bila 7





hitz gezidunak



* Aretxabaletako auzoa
Lore hautsa
Fidantza
Alemaniako hiria
Mihisea, izara
Joaki naiz
Itsas ugaztun
Jarri, ipini
Noka, dugu
Zigor
Narrasti mota
Aretoak
500
Nafarroako ibaia
Laborari
Salatzaile
Zakur
Lehen bi letrak
Gatzik gabe
Txori mota
Sugetzarra

GOIENKARIA

hieroglifoa

Loreak edukitzeko ontzia.

hizki salda

Arrasateko bost kaleren izenak.

I	T	U	R	R	I	O	F	A
T	E	I	P	L	S	O	K	L
E	A	G	E	R	R	E	D	D
U	Z	T	X	O	T	L	L	A
D	E	R	E	D	Z	K	M	I
A	R	T	O	L	K	A	H	G
G	I	F	R	U	O	N	L	A
J	T	U	E	T	G	O	D	I
A	S	L	D	I	K	F	O	N

soluzioak





Hieroglifoa: Pegarra.





asteko horoskopoa

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Arazoak beharrean zein etxean, gauzak galdetu barik egiten dituzulako. Entzun besteen proposamenak, zure asmoentzat garrantzitsuak izan daitezke eta.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Erabakiak hartu eta betetzeko unea, batez ere beharrean hobekuntzak egiteko. Edozelan ere, aldaketen beldurrak ez dizu zure asmoak betetzen utziko.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Lanean harreman berria hasteko aukera. Harreman ezin hobea izan daiteke, beharra eta plazerra elkartzen ez badituzue. Kontuz lankideek emango dizkizuten gomendioekin.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Krisialdia bikotekidearekin, behar duzun maitasuna ematen ez dizulako. Azal iezazkiozu zure beharrak. Kontuz zer sinatzen duzun, ez da txantxetako kontua.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Hausnarketa garaia, zure bizimodua erabat aldatzekotan zabiltza eta. Ondo dago horretarako bakarrik egotea, baina ingurukoen iritzia ere kontuan eduki beharko duzu.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Zure bizimoduan egin nahi dituzun aldaketak ez dira berez etorriko, jokaera aldatu beharko duzu. Espero dituzun hobekuntzak gauzatzen hasiko dira, beharrean batez ere

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Hobekuntzak beharrean, soldatan zein beste kontu batzuetan. Kontuz baina, ingurukoak bekaizti hutsak dira eta zu oztopatzen ahaleginduko dira.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Bolada ona arlo guztietan. Beharbada bidaia ederra egingo duzu bikotekidearekin. Ingurukoekin dituzun harremanak zoragarriak izango dira, eta pozik egongo zara.

SAGITARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Beharrean ezin hobeto: nagusiek zure ideia bikainak gauzatuko dituzte. Bestalde, hori dela eta soldataren hobekuntza izango duzu.

CAPRICORNIUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Beste sexukoekin arrakasta izango duzu. Bikotekidea badaukazu arazoak eduki ditzakezu, ez badaukazu, zorionekoa zu, gainezka ibiliko zara eta

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Beharrak eta beste kontu batzuek, familiarekin egoteko asti barik utziko zaituzte, eta eurak haserretuko dira. Ahalegindu eurekin denbora gehiago ematen.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Beharrean hobekuntzak ekarriko dizkizuten kontratu ederrak sinatzeko edota beste batzuekin elkartzeko une ezin hobea. Ahalegindu aprobetxatzen.

gazte zerbitzua

BEKAK

> **Masterrak.** Hezkuntza Ministeritza. Estatu Batuetan 2010-2011 ikasturtean Gizarte Zientzietako edo Humanitate arloko masterrak egiteko bekak. Epea: urriaren 14a.

LANA

> **Garbitzailea.** Bergarako Udala. Aldi baterako garbiketarako langile bat kontratatzeko deialdia. Epea: urriaren 16a.

> **Euskaltegiko irakasleak.** Arrasateko Udala. Arrasateko euskaltegian irakasleen lan-poltsa osatzeko deialdia. Epea: urriaren 13a.

> **Eginkizun anitzak.** Gaintzako Udala. Gaintzako Udalean eginkizun anitzeko langile postua betetzeko lehiaketa-oposizio librea. Epea: urriaren 14a

> **Administrazioa eta giza baliabideak.** Zumaiako Udala. Administrazioa eta giza baliabideen erdi mailako teknikaria kontratatzeko deialdia. Epea: urriaren 19a.

> **Turismoa.** Zumaiako Udala. Turismo Teknikari bat Zumaiako udalerako. Epea: urriaren 19a.

IKASTAROAK

> **Dantza afroamerikarrak.** Arrasateko Udala. Urriaren 15etik aurrera, ostegunetan, arratsaldeko 6:30etatik 8ak arte.

> **Begirale.** Larrunarri Eskola. Larrunarri Eskolaren begirale ikastaroa 09/10. Ikastaroa 2009ko urrian hasi eta 2010eko maiatzean amaituko da. Epea: urriaren 19a.

LEHIAKETAK

> **Sal a escena!** Berdintasunaren Ministeritza. Bazterkeriaren kontrako "Sal a escena!" lehiaketa, hainbat kategoria: antzerkia, monologoak, abestiak, laburmetraiak. Epea: azaroaren 25a.

gazte informazioa

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Martitzena, 13

> Amets Arzallus bertsolaria 'Ilunpean'-en
22:15

Amets Arzallus bertsolari eta kazetari hendaiarra elkarrizketatuko du Jon Berezibarrek *Ilunpean* programan.

13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:10 Ikusmira.
15:50 Solaskide.
16:20 Itsasoari begira.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Erreportajea.
18:05 Solaskide.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Ilunpean.
23:00 Ur eta Lur.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 14

> 100 euro arteko dirusariak lehiaketan
19:45

Magazinea-n 100 euro arteko dirusariak emango ditu Amaia Txintxurretak birziklaiarekin lotutako lehiaketan.

13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Ikusmira.
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.
15:50 Golb tb.
16:20 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Solaskide.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 GipuzkoaKultura.
23:15 Goiena Magazinea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 15

> Arantxa Tapia diputatuari elkarrizketa
19:45

Arantxa Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua elkarrizketatuko dute *Goiena Magazinea*-n.

13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Gipuzkua kultura.
15:45 Ur eta Lur.
16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Elkartasun bideak.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
23:15 Ikusmira.
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 16

> Bilboko bertso saioaren zati bat botako dute
22:15

Euskal Herriko bertsolari txapelketaren barruan domekan Bilboko emanaldia erakutsiko dute *Puntuz Puntu* programan.

13:15 Marrazki bizidunak .
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Elkartasun bideak.
15:45 Ur eta lur.
16:15 Ikusten.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Bertso saioa.
22:45 Ilunpean.
23:45 GipuzkoaKultura.
00:45 Emisio amaiera.

Zapatua, 17

> 'Muka Muka' marrazki bizidunak'
16:30

Muka Muka txakurtxoaren istorio eta abentura berriak ikusi eta bizi ahal izango dituzte etxeko txikienak GOITBn.

08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Trikitraka trikiton.
11:30 Kantari.
14:00 Elkartasun bideak.
14:30 Ikusmira.
15:00 GipuzkoaKultura.
15:30 Trikitraka trikitron.
16:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Wazemak.
18:30 Solaskide.
19:00 Ikusmira.
19:30 Ur eta lur .
20:00 Erreportajea.
20:30 Golb tb.
21:00 Ikusten.
21:30 Ilunpean.
22:15 Solaskide.
22:45 Ikusmirai
23:30 Wazemank.
00:30 28 klip.
01:00 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Arrasate Irratia
10:30

Gose musika taldeko kideak etorriko dira gaur, martitzena, Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaiora. Disko berriaz egingo dute berba, eta *Rimel* aurrerapen kantua ere entzun ahal izango da. Bestalde, emigrazioari buruz antolatu duten mintegi baten iragarpena ere egingo dute. Euskal abizenak aztertuko dituzte, besteak beste.

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

telealbisteak

GOITB > BERTSO SAIOAK

Bertsolari txapelketako emanaldiak botako dituzte GOITBn egubakoitzero

Lehen programa egubakoitzean botako dute; domekan Bilbon izandako emanaldiko bertsoak entzungo dira aste honetan GOITBn

O.E. > ARRASATE

Euskal Herriko bertsolari txapelketaren saio batzuk GOITBn emango dituzte egubakoitzetan. Tokiko telebistekin batera ekoiztuko ditu emanaldi horiek Goiena Telebistak. Iñaki Apalategik egingo ditu aurkezle eta kazetari lanak eta lehen programa aste honetan bertan botako dute, egubakoitzean, urriak 16, 22:15ean hasita.

ORDU ERDIKO SAIOAK

Tokiko telebistek heltzen diren eremuetan egingo dituzten bertso saioak botako ditu GOITBk. Saio bakoitzetik ordu erdiko bi programa aterako ditu. Abenduaren 13an jokatuko duten finala, ordea, ezberdina izango da, berezia.

Esan bezala, lehen programan atzo, domeka, Bilbon egindako emanaldiko bertsoak botako dituzte. Asier Otamendi, Iñaki Zelaia, Maddalen Arzallus, Jesus Mari Irazu, Julio Soto eta Amaia Agirre bertsolariek egin zuten bertsotan Arriaga antzokian, eta eurak botatako bertso sorta bat botako dute datorren egubakoitzean. Tokiko telebistetan ez ezik, *tokiko.tv*-n ere ikusi ahal izango dira bertso saioak, kanala sortu dute-eta.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.

Asteartetik ostiralera eskeintzen diren saioak:
17:30tan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz.
Itsua izar begiekin: Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten.
Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
Kartoizko suziriaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa
Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

XVIII. ASTRONOMIA JARDUNALDIAK

Hitzaldiak Zientziaren kutxaGunean. Sarrera doan. 19:30tan Newton Auditorioan
- Urriak 13, asteartea: Javier Armentia (Iruñeako Planetarioa)
"No te creas todo lo que te cuentan. El lado oscuro de la Astronomía"
- Urriak 14, asteazkena: Xavier Barcons (IFCA)
"Agujeros negros"
- Urriak 15, osteguna: Enrique López Cabarcos (Univ.Compl.Madrid)
"Teorías sobre el origen del Sistema Solar"

Museoko ordutegia: asteartetik ostiralera 10etatik 19etara eta asteburu eta jai-egunetan 11etatik 19tara

Informazio gehiago *www.miramon.org* webgunean eta 943 012 478 telefonoan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

asteburuko albuma

PlayStationean txapeldun! Horren pozik agertu zen argazkiko neskatila eskoriatzar hori, egubakoitz arratsaldean Tortolis ludotekan egin zuten PlayStation saioan primeran jokatu ondoren eta hiru lehiakide gainditu ondoren; horietako bi aho bete hortz agertzen dira argazkian, baina gero izango zuten errebantxa hartzeko tartea, ziur! 7 eta 12 urte arteko umeei zuzendutako ekintza izan zen; bideojokoetan ere, beste denetan bezala, umeek agudo ikasten duten erakusle. Argazkian ikus daitekeen moduan, gainera, neskatila zein mutikoak ibili ziren.

Valentziako ahotsak Oñatin. Agustindarren elizan, zapatu iluntzeko meza eta gero, emanaldia egin zuen Valentziako Coral L'Hortak. Debagoiena musikazalea izateaz gain, abesbatza zalea da, eta Oñatin batu zirenek gustura entzun zituzten valentziarren ahots finek abestutako kantuak.

'Joanen Ilargia', katalanen emanaldia euskaraz. Txotxongilo emanaldi bat baino gehiago ere izan da aste bukaeran. Nabarmenena, Teatre Nu taldeak Carme Sole Vendrell idazlearen ipuina moldatuta antzeztu zuen *Joanen ilargia*, Amaia antzokian. Euskaraz egin zuten katalanek, bai eta ederki egin ere!

kuxkuxeroa



Maider Arregi

Nobel sarixa *Boletus edulis* batzailiendako

Egubakoitzian jakin geben **Bakiaren Nobel Sarixa** Barack **Obama,** AEBko presidentiandako izan zala. Asko harrittu nintzan eta uste dot epaimahaixak **obamamania** sarittu dauela. Obama bera be aluzinauta geatu zan; beak ez dauela merezi eta ez dauela meritorik iñ esan omen dau. **Rigoberta Menchukin** guztiz bat nator eta uste dot munduko bakian alde lan itteko arduria dakola oiñ; erantzunkizun haundixa dako eta agindutako gauza asko itteko dako ondiokan, adibidez, **Guantanamo** ixtia.

"Asko eta asko dia udazkeneko lorien billa dabiltzanak Debagoieneko mendixetan"

Baña nik asteburu honetan badakot Nobela mereziu dauen jendia: Aramaixoko errekia garbiketako **boluntarixuak**, Antzuolako eta Aiherrako **senidetzakin** jarraittuko daueiñ gaztiak, eta beste asko!Baña asteburuko Nobel sarixa, benetan mereziu daue, argittu aurretik, goizian goiz, pagopeian eoten dian **ongozaliek**. Udazkeneko lorien billa dabiltzanak asko dia gure mendixetan. Modan jarri dala be esan leke ***Boletus edulisak*** batzia. Baña, ez dakitzue zelako sorpresia eruan daueiñ **Ultzamara** fan dianak ongo billa. Nafarruako Gobernuak, 75 pertsonara mugatu dau onguak batzeko baimena. Neurri honen helburua, **ondare mikologikua** babestia da. Eta hemengo ondaria?

ESKELA

Jaio
Ugarte Urrutia

Jone Inuntziaga lankidearen aitaita

Aramaion hil zen 2009ko urriaren 8an, 88 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Aramaion, 2009ko urriaren 13an.

ESKER ONA

Iñaki
Arana Barandiaran

Aretxabaletan hil zen 2009ko urriaren 8an, 58 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko Corral familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2009ko urriaren 13an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 05
Edo zatoz ordezkaritza batera.
Eskelaren prezioa: 110 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.
Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).

zorion agurrak

ARRASATE
Naiara Capellan
Urriaren 2an, 10 urte. Zorionak maitia!ondo pasa eguna ta disfrutau asko!patxo haundi bat, asier, aitatxo eta amatxoren partez



BERGARA
Jenifer Caballero Garcia
Urriaren 4an, 8 urte. Zorionak neska haundi! Denon partetik eta bereziki Lira, Lirain eta Pandaren partetik.



ESKORIATZA
Eñaut Etxebarrieta
Urriaren 5ean, 6 urte. Zorionak eta muxu askooo!!! Familia eta lagunak.

ARRASATE
Unai Laskurain
Urriaren 6an, 7 urte. Zorionak Alaitzen, Haizean, amama Edurneren eta aitita Prudentzioren partetik.

ARRASATE
Eider Abarrategi
Urriaren 9an, 5 urte. Zorionak printzesa! Milaka eta milaka muxu familia guztiaren partetik. Ondo ospatu zure urtebetetze eguna.

ESKORIATZA
Jon Zubiaga
Urriaren 7an, 6 urte. Zorionaaaakk!! Eta muxu asko. Kdo Petretxema.



OÑATI
Pili Gurrea
Urriaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, zure urtebetetzean! Zorionak urte askotarako! Zorionak, zuretzako!

ARRASATE
Pili Urizar, Ibai Uribarren eta Lide Zubia
Pilik irailaren 28an, urtebetetzea. Ibaik 5ean eta Lidek 8an, 5 urte. Arizmendi Arima Zubiko lagun eta Argitxoren partetik, mila kilo zorion!

ARRASATE
Lorea Ibarra Gallardo
Urriaren 8an, 7 urte. Zorionak, printzesa, ama, aita eta anaia Unairen partetik.

ARAMAIO
Egoi Azkarate Arriolabengoa
Urriaren 10ean, urtebete. Zorionak! Aitatxo, amatxo, Oihan eta Lide eta Garazi lehengusinak.

ARAMAIO
Beñat Burgi Arriolabengoa
Urriaren 11n, 15 urte. Muxu handi bat etxekoen partetik, maittia! Ondo pasatu eguna.

ARETXABALETA
Igor Altuna Guzman
Urriaren 11n. ondo pasatu zure eguna. Kafetxuaren zain egongo gara familixa dana, baina batez be Hur eta Garbiñe! Zorionak!

BERGARA
Nerea Lezeta
Urriaren 11n, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.

ARRASATE
Maialen Sampedro
Urriaren 11n, 6 urte. Zorionak aitatxo, amatxo eta Izaroren partetik! Ondo pasatu zure egune!

ESKORIATZA
Oihana eta Haizea Arana
Urriaren 12an, 8 urte. Zorionak eta patxo bat aitatxo eta amatxoren partetik!

ELGETA
Xabier Arrasate Lasa
Urriaren 13an, 4 urte. Zorionak, potxolo! Lau urte handi! Aitatxo, amatxo eta Kattalinen partetik.

ARRASATE
Mikel Lopez
Urriaren 15n, 61 urte. Zorionak, aitta! Bazkaixa pagaitteko preparaitten fan, eh? Etxeko danon partetik eta batez be Uxue, Elaia eta Marenen partetik, milaka muxu!

ARETXABALETA
Susana Fernandez
Urriaren 16an, 30 urte. Zorionak, maitxia! Egun zoriontsua opa dizugu laneko lagunek. Egongo gare zure 30 urtiak ospatzeko. Besarkada handi bat Anparituen partetik.

ARETXABALETA
Kepa Roldan Mendizabal
Urriaren 17an, 8 urte. Ondo-ondo pasatu zure eguna.zuk egin tarta haundi bat domekarako eta guk eroango ditugu kandelak. Zorionak eta muxu asko.



ESKORIATZA
Leire Lezeta
Urriaren 17an, 8 urte. Zorionak, Leire! Eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Marrubizko muxu asko! Maddi eta Itziar.

ARETXABALETA
Ibon Bartolome
Urriaren 17an, 30 urte. Zorionak, tio. Hemen ez egon arren guk zorionak emutentzugu. Indiatik zatozenien besarkada handi bat eta opari bat eukikozu. Muxu fuerte bat.

ARRASATE
Jone Barandiaran
Urriaren 18an, 6 urte. Zorionak eta patxo handia aitatxo, amatxo, Julen anaia eta Elaia lehengusinaren partetik. Ondo pasatu eguna!

ARRASATE
Joxefe Diaz de Tuesta
Urriaren 12an, 56 urte. Zorionak bixoiri! Batak udaberri bat gehiago izango duelako eta besteak bide berri bat hasi duelako jorratzen. Patxo haundi bat!

jaiotakoak

Julen Garcia Sanchez
Aretxabaleta > 3,240 kilo. Urriaren 5ean. Gurasoak: Elena (Aretxabaleta) eta Aquilino (Aretxabaleta). Argazkian, Julen jaioberria, amarekin.

Julen Robledo Cordero
Arrasate > 3,600 kilo. Urriaren 5ean. Gurasoak: Sonia (Arrasate) eta Bixente (Arrasate). Argazkian, Julen jaioberria, amarekin.

Daniel Serrano Olea
Arrasate > 3,500 kilo. Urriaren 6an. Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Jose Maria (Arrasate). Argazkian, Daniel jaioberria, amarekin.

Uzuri Arantzabal Fernandez
Antzuola > 3,100 kilo. Urriaren 6an. Gurasoak: Pili (Antzuola) eta Jokin (Elgeta). Argazkian, Uzuri jaioberria, amarekin.

Peru Barroeta Lete
Oñati > 3,630 kilo. Urriaren 7an. Gurasoak: Itziar (Oñati) eta Barru (Iurreta). Argazkian, Peru jaioberria, sehaskan lo.

Edur Crespo Gonzalez
Arrasate > 2,710 kilo. Urriaren 7an. Gurasoak: Miren (Arrasate) eta Eugenio (Eskoriatza). Argazkian, Edur jaioberria, aitarekin.

Melanie Nerea Orellana Taylor
Arrasate > 2,680 kilo. Urriaren 7an. Gurasoak: Karen (Ecuador) eta Simon Bolivar (Ecuador). Argazkian, Melanie Nerea jaioberria, amarekin.

Aner Arrondo Agirre
Bergara > 3,460 kilo. Urriaren 7an. Gurasoak: Arantzazu (Bergara) eta Jabi (Bergara). Argazkian, Aner jaioberria, sehaskan lo.

BABESLEA

ASTELEHENEKO Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-10-13

Jone Otxoa-Aizpurua > Kantaria eta kazetaria

"Hasierako lana berezia da oraindik niretako"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Ahotsak egin du ezagun Jone. Batetik bere abesti goxoetan eta, berriki, astebururo, goizez, *Gaztea Irratia*-n. Azken urtean bigarren horri eutsi eta kantagintza alde batera utzita dauka, nahiz eta badabilen kantu berriak sortzen. "Presarik ez" baina, lana ondo egitea gustatzen zaiola dio.

Hasieretako abestietan behin eta berriz esaten zenuen momentua aprobetxatu egin behar dela. Hala egin zenuen zuk?

Zalantzarik gabe. 2005ean lehen diskoa atera nuen eta 2007an bigarrena. Buru-belarri aritu nintzen horretan eta biziki disfrutatu nuen. Gerora ikusi nuen gauzak lasaiago hartu behar nituela eta orain beste momentu bat bizi behar nuela.

Eta zeintzuk dira, bada, zure gaur egungo ardura horiek?

Oraindik ez dakit, goiz iruditzen zait. Abestietan asko sakondu beharra dago. Kantuak egiten hasita nago, baina jakin badakit kantu horiek itxuraz asko aldatuko direla. Zeozer egin eta hurrengo egunean hartzen dudanean, entzun eta ez zait gustatzen eta utzi egiten dut; eta ondoren, hartu. Horrela behin eta berriro ibiltzen naiz.

Oso zorrotza izango zara, hortaz, abestiak egiteko orduan.

Egina daukazun lanaren arabera izaten da hori askotan

Buelta asko ematen diet abestiei eta, sarri, lehen baztertutakoa geroago hartzen dut eta zerbait berezia ikusten diot. Asko gustatzen zait jardun horretan denbora pasatzea. Barruko hori landu eta kanpora ateratzea oso polita izaten da.

Gustura geratzen zara egindako abestiekin?

Bai, baina abesti bat zenbat eta denboran urrunago izan, orduan eta sentsazio bereziagoak pizten dizkit.

Berezia, ala, batzuetan lotsa? 16 urterekin hasi zinen abestiak idazten.

Ez, sentsazio arraroak dira. Garai oso bereziak izan ziren horiek niretzat eta oroitzapen oso onak dakarzkit. Bigarren diskoa gertuago daukat eta emaitza aldetik askoz ere gusturago nago. Baina lehen lan horrek oraindik ere berezia izaten jarraitzen du.

Aurkeztu duzu sekula zure abestirik *Gaztea*-n?

Ez, eta ezta nahi ere! Bi gauza oso desberdin dira niretzat, baina bientan nago ahotsarekin zerbait transmititu guran. Irratian orain dela gutxi hasi naiz eta benetan gustura nabil. Ikasten, oraindik.

TEST-A

Jaioterria: Anoeta. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Kazetaritzan lizentziaduna. **Disko bat:** Hemengo bat: Ken Zazpiren *Argiak;* eta kanpoko bat: Marlangoren *Automatic imperfection*. **Film bat:** Drama onak gustatzen zaizkit. **Ihes egiteko:** Itsaso aldeak asko lasaitzen nau **BIdaiatzeko toki bat:** Asiako edozein herrialdetara joango nintzateke gustura. **Liburu bat:** *La Mujer Habitada*. **Kontzertu bat:** Fermin eta Kontrabanda.

MUSIKA Abesti berriekin lehen urratsetan da Jone uneotan. OIHANE ISASI

ai, ene!

Komunean eta jokoan

Brasilgo ESPN kateak bere futbol emisioak iragartzeko modu berezia aurkitu zuen: komun publikoetan argazkiko futbolin erako jokoa ipintzea. *Futbola edozein tokitan da ona, baina are hobea gure katean*, dio iragarkiak.

http://ttiki.com/7052

biharamuna

Oier Bolibar

Kapital

Kapitala faltan, kapitala eskatu, kapitala jarri....badirudi berriz ere gutxi batzuen eskura besterik ez dagoela. Kapitala behar duenarentzat ordea, hutsa. Ez da debora asko futbolari batengatik ordaindutako kapital kopuruaz jardun nuela, eta kapital beharrean dauden kooperatibentzat xoxik ez. Diputazioak zorretan zegoen futbol talde bati ·"barkatu" dio berriz ere zor zuen kapitala kopurua, nola ez, gipuzkoar guztiok gure zergetatik ordainduko duguna, 22 aberaskilloren artean banatzeko. Bitartean, behar duena ito larrian, zain.

Eusko Jaurlaritza ere ez dabil urruti, beste 22 aberaskillok osatutako talde baten etxea eraikitze aldera, kapitala eskura. Eta nola ez, zirkoa osatzeko, Odon ate-joka, oparituko dioten lurrazpiko trenarekin nahikoa ez balu moduan. Gipuzkoarrendako metroa diote, hori bai, ordaintzerako orduan bakarrik, gero Donostia eta inguruko gutxi batzuek erabiliko dutena. Eta bitartean, Debagoiena alde batera, xoxak kaxan jarri besterik ez, eta bueltan ia hondakinak jasotzen dituena. Soluzioa, Debagoiena Arabara begira jarri, bitartean euskaldundu eta Gasteiz kapital.

eguraldia



MAXIMOA	MINIMOA
+19	+9

Haizea eki/ipar-ekialdetik ibiliko da, eta zerua garbituko du. Goizean goiz behe-lainoa egongo da. Minimoak, nahiko hotz.

www.euskalmet.net



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko : 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Himnoak
Eibar I EIBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Reala I REAL
Real Union I UNION

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU

Herrikoia
Bagare I BAGARE
Desde Santurce a Bilbao I DESDE
Ikusi Mendizaleak I MENDI
Pintxo-pintxo I PINTXO
San Simon eta San Judas I SAN

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena I KODEA
1,2,3,4...Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic Iuep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu...Ansar I ANSAR
Hartu...Argentinarra I ARGEN
Hartu...Mexikarra I MEXIKO
Hartu...Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
LAU1
MUSKARIA
AIZKORAK
NUKLEAR
KALABERA1
EGUZKILORE3
SORGIN
POPATIK
KAPUTX

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora,/ * Vodafone: deitu 123-ra,/ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.